Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 7 ZENBAKIA. ABENDUA 1992

7

Arnaud OIHENARTen Omenez
(1592-1667)

Arnaud AGUERGARAY
Patxi ALTUNA
Joxe Austin ARRIETA
Mixel BERZAITZ
Tere IRASTORZA
Jean-Baptiste ORPUSTAN
Patri URKIZU
Xarles VIDEGAIN

Hegats

LITERATUR ALDIZKARIA. 7 ZENBAKIA. ABENDUA 1992

7

AURKIBIDEA

Arnaud OIHENARTen Omenez
(1592-1667)

7
ARNAUD AGUERGARAY
A. OIHENART Pastoralaren Lehen Pheredikia

10
PATXI ALTUNA
Lapurtarrak OIHENARTekin haserre?

17
TERE IRASTORZA
OIHENARTen Poemagintza

34
ARNAUD OIHENART
L'Art Poétique Basque (1665)

59
JEAN-BAPTISTE ORPUSTAN
Bernat ETXEPARE 'ta Arnolde OIHENART: ondoriotasunetik harat

73
PATRI URKIZU
OIHENARTen atsotitzak berrirakurriz

86
XARLES VIDEGAIN
Atsotitzak OIHENARTen ildotik

92
JOXE AUSTIN ARRIETA
... OIHENARTE ... LAUAXETA ...

93
PIERRE BERZAITZ
Allande OIHENART mintzo

95
GABRIEL ARESTI
Azken Harria-tik

Hegats
Literatur aldizkaria
7. zenb. 1992

ARGITARATZAILEA:
EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA
ALE HONETAKO KOORDINATZAILEAK:
Patri Urkizu / Maite Gonzalez Esnal

ERREDAKZIO BATZORDEA:
Aurelia Arkotxa, Jose Mari Iturralde, Ramon Etxezarreta, Maite Gonzalez, Iñigo Arambarri, Iñaki Bernaola, Inasio Mujika, Patri Urkizu.

MOLDIZTEGIA
Antza, S.A.
Industrialdea 01.02
20160 Lasarte-Oria

SUSKRIPZIOA:
Begoña Andonegi
Euskal Idazleen Elkartea
Etxague Jeneralaren kalea, 6-behea-eskuina
20003 DONOSTIA
Tf.: (943) 42 00 10
ISSN: 1130-2445
L.G.: SS-359/90

Ale hontako irudi guztiak Rafael RUIZ BALERDIrenak dira eta, beraz, gure eskerrik beroenak aitortu nahi dizkiegu Jacqueline SANCHEZ eta Laura ESTEVEri.

ARGAZKIAK
Jesus Uriarte Susperregi
J. M. Susperregui

Arnaud OIHENARTen Omenez
(1592-1667)



Arnaud AGUERGARAY

A. OIHENART Pastolaren Lehen Pheredikia

1. Jinkuak deiziela egün hun
Popülü maithagarria,
Eta eman ditzatziela
Bake et'osogarria.

2. Ikhusten zütiet, heben,
Holako salduan jinik,
Gurekilan ikhustera
Trajeria bat berrirk.

3. Egünko süjeta nur den
Bertan düzie jakinen:
Allande d'Oihenart date,
Maule bereko seme zen.

4. Eskolan lüzaz egonik,
Bordeleko hiri handin,
Jin zen bere sor lekhilat,
Bizi izan Üskal-Herrin.

5. Zilbietaren zindik gisa
Behala zien bozkatü,
Artzain ta laborariak
Üsü zütian lagüntü.

6. Ordü hartan ezkuntü zen,
Alhargüntsa batekilan,
Bai eta aitun-semetü
Bordele ta Paueko khortietan.

7. Donaphaleürat juan zen,
Bena hor, presuntegian,
Estakürürik gabe,
Ezaririk zen izan.

8. Espainul, Italianua,
Greka, Frantsesa
Zütian aisa mintzatzen,
Bena maitiago üskara.

9. Bere bakant hüst-artetan,
Har-üzka izkibatzen zin.
Üskal-Herriaren gaiñen,
Bi libürü huntü zütin.

10. De Treville Jaun Khuntiak
Erregeren huntarzünak,
Xüberun, erosi zütin,
Phakatzeko popüliak.

11. Allande Oihenart ordin,
Xüberotarren izenin,
Erregeren ganat juan zen
Zilbietaren zindikarekin.

12. Nahi zian Xüberua
Lehen bezala ikhusi,
Bake eta batarzünin,
Bere lege xaharreki.

13. Ordin Xüberua oro
Beitzen zorrez kargatürik,
Matalaz zena goithü zen,
Xüberotarrak bildürik.

14. Erregeren tropen kuntre
Matalaz zen güdükatü,
Bena hek zeion ordin,
Sohütan, gainia hartü.

15. Errege ta handik gerlan,
Jentik aldiz miserian.
Zer nahi ikhusi zien
Üsü barurik lanian.

16. Holaxe, jente xehiek
Fresak zütien phakatzen.
Ezpeitzen diharürik,
Hersiki ziren bizitzen.

17. Ordü izigarri heietan
Oihenartek zian egin
Ahal zianer lagüntza,
Nahi et'ahalak beitzütin.

18. D'Oihenartek hiru seme zütin.
Bat zen etxen ezkuntü
Eta beste biak, aldiz,
Eskolatü ondun, apheztü.

19. Agarramuntesentako
Etxe-gizon xüxen beitzen,
Bidaxünerat juaiten zen,
Kurri etzelarik agitzen.

20. Jende hunak, gurekila,
Pharkazale izan zitaie:
Trajerietako izarrik
Ihur heben ezpeitate!

21. Aurthen, jadanik, sei urthe
Itzali dela Etxahun
Haren orhitzapenian
Egin güzie batzarri hun.

22. Zeren harek deikü eman
Egünko gure süjeta.
Ümenaldi bat bezala
Izan dadin gure jeia.

23. Orai banuazü besteki.
Emanen dügü phastuala.
Har ezazie plazer hanitx,
Gük ziekilan bezala.

(Muskildi, 1985)

Patxi ALTUNA

LAPURTARRAK OIHENARTEKIN HASERRE?

Galde zeinua du azkenean txosten honen tituluak. Ez daukat esan beharrik zergatik: ez dudalako batere segurantzarik —diodan hobeto, oso segurantza txikia dudalako— txosten honetan defenditzen dudan tesia egia dela. Aldeko arrazoiak badira, kontrakoak ere bai. Egia gertatzeko nere susmo askotxok egiazkoak gertatu beharko lukete eta ez da sarritan gertatzen inoren susmoak, askotxo direnean, egia ateratzea guziak. Aski nuke tesiak egiantza baduela esango bazenute, agian hala dela, ez dela guztiz ezina. Gainera segurantzarik ez denean arriskatzea on eta beharrezkoa da, non ez den arriskatze arras burugabea, ezen arriskatu gabe ezin daiteke askotan egia aurkitu.

Euskal literatur historiako arazo baten aurrean gaude. Lauzpabost testu ditugu gauza bertsua diotenak; badakigu axalean zer dioten, baina ez nortaz ari diren ez eta inor konkretuaz ari diren ere. Seguruak diren puntu batzuetan oinarriturik testu horiei interpretazio bat ematen zaie txostenean eta izen bat benturatzen testu horien egileek agian gogoan zutena halako hitzak idaztean.

Puntu seguruak hauek dira. Oihenartek kupida gabe zehatu eta zigortu zuen bera baino lehenagoko euskal poeten —Etxepareren eta Ziburuko Etxeberriren, batez ere— bertsogintza. Bere *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae* liburu famatuaren bigarren edizioan (1656), lehenari eransten dizkion ataletatik batean, —*De syllabarum quantitate* deituan[1]—, "Lauda, Sion, Salvatorem" eliz kantuaren lehen ahapaldiaren berak eginiko itzulpena ipini ondoren, bertso emez eta irristakorrez osaturiko ahapaldiaren eredu bezala, "vulgares versificatores" —"koblariak"— baino ez omen direnak gaitzesten ditu, berez eme omen diren hitzez, azentua bortxatu eta, harrak balira bezala baliatzen omen direlako bertso harrak egiteko. "Vitium non ferendum", ezin jasaniko makurra, omen da hori. Horrez gain, baita elisio-sinalefak beti egiten ez omen dituztelako ere, ezpada gogoak ematen dienean eta komeni zaienean bakarrik.

Hurrengo urtean (1657) eman zituen argitara "Les proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur". Euskal olerkiak direlako hauek liburuaren bigarren zatia dira eta zati honi titulu eta hitzaurretxo bereziak ipini zizkion. Hona titulua: "Oten gastaroa neurthizetan". Hitzaurreak berrogeitamar lerro baino gutxiago ditu eta guri dagokigun punturako ez du berrikuntza handirik.

Euskaldunok poesiari oso emanak omen gara, baina aldi berean poesiaren legeak betetzeko eta are ezagutzeko hain ganoragabeak, non argitaraturik edo argitara gabe euskaraz eginak diren bertso-lan guzietan oso gutxi omen baitira ("il y a fort peu de vers") bertso zuzenak. Zergatik? Lehen emandako bi arrazoi berberagatik: haien egileek azentua bortxatu eta, berez eme omen diren hitzez harrak balira bezala baliatzen omen direlako bertso harrak egiteko, eta elisio-sinalefak gogoak ematen dienean bakarrik egiten dituztelako. Akats horiek gabeko bertsoak euskaraz ere moldatzen zenbaitek uste bezain zaila ez dela agertu nahiak eragin omen dio, lehen beste obra batean lege horietaz mintzatu ondoren ("apres auoir parlé de ces regles en un autre ouvrage"), gaztetan egin zituen neurtitz hauek argitara ematera.

Hirugarren obran, *L'Art poétique basque* deituan, xeheki mintzo da Oihenart bi poetaz, Etxeparez eta Etxeberriz, lehen ez bezala, izen, deitura eta guzti. Liburuki honek badu bere istoria. Ez genuen ezagutzen, harik eta 1967an aita Lafittek, bestek eskuraturik, *Gure Herria* aldizkarian lehe-

[1] Oihenart, Arnaud, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae, 2. ed., 1656, 73. or.*

nik eta separata gisa geroxeago[2] argitara eman zuen arte. Laburra da, hogeitalau orrialde danera. Hasieran titulu gisa honela dio: "*L'Art poétique basque, indiquee dans une lettre escritte a un cure du pays de Labourt au moys de mai 1665*". Euskal poesigintza, alegia, 1665eko maiatzean Lapurdiko apaiz bati eginiko kartan azaldua.

Guri axola zaizkigun orrialdeak gutunaren azken azkenak dira. Hona laburki aurrekoen edukia. Lapurdiko apaiz batek galdegin omen dio zein metodoz baliatzen den euskal bertsoak tolestatzean. Eta, gaztetan aritu zela horretan, baina geroztik ez dituela gehiago tolestatu: Europan bertsogintzan aritzen zirenek erabiltzen zutenaz baliatzen zela. "*Ziur naiz*", esaten dio gero apaiz ezjakinari, "*ez dakizula zer diren bertso harrak eta emeak*", eta bi orrialdetan barrena ematen dio horien berri. Badirela ordea bertso irristakorrak ere, nahiz eta frantsesez ez, eta ondoko hamar orrialdeetan zer diren irakasten dio eta nola nahas daitezkeen bertso emeekin, doinu ederreko zenbait ahapaldi desberdin sortuz. Euskarazko kanta zahar berezi xamarra omen den bateko ahapaldi bat aipatzen dio; lau bertsotatik hirugarrenak punturik ez eta beste hiru bertsoek puntu bera omen dute. Hiru orrialdetan elisio-sinalefen dotrina ematen dio, beste hirutan hitz irristakor eta zalantzazkoak euskaraz zein diren irakasten eta azkenik sartzen da guri dagokigun puntuan: Etxeberriz esaten dituen kontuetan.

Haren bertsogintzari aurkitzen dizkion akatsak hauek dira:

a) inoiz ezein hizkuntzatan, are gutxiago latinez, egin ez diren bertsoak, hamabost silabakoak, egin omen ditu, Etxeparek bezalaxe;

b) bertso harrak egiteko lehen ere bitan egotzi dion hitzen azentuaren bortxa leporatzen dio;

c) poto egiteko kupidarik ez duela;

d) hori guzia *Manual*-ean bakarrik ez, hiru obretan egiten duela: *Manual*-ean, *Noel*-etan eta *Eliçara erabiltcecoa*-n;

e) "Et il se donne", dio gainera, "*en plusieurs lieux d'autres licences exorbitantes*", bere buruari albaina luzea ematen diola, alegia, potoa egiteaz gainera izenez eta izenlagunez osaturiko sintagmetan biei itsasten omen dizkielako laguntzailea eta kasu marka; esate baterako *Enea galdea* edota *pensamenduetaric gaxtoetarik* idaztean. Bukaeran bi laudorio egiten dizkio, haatik: euskara ongi menderatzen zuela eta hitz lauz idatzi balu, idazle bipila izango zela; eta gainera apaiz ona zela.

Ez da hau puntu bakoitzari erantzuteko lekua, baina bakarra hautatzeko, a)ri buruz diodan hauxe: Latinezko hainbeste bertsoren ezagupidea agertzen du Oihenartek eta, ez al zituen honako hauek ezagutzen?:

Tantum vini habet nemo quantum fudit sanguinis

eta

Apparebit repentina dies magna Domini,
Fur obscura velut nocte improvisos occupans.

Eta horrelako beste asko. Hamabost silabakoak dira eta antzinakoak. Ezin esan, beraz, latinez sekula halakorik izan ez zenik.

Txostenaren lehen puntu hau azkentzeko, hauek izango lirateke Oihenartek gehiagoren artean Etxeberriri edo Etxeberriren bertsogintzari eginiko irainak: bat, poeta ez baina koblari izatea; bi, bertso zuzenik ia batere ez egin izatea; hiru, bertso harrak egitearren hitzen azentua bortxatzea.

Irain hauek garai hartako eta geroagoko lapurtarrei eman ahal izan zieten zastada neurtzeko, nik hemen Etxeberri nor zen eta nolako gizona zen kontatu beharko nuke. Ohartzen zarete ezin dezakedala. Hona zertzelada batzuk pixka bat jabe zaitezten. Lafittek dio: "*Eskualdunen*

[2] Oihenart, Arnaud, *L'Art poétique basque*, tirage à part de *Gure Herria*,1967.

bihotzetan ez luke sekulan hil behar"[3]. Michelenak "*escritor de primera clase*" deitzen du[4]. Villasantek: "*Personaje de alta calidad, culto y humanista*"[5]. Bere garaikoek "*Doktor Teologo*" deitzen zuten, hala baitzen, garai hartan gutxi eta euskal idazleen artean beste inor ez bezala. Lagun batek, gero ikusiko dugunez, "*Euskal Herriko seme kutun*" ("patriae gloria prima tuae) izenda zedin eskatu zuen olerki batean. Beste batek idatzi, poesi lanean ere estimatzen zuela, baina gehiago itsasontziak egiteko artean; hori zela eta, Lapurdiko itsasgizonak zordun zitzaizkiola betiko. Oihenartek ere entzun duzue nola zioen prosaz egin balu lana, " il auroit reussy indubitablement"[6] eta hurkoaren ardura zuen apaiza zela. Nahitaez maitatu behar bihotzez orduko lapurtarrek Etxeberri eta nahitaez gelditu behar lazki minduak Oihenarten hitz ziztagarriekin.

Bai al da inon mindura horren aztarnarik? Ene ustez bai, norbaitek norbaiti eginiko irainaren mindura ezin argiago aditzera emana dago; nork, ez jakin; nori, Ziburuko Etxeberriri itxura guzien arabera. Minduraren oihartzun samina eta mingotsa entzuten da. Mindura hori ez da behin edo bitan bakarrik aipatzen, ezpada gehiagotan, han eta hemen. Aipatzen duten pasarteak ez dira ilunak, ulertezinak, esangura askotakoak, ezpada egunargia bezain distiratsuak. Lagun baten (batzuen?) jokaera gaiztoa ez da zehar-esanez eta itzul-inguruka aditzera ematen, baizik bere izen gordinez salatzen: *bekaizkoa, inbidia* omen da. Lagunaren izena eman ez, gainerako guzia dago esana. Nor da lagun hori? Ikus dezagun astiro eta banaka lekukotasun bakoitza, ea minduraren zergatikoaz, min emaileaz nahiz min hartzaileaz zerbait argibide ematen diguten.

Liburua eskuztatu dutenek badakite Ziburuko Etxeberrik 1627an bere *Manual devotionezcoa* lehen aldiz argitara ematerakoan, Axularrek eta Guillentenak "gendea progotcha daitequela eta hartaracotz imprimaturic arguitara illkhi daitequela" fede emateaz gainera, hiru lagunek olerki bana egin ziotela liburuagatik zorionak emanez, batek euskaraz eta beste biek latinez. Olerki horiek liburuaren lehen orrialdeetan agertu ziren eta han irakur daitezke. (Larramendik handik ehun urte baino gehiagora Mendibururi egin gutuna eta honek bere liburuan argitara emana datorkit burura. Ez dute imitatzaile asko izan. Euskaldunok urriak izan gara beti inori zorionak ematen agerian). Latinezko hauetatik lehena beste inondik ezagutzen ez dugun I. de Heguy delako batek ondua da. Hiru lehen distikoetan esaten diolarik berak zeruko laguntzaz burutan atera duen katexima dela euskaraz sekula santan egin den lehena, olerkia bururatzen duen laugarrenean honako galdera hau egiten du poetak:

Quidni igitur, rumpente iecur livore, per orbem
Diceris oh patriae gloria prima tuae?

"Nolatan ez zaitu, bada, mundu osoak Euskal Herriko seme kuttun aldarrikatzen, nahiz bekaizkoak norbaiti gibela hautsi?".

Bertsoaren azken hau zinez harrigarria da eta, orain esan ohi den bezala, nornahi "destokitzeko" modukoa. On da poetak, zorionak bakarrik ematea gutxi zela pentsatu eta, Etxeberrirentzat beste titulu handi hori ere eskatzea: horrenbestez bere lagun eta maisuarekiko miresmena agertu baino ez du egin. Baina hori eskatu eta gainera olerki berean, berak txarki susmatu ez ezik, irakurle guziei ere txarki susmarazi, alegia, norbaiti horregatik gibela hautsiko zaiola inbidiaz: esan egin behar al zen hori? Liburuaren egileari gaizki nahi diotenak badirela lau haizeetara aldarrikatzea gehiegixko irudi dakioke norbaiti eta Etxeberrirentzat berarentzat ez mesedegarri.

Hala iruditu edo ez iruditu, ordea, hor dago betiko esana eta guri ez dagokigu hori erabakitzea, baizik horren esangura luze-sakon eta misterioso samarra ahalean atzematea. Nori hautsi behar dio bekaizkoak gibela horregatik? Ez jakin; ez zaigu esaten nori, baina dena dela, gauden se-

3 Lafitte, Pierre, *Eskualdunen Loretegia*, 1931, 22. or.
4 Michelena, Luis, *Historia de la literatura vasca*, 1960, 71. or.
5 Villasante, Luis, *Historia de la literatura vasca*, 2. ed., 1979, 70. or.
6 Oihenart, Arnaud, *L'Art...*, 39. or.

guru ez dela izango "sembait bezain edo ilhaguin besain sarpasu" (2. Neurtitza, 28-30 bertsoak) horietako bat, ezeta alproja bat; sona handiko pertsona eta arras ezaguna behar du izan nahitaez. Bestela ez zukeen inork haren bekaizkoa aintzat hartuko, ez zukeen hark halako sona aterako, ez liburu baten buruan aipamenik mereziko. Eta zergatik bekaizkoa? Zergatik hautsi behar dio horrek inori gibela? Dirudienez, lehen euskal kateXima moldatu duela eta, Etxeberrirentzat sari hori, titulu hori eskatzen delako. Baina zer du inork Zibururuko Etxeberriren kontra, halako ohorea ez opa izateko? Autorearen kontra inork ezer duenik ez dakigu, baina haren obraren kontra Oihenartek zerbait duela bai, zerbait baino gehiago ere bai, entzun dugunez. Eta hala balitz ere, autoreari zorionak emateko eginiko olerkia leku egokia al da, hari ez dakit nork omen dion ezin ikusia gogorazteko?

Minduraren bigarren intziria Esteban Hirigoiti midikuak eginiko beste latinezko olerkian dago. Poliki zekien latinez, midikua izanagatik, Etxeberri beraren beste anaia zen bezalaxe, eta muinez bai edukiz asko eramaten dio olerki honek ene ustez Heguy-k eginari. Honela diotsa: Poeta den aldetik erramu-boneta berriki jantzia duela, bai, baina itsasontziak egiteko zedroa erramuaren aldean tantaia den bezala, hala merezimendu handiagoak irabazi dituela itsas ontzigintzan, zeren ontzi berriak asmatuak omen baititu itsastarientzat eta hauek oso zordun omen baitzaizkio. Berriak eta ez nonbait nolanahikoak asmatu dituen ontziak, zeren, diotsa, "ez itsas jainkoa den Neptunoren herrak, ez eta lur-itsasoek bere kolkoan dituzten kemen ankerrek, ez eta *gizonen bekaizko miztoak* —"hominun livor mordax"— ez ditu haiek suntsituko.

Horra berriz ere "bekaizkoa", hemen ere norena den esan gabe eta gainera pluralean, gizonena, poetikoki emana, Etxeberrik egin dituen ontziak porrokatzeko gai izango ez omen dena. Hemen ere ez zaigu esaten nork duen edo dion bekaizkoa, ezeta zergatik dion, eta zernahi gisaz hori gogorazteko baliatzen den parada lehengoa bezalakoxea da, zorionak emateko eginiko olerkia.

Minduraren beste bi intziri euskaraz eginak daude eta bi pasarte horietan "inbidia" hitza Etxeberriren beraren lumatik jalki da. Nahi dena esango da, baina "inbidia" askotxo iruditzen zait liburu baterako eta, gizonen makurrik nagusienetako bat dela aitorturik ere, ez dut ikusten hemen adina aipatua beste euskal liburuetan. Zergatik hemen hainbeste bider?

Liburuaren, *Manual*-aren, lehenbiziko zatia Claudius de Rueil Baionako apezpikuari eskaintzen dio poetak. Orduan ere "sponsor" bila ibili behar euskal idazleek: "patroin çaitut hautetsi" (77. bertsoa). Horrek ez dio, ordea, apezpikuari bekoz beko esatea galarazten euskaraz ez zekiela, nahiz lauzpabost hizkuntza frantsesaz gain zekizkien: "Iongoicoac nahi luen, Iaun Prelata, escara ciñaquien" (49. bertsoa); halaz ere ohore izango zela harentzat hizkuntza arrotzez mintzo zena entzutea, hala omen zioelako errefrauak: Erregeren ohorea da hanitz mihitako suietak izatea. Har zezala beraz ohoretzat. Eta puntu horretara iristean, egin duen hautespena iragartzen dio eta obra eskaintzen honela:

Hartaracotz obra hunen patroin çaitut hautetsi
Gaisqui errailleac ceren baititutçu gaitcetsi.
Çuri escaintcen darotçut otboi guarda eçaçun
Invidiosen mihiac liçun eztieçaçun.

Hor ditugu batetik "gaisqui errailleac" eta bestetik "invidios-" hitza, lehengo latinezko "livor" hura gogorazten diguna. Batzuk eta besteak "obra hunen"-ak dira, esan nahi baita, obra hunen gaizki erraileak eta obra hau lizun dezakeen inbidiosen mihia. Halaz eta guztiz ere, aitortu beharrean naiz testu inguruak pasarte honi beste interpretazio bat ematera lerrarazten nauela, oraintsu arte ez bezala, eta ez dudala garbi ikusten bekaizko hau nahitaez txosten honetako ene hipotesiari dagokionik. Nahiago nuke bestek besterik sinestaraziko balit, baina hemen, oker ez banago, euskararen, eta ez beraren, etsaiak eta gaizki esaleak eta horien euskararekiko inbidia ditu poetak gogoan. Azken distikoak narama beste interpretazio hau hobestera. Honela dio:

Erregueac behar ditu defendatu gendeac,
Hitzcuntça batecoac hain ungui nola berceac.

Aldiz liburuaren bigarren zatiko *Itsassoco biayetaco othoitcen araldea* deritzan sorta Miguel Oiharart Bikario Generalari eskaintzen dio, hura omen delako herrialde bateko itsasturien artzaina eta Jaunak utzitako ordaina, aitzinatu omen duelako ahalean haien ongia eta beti izan omen delako aldian aldiko otoitzak errezatzearen aldeko. Halakoak egin omen ditu itsasturientzat —"Hemen bada formatutut othoitz batçuc ureco"— eta hauek otoitz horietaz baliatuko omen dira, baldin hark bere itzalaz gerizatzen baditu. Horregatik aurkezten omen dizkio eta eskatzen har ditzan bere gomendioan. Eta honako distiko eder honekin bukatzen du eskaintza:

Prestutassun eçagunac hauts deçan invidia
Eta ahoco hitz batec ichill hitzquin mihia.

"Inbidia" eta "mihi hizkina" ditugu hemen. Aurreko bertsoek diotenari lotzen zailago dira, ene ustez, bi kontzeptu horiek. Ez da ageri itsasgizonentzat otoitz egiteko bertsoak apailatu dituelako inork poetagatik marmarrean aritu behar duenik eta inbidia izan. Testutik kanpo gelditzen den beste mundu bati egiten diote segurki erreferentzia bertso horietako marmarrek eta inbidiak. Zein munduri?

1627ko *Manual*-ean aurkitzen ditugun "inbidia"-ren lau alditako aipamen horiek alde batera utzi eta gogora dezagun orain nola, lehen esan bezala, duela 25 urte juxtu-juxtu, 1967ko urrian, aita Lafittek argitara eman zuen inoiz argitara gabeko eta zenik ere jakin gabeko gutun bat —"une lettre"—, lehen orrialdearen buru-buruan honela zioena: *L'Art poétique basque, indiquee dans une lettre escritte a un cure du pays de Labourt au moys de mai 1665*. Har ditzagun bi puntu horiek gogoan: Lapurdiko apaiz bati eta 1665ean. Ez zaigu axola egiazki Lapurditik gutunik etxeratu zitzaion ala idazleak fikziozko gutun bat asmatu zuen, berak beste (?) bat idazteko aitzakia izan zezan. Besterik axola zaigu guri: hots, Oihenartek nori, eta Lapurdiko apaiz bati; zertaz, eta euskal bertsoak eihotzeko bera baliatzen zen metodoaz, gutun bat egin izatea zahartzaroan —beste bi urte bizi izan zen gehienez—, bere poesigintza zertan zetzan argituz, Etxeberriren bertsogintzak berekin zituen hutsegite larriak azalduz eta hondarraren hondarrean bere burua zurituz. Halabehar hutsa izan ote zen?

Egin dezagun orain ehun urteko saltoa, jar gaitezen XVIIIgarren mendearen haste-hastean eta eman diezaiogun begiratu bat beste Etxeberriren obrari. Hau ez da apaiza, midikua da. Saran jaioa, lapurtar amorratua. Biziki maite du Axular, eta ez gutxiago Materre eta gure Etxeberri. Oso ongi ezagutzen ditu hauen euskal lanak eta ezin gorakiago handiesten horiek eta horien egileak, Oihenart eta honen zenbait iritzi erdeinatzen eta muzintzen dituen bezanbat. Zuzen onez ala ez, ez zaigu hemen axola. Axola zaiguna da Oihenartekiko erakusten duen herra eta grina huskeria batzuek gatik.

Batean irakatsi omen zuelako *Lapurdi* izena hitz arrunt *lapur*-etik eratorria zela, bestean euskal izen guzien azkeneko *-a* mugatzailea zela eta beste batean idatzi omen zuelako Jainkoak eman digula hizkuntza bat "tratuaren edo merccatalgoaren eguiteco eta mugaquideequin batasunaren conservatceco eta iraunarazteco jeusic balio eztuena", asto beltzarenak esan zituen Oihenarten kontra, euskararen arbuiatzaileen eta euskara "ossoqui iraunguia eta ehortcia" ikusi nahiago omen luketenen artean sartzen duelarik hitz hauetaz: "hautaric bat içatu da Oihenarto gure escualduna". Zergatik horrelako sumindura eta erretxinkeria Oihenarten kontra?

Bada uste duenik Euskal Herriarekiko bien iritzi politiko desberdinak direla horren kausa. Hala ziostan lehengoan neure adiskide Beñat Oihartzabalek. Badaiteke. Nik besterik uste dut, halere, eta hauxe da, hain zuzen, txosten honetako ene hipotesia: Ziburuko Etxeberriri Oihenartek egin zizkion kritika latzek eta irainek lapurtarren artean bizturiko haserrearen azken txinpartak direla horiek, aurreko gainerako guziak bezalaxe.

Ene aldetik txosten honen eta arrazoinamenduaren kabua datekeen puntu honetara iristean, atera dakidake norbait esanez: hori ezina da. Azken bi argudio hauek alde batera utzirik, alegia *L'Art* deritzan gutuna juxtuki Lapurdiko apaiz bati idatzia egotea eta Sarako Etxeberriren suminduraren arrazoia hau edo hura izatea, hasierako lau testu haiek, Ziburuko Etxeberriren *Manual*-eko "livor" eta "inbidia" eta "gaizki erraile" eta abar direlako haiek, ezin dagozkioke inondik ere Oihenarti arrazoi honegatik: *Manual*-aren lehen edizioa 1627koa delako eta Oihenarten testurik zaharrenak, non iraintzen omen baititu Etxepare, Etxeberri eta abar, ez direlako 1656. urtea baino lehenagokoak. Zer esan jazarpen honen aurrean? Bai al da irtenbiderik?

Ene ustez, bai. Hona zein: *Manual*-a, egia, 1627koa da, baina orduko Oihenartek 35 urte zituen, ezin esan gazte zenik. Neurtitzak, aldiz, gaztarokoak dira, gehienak bederen eta berari sinetsi behar badiogu bederen; esan nahi baita gaztaroan onduak, nahiz eta berandu arte ez argitaratuak. Diogun beraz 1627. urtea baino lehen eihoak daudela gehienak, eta horiek tolestatu dituenak badakiela iadanik nolako poesia maite duen eta nolakoa higuin duen. Eta alferrik esango zaigu hogeitamar urte handiz Oihenartek isilik eduki zuela, inori aditzera eman gabe, zein zen berak maite zuen euskal poesia eta zein higuin zuena, eta bestalde zer zeukan Etxeberrik-eta onduriko bertsogintzaren kontra.

Areago, ez litzateke harritzeko Etxeberriri berari, beste gehiagoren artean, esana bazion hori. Badakigu, izan ere, Etxeberri ezagutu zuela. Badakigu harekin solasaldiak izanak zituela: "Je lui ay ouy dire au temps qu'il composoit ses vers..."[7]. Ez zuen beraz Etxeberri aguretua, ia hiltzeko zorian zegoenean ezagutu, "bere bertsoak tolestatu zituen garaian" baizik. Harekin eta besterekin euskaraz bertsoak egiteko tankeraz kalapitarik eta etiketarik izan ez zuela sinesteak lanak ditu.

Areena, ez dirudi itxuragabea Oihenarten obra bat galdu zelako susmoa. Ezen "apres auoir parlé de ces regles en un autre ouvrage" esan digu 1657ko Neurtitzen hitzaurretxoan, eta gaur da eguna oraindik inork argitu ez duena zein den "beste obra" delako hori, non Oihenart mintzatu omen baitzen urte hura baino lehenago bere gogoko poesiaren arauez. Zeren kritikak ez baitu sinesten urtebete lehenagoko *Notitia*-ren bigarren edizioa duenik buruan hori idaztean, han ez baita arauez mintzo, esaterako, ez eta, Lafittek nahi bezala, berak argitara emaniko *L'Art* denik, nahiz eta hori frogatzeko ahaleginak egiten dituen, arrakasta handirik gabe ene uste apalez.

Zernahi gisaz uste dugu Ziburuko Etxeberriren kontrako Oihenarten kritikak ez zirela sekretu Lapurdin 1627. urtea baino lehen, aitzitik ahoz edo izkribuz edota bietara Oihenartek aldarrikatuak zituela lau haizeetara kupida gabe eta haiek lapurtarrei eman zieten minaren eta nahigabearen garraxiak direla txosten honetan aztertu ditugun testuetan entzun ahal izan ditugunak. Hori da ene iritzi apala, ez oso sendoa, harik eta bestek besterik frogatzen dueino.

7 Hor berean, 39. or.

Tere IRASTORZA

OIHENARTEN POEMAGINTZA

OIHENART HIRUKOITZA ALA OIHENARTEN HIRUTASUNA?

Bakoitzak egunerokoan lotzen ditu denboraren dimentsioak, noraez eta norabideak, eta horretarako sortzen du "aldi" bakoitzerako azalpen bana. Oihenartek ere, ezagun eta eskuera dugun lanaren arabera badirudi lehenaldiarekin aurkeztu zuela Euskal Herriaren izaera, eta zoriona etorkizunari eskeini ziola. Horrekin eguneroko bizimodua zapuztu ez baizik eta sendotu egin zuen, bai bere historia lanak bai bere amodio eta ezkontzak oso ondo uztartu bait zituen bizi izan zen bitartean.

Horregatik, ezertan bada Oihenart modernoa —gaur-gaurko zentzuan— bere pragmatismoan azaltzen da. Historiagintza politikarekin lotu zuen, J. Bodinekin hasi eta garai hartako historiagile gehienek legez, eta amodio gorabeherak ere politikarekin uztartu zituen/zitzaizkion, jakina denez, ezkontzaz aitonenseme egin, eta aitonen seme izanda Nafarroako parlamentuan sartu bait zen. Errezago aurkitu bide zituen itzulbideak izubideak baino, eta orainarentzako aritu zen historiagintzan ere,aintzina garaiko hariaz josiz garaiko ehuna..

Han eta hemen irakurri izan ditugu Oihenart historiagileari buruzko aipamen laudoriozkoak, latinez idatzitako euskaldunen notizia haren berri laburtu eta egunera jarriz gainera, Vasconiaren nondik-norakoak arrazionalki eta, Zuzenbideak eskatzen duenez, frogak erakutsiz eman zituelako. Ezin luzatuko gara beraz honetaz..

Gizonak, adinean sartuta inprima erazi zituen bere euskarazko lanak, alegia errefrau bilduma eta poesiak. Atsotitz horietako gehientsuenak herrian bilduak dira, baina beste askotan atsoaren memoria baino prestuago antzematen zaie itzultzaile-modatzailearen lana, hizkuntz erromanikoetan nahiz latinez arruntak ziren erranerak landuz. Bide horrekin fonogatu nahiz, agian, euskaldunen herria ez zela oso ezberdina, eta beste hizkuntzetan jakingarritzat hartuta biltzen zena gure artean bertan jaso zitekeela; adibide bat eman alde,hona hemen Dekameronen hirugarren eguneko lehen ipuina[1] laburtzen duen iritzia 356. atsotitzean jarria: *Oilarbat aski da oilo amarbaten, hamar gizon ez emaztebaten* eta berak itzultzean emakumezkoen aurka gaizki esaka aritzen direnen ezpainetan jartzen duena.

Euskal lan hauek inprimategiaren aipamenik erakusten ez dutenez lagunarteko ediziotzat jo daiteke, nahiz, bestalde, euskaldunok daukagun gutxiagotu konplexu eta gaitza gailentzeko utzi zituela sinistu ahal izan. Inprimaketa honekin, gainera, litekeena da, berez maitearengana hurbiltzeko ahalegina. gailenduz, etorkizunerantz salto egiteko poemak poetika kulto, modernoaren erakusgarritzat eskeini izatea.

Oihenart, itxura guztien arabera, aintzinatasuna eta etorkizuna eguneroko bizimoduaren komenientzietara biltzen zekiena zen, eta horretan esan daiteke joera batbera erakutsi zuela bere zeregin politiko-historikoan zein bere amodiozko poemetan, hauetan ere, maitaleak bere aintzinaz geroztiko maitemintzea aipatzen bait du etorkizunerako eskari edo desioren bat aurkezten duen bakoitzeko.

Iragana, presentea eta etorkizuna bezala, hiru dira, hiru, azkenik, Oihenarten poemetako gaiak: amodioa, erlijioa eta politiko zenbaitentzako laudorioak, nahiz eta azken hau ez den oso garrantzizkoa, eta guztien gainetik amodiorako, bizimodu pribatuarentzako gorde euskara.

[1] Arestiren itzulpenean *Bocaccioren Dekamerone tipi bat* Haranburu Altuna, 1979, 61. or.



Eta Oihenarten lana errepasatuz agertzen den gai hirutasunean txertatu behar da hizkuntzen erabilera bera; latinaz, frantsesez —*L'art poétique basque* eta berak izenpetu gabeko *Declaration de l'injuste usurpation et retention de la Navarre par les Espagnols*— eta euskaraz baliatu zen idazteko. Harrez gero, latinaren ordezkotza ingelesari suertatu zaionetik, hirukoiztasun berberak zatitzen eta osatzen digu bihotza euskaldunoi, edo behintzan, "kulturan sinisturik", ingelesa hizkuntz zientifiko edo esplorabide poetiko-literariotzat, frantses-espaiñarra besteek ezagut gaitzaten, eta euskara geure burua ez ahazteko erabilizaleei. Orduan ere ez ziren denak iritzi horretakoak izango zeren Etxeberrik *Elizara erabiltzeko liburuan* jarriak zituen 1636rako bertso ezagun hauek: *Burlatzen naiz Garibaiez,/ bai halaber Etchabez / zeñak mintzatu baitire /erdaraz Euskaldunez.*

Baina hizkuntzen erabilerari dagokionez bere diglosia edo nahi bada triglosiak ez bide zuen toteltasunera eta ezta eskizofreniara ere ekarri. Berezia da, beraz, Oihenart hiru hizkuntzak erabili zituelako eta horretan ere hirukoiztu egin zelako: hiru zatitan hautsia eduki bide zezakeen bihotza hiru zapitan biltzen ondotxo ikasi zuen.

Beraz, Oihenartek bizitzeko hiru anguluren arteko oreka bilatu behar izan zuen. Noblezia eta Eleizaren indargetze garaiean hirugarren estatuko gizon zen, baina, azkenean, bitartu egin zen. Erregeren zerbitzuan lan egin eta etxe noblera ezkondu zen. Oihenart, estamentuene talkan gizon togatua izateagatik boteretsua zen eta boteretsu izatearekin boteretsuen laguntza behar zuen. Etorkizun haundiko taldean sortu eta horregatik sartu zen etxe noblean.

Boteretsuen izandako hizkuntza, latina, ondo erabiltzen zuen; Vasconia maite izateko España eta Frantziako gatazkan alderdi hartu behar zen. Frantziako erregeari lotu zitzaion, izenpetu ez zuen liburuxka frantzesez eman zuen, frantzesez eman atsotitzen itzulpena eta arte poetikoa.

Maite, hala ere, emazteki euskaldunak maite izan zituen, sobra ere, eta euskaraz mintzatu zitzaien. Zuhur, hala ere, euskaldungoa zuhurtu nahi izan zuen eta erranerak bildu eta moldatu euskaraz.

Hiru hizkuntza erabili zituen, beraz. Lehenaldiarena, latina; presentakoa, frantzesa; etorkizunekoa euskara; etorkizunekoa, hizkuntza zaharrenetakoetarikoa ez bait zen kulturgintzan itzalduna. Gaiari errepara erazteko idatzi zuen latin eta frantzesez euskarari buruz.

Arte poetikoaren inguruan kasik bere poesigintza inguruan baino eztabaida gehiago piztu da. Eta hala ere galderak erantzun gabe dirau. Nola ulertu behar da Oihenarten arte poetikoa ? Batetik ez zuen berak argitara eman (nahi izan ?) eta ez dirudi iritzia zabaldu eta eskola sortzeko ahalegin haunditxoak egin zituenik, nahiz eta poemen hitzaurrean aitortu arau horiek betetzen hain zaila ez dela frogatzeko argitaratu zituela neurtitzak. hala ere, besteei egotzi kritiken azalpen gisara duen garrantziaren adinekoa da estilo borondatearen azalpen eta ausnarketa gisara, eta finean, aurreko esaldia, beste daturik ez dugula, bi modutara, uler liteke gutxienez. Batetik, Oihenartek bere burua poeta ez baino maisu gisara ikusten zuela, kritiko gehienek adierazten dutenez, baina bestetik, poema haiek zahartzaroan, alargun zelarik eta deboziozko neurtitzen segidaz argitara eman zituelarik, pentsa daiteke izenburuak berak bezala erakusten duela Oihenartek bere burua maitale esatariaren multzotik bereizteko ahalegina egin zuela.

Oihenartek, guztiarekin, euskalaritzaren hastapenak eman zituen,, han eta hemen barreiatu zituen iritziekin, eta, inondik inora, poetikan agertzen diren puntu guztiak bete ala ez, ukaezina da, beti, kulturlangintza sakon baten bidea urratu nahi izan zuela.Azalpen sakona behar du prosa latindarraren luzeeraren parean, Axularren prosa hedatu eta Leizarraga eta bien latinzaletasunaren alboan,Oihenartek, latinez idatzi zuen gizonak, eta bere hizketa asmatu asmoz hain zuzen ere, euskara baldintzatzeko sentitu zuen premia. Hainbestetan aipatu diren neologismo, poema neurri, hiperbato eta aurkakotasun bidez aukera zailenarekin maneatu nahi izan zuen barrenean

zeramana (ren zati bat) bederen eta literaturaren ikuspegitik horri erreparatu behar zaio beste edozein alderdiri baino gehiago, aukera bakoitza zuzenetsi ala gaitzesteari ekin aurretik.

Hemen, noski, idazlearen eskubide eta hizkuntzak ezartzen dituen mugekin egiten dugu topo eta horrekin batera edozein idazlek egin behar duen hautapenarekin. Hizkuntzaren ondarea eta errealitatearen abiaduraren arteko hautapena, eman eta edan duenak batetik eta sortu eta berriz eman behar duenak bestetik neurtzen dute, eta honetan bideratzen du Oihenartek hizkuntz erabilera hirukoitza bere bitasunetara.

2. OIHENARTEN BIKOIZTASUNAZ ALA BITASUNAZ?

Euskaldunen artean, Oihenarten errefrauetarako atxikimenduari lotuz esan genezakenez, —*Zer berri ?* galderari— *Zaharrak berri* erantzuten zaio. Batzuentzat hau eszeptizismo eta milaurteko egonezin eta egonkortasunaren arteko oreka argitzen duen atsotitzetako bat izango da. Erraneren zuhurtasunaz gehiago eztabaidatu gabe, onar daiteke hainbeste denboran iraun duenak iraunerazi digula; Oihenartek ere ikasi bide zuen atze-aurre guztietan zerbait irabazten dela zerbait galtzean.

Horregatik edo, bere modernotasunaz aritzekotan ere, iraganera hurbildu beharra izaten da maiz asko. Inolaz ezer lotzeko baliagarri izan daitezkeen bi mutur ditugu tradizioa eta modernotasuna. Poetarentzat, tradizioa da maite dena eta jakinaren gainean gordez berritzen dena; modernotasuna berezkotzat edo hala beharrezkotzat jasorik derrigortzaile seintitzen delako berriztatu dena.

Oten gaztaroa neurthitzetan argitara eman zuen gizona ere bi garairen eta interes anizkoen artean bizi izan zen. Duda gabe estamentuen gatazkaren erdi-erdian izan zen Oihenart. Egia da hirugarren estatuak zuela hautatu eta beste biek onartu ez, baina ez gutxiago garaiko toga-gizon asko bezala, erregezale zela osotara, hain zuzen ere erregetzak noblezia eta apezjende gorena aurka zeukanean. Matalasen auziaz geroztik, ordea, etxe noble batetara ezkondu zen. Ezpairik gabe, oso interesgarria izango litzateke Oihenarten biografia egitea, izan ez bait zen izan bere mendearen seme arruntetakoa, baizik eta bere mendearen sortzaile-ekileetakoa Eta anizkoitasun hau ere bitasun nabarmen baten barrenera bidera daiteke: *Oten gaztaroa* gizon publiko baten bizimodu pribatuaren erakustzaile da, eta bere poemetan agertzen diren emazte guztiak ezagutu zituen ala behar bada poemak beste batzuen manatuz eginak zituen eztabaidatu gabe (XVII, 20-24), ikuspegi hau oso kontutan izan behar da bere poemak interpretatzeko (ez noski udazkeneko arratsalde batean patxadan irakurtzeko).

Oihenarten poemen izenburua bera izan daiteke ezer bada bitasunaz ohargarri. Atzetik hasiz *neurthitzak* hitzaren esanahiari hel dezaiogun. Jakina da Oihenart herriko usadioetara zaletua bazen ere (atsotitz biltzaile izanik) orduko humanista gehienen antzera goi-mailako kulturaren esparruan mugitu izan zela beti. Berak ez zuen bertsolaritza jorratu adierazbide normal bezala, are gehiago bide hori garaitu beharrekotzat jotzen du bere arte poetikoan. eta bere poesian (XVII, 1-4).

Hori bere lexiko-hautapenean isladatzen da, esate batera. Oihenart, ikusi dugu, erefrau biltzaile zen baina baita errefrau moldatzaile ere. Errefrau bilduma asko dugu euskal literaturaren hastapenetan, baina baita inguruko erromantzeen literatura hastapenetan ere. Errefrau zaletasun honek erakusten du Oihenartek arautzat zeukala erabilera eta errefrau bilketan bezala nabaritzen da hori bere euskalaritza jorratzaile izaeran ere. Baina Orpustanek IV. mendeko ihardunaldietan erakutsi zuenez Oihenarten hautaketa irizpideak euskarak eta euskalkiek emandako hautapen-bideetan kokatzen dira eta berak aldaki bat edo beste bat erabiltzea, gorago jartzen dituen behar metrikoen baitan aztertu behar da. Hona, beraz, Oihenartek hizkuntza-erabilerari ematen zion garrantzia neurtzeko modu bat. Batetik, bistan denez, ez da gramatika arau-emaile batena, zeren eta aldian-aldian erabakitzen duen zer-nola jarri. Baina bestetik erakusten du erabilera herritar horretara plegatzeak bazituela bere baldintzak, eta baldintza nagusitzat hartuko nuke hizkera kultua taiutu beharra. Horregatik, ez errefrauetan ez poemetan, ez zuen jo hitz "gordinegietara", ez hitz arruntetxoetara; horregatik hobetsi zuen bertsolaritzaren bapatekotasunetik urruntzen zuen bidea. Nere ustez ez dago kontraesanik errefrau-biltzaile-moldatzaile batek bertsolaritza eta ahozkotasunaren aukera albora uztean. Biak ahozko "literatura"ren esparruan kokatu ohi diren arren ez da ahaztu behar errefrauak ez direla bapateko iritziaren adierazbide, nahiz eta bertsolaritzaren lege asko erabili; eta bertsolaritza, lege finko eta jaki-

nen gainean sortu arren beti bapatekotasunaren esparruan mugitzen da. Errefrauak, atsotitzak, herri-zuhurtziaren erakusletzat hartzen dira, beraz hizkera zuhur eta jakintsuaren eredu, ez moldaketa herrikoiegitzat. Errefrautegietan modu eta errejistro askotako adibideak aurkitu ahal izan arren, Oihenarten hautaketa irizpide honi lotua da.

Baina Oihenarti hizkera kulto hori osatzeko erreferentzia kultoa falta zitzaion, beste erromantzeetan ari ziren idazleek zuten erreferentea hain zuzen ere; lege eta dekretu bidez espaiñarrak eta frantziarrek,e.b., lortua zuten kortearena.

Eta erabileraren araua apurtu ez baino gainditu beharrean aurkitu zen Oihenart, eta gainditu alde sortu zituen neologismoak, eta horretan ere, esango nuke, bere bidea aski partikularra izan zen, Axular edo Leizarragarekin erkatzen badugu.

Leizarragk jainkozko itzulpenak egin bait zituen, izenak aldatzean izanak aldatzeko arriskuan idazten zuen; euskalkien arteko mugak gainditzeko hizkuntza-itzuliaren oihala zabaldu zuen. Axular bere prosa luze-zabalean aldiz euskalkietako lexiko-anizkoitasunaz profitatu zen.

Oihenartek, neurtitzek ezarritako silaba mugetan paratu behar zituen bere hitzak eta bertan ondo egokitzen ziren moduan jarriz gainera. Bere bidea baldintzaz betea zen, nahiz eta bere helburua ez izan arimak salbatzea eta herriarengana iristea. Bere helburua —bat bederen— maiteari mintzatzea zen eta bide batez zen gizonaren aurkezpena egitea; gizatalde jakin batena eta gizon modu berezi batena eta maileguen bidea utzita behar izan zuenean behar zuen hitza sortu zuen.

Esango nuke bere klaseak behar zuen hizkera taiutu eta lantzen aritu zela gure egilea, eta ez langintza erreza zelako baizik eta berari zegokiona zelako.

Hirugarren estatuko gizon eta ez herri soilekoa izatearen bitasun hau, bestalde, Benichouk[2] dionez, garai hartako togatuena ere bazen. Oihenart, ezkontzaz aitoren-seme eginia, herri-xeheak hautatua bere postua bilatu nahi zutenen toganobleziakoa zen berez, eta garai hartan erregetzaren aurka zeuden mugimenduen artean klase honek ez zuen asmatzen zeinen aldeko leialtasunak agintzen zuen: herri-xehearentzakoak ala boteretsuenganatzakoak. Oso jakina da, monarkiak bere burua indartzeko ahuldu egin zuela nobleen eginkizuna eta bidenabar bere burokrazia osatu zuela, eta beraz,horregatixe, burokraziaren modernotasuna ere elementu tradizionalez baliatu zela indartzeko. Oihenart ere erdibide horretan ibili zen eta Matalasen auzian nobleen aurka herriaren alde jokatu arren, beti erregearen alde jokatu zuen.

Bere tokiaren adierazpide zen hizkera behar zuen Oihenartek oroz gain bere burua aurkezteko eta baita maiteekin mintzatzeko ere. Estilo horren premiaren lekuko da neurtitzaren premia, alegia, bertsolarietatik urruntzea. Oihenartenean bere bitasun honen aztarranak errez antzeman daitezke lexikoari eta ahzoko iturriei bezala iturri kultu eta amodiozko gaiaren garapenari begiratuz.

Oihenart idazten hasi aurretik La Pleyade taldeko Du Bellayk "*Contre les petrarquistes*" idatzia zuen, amodiozko hizkuntza naturalago baten bila. Akituak zeuden literaturatik sortu eta prezeptiba liburuetan berriz bilduz poema guztiak eredu baten arabera egiten. Bizimodua ere arras aldatua zen ordurako eta literaturan inon harreman zuzenik behar bada amodiozko literaturan denez erabiliegi sentitzen zituzten irudi kortesauez gogaituta zeuden. Beraz, berriro jo zuten iturri latindarretara. Berriro diot zeren eta ertaroan, errenazimenduan, barrokoan iturri horien presentzia ez bait da sekula eten, baina irakurketa hark itxaropen berriz egiten ziren. Ezaguna zena antzemanez gogoratzeko baino areago lehen irakurri ez ziren ñabardurak bilatze arren.

Estilo aldetik gehiegi nabarmendu ez den beriztasuna da ahapaldiena. Alde batera utzita sinalefa eta sineresiez Oihenartek berak esan zuena betetzen zuenetz, bistan da berea oso aukera pertsonala izan zela, bai euskal munduari dago-

[2] *Imágenes del hombre en el clasicismo francés*. México: Fondo de Cultura Económica, 1984.

kionez eta baita amodiozko tradizio kultoari zegokionez ere. Behin Petrarcaz geroztik Dantek, Calvacantik eta Pleiadeko poetek nahiz Lope de Vegak edo Shakespearek eta literatura kultuan sartzen ditugun egileek, sonetoa zuten amodiozko-penen adierazbidea. Oihenartek hamalaurkuna sortu zuen baina beranduago Lizardik bezala, behin baino ez zuen erabili.

Neurri motz eta hoskidetasunez indartutako neurtitzetan garatu zuen bere eginkizuna. Neurri laburrak baldintzatutako poesia zailaz adierazi zituen maitariak bere zailtasuna eta larritasuna, neurri luzeak diskurtsuetarako eta ihardun patxadazkoentzat eskeintzen duen abagunearen ordez urjentzia, presazko eta egonezinezko mezuak bideratzeko.

Horregatik, iturri klasikoetaz ari garenean Atsotitzen sarreretan, *Notitia Vasconum*ean behin eta berriro jakintsuen izenak errepikatzea ez da, nere ustez, harrokeriatzat hartu behar, ezta erudizio erakustzailetzat (bakarrik). Oihenartek aitaamek erakutsi ez ziotena aitonamengandik jaso nahi izan zuen, bere arropa desegokia jo zuenean aldatzeko premia sentitu zuen, nahiz eta ez artean biluztu beharrik, beranduago erromantikoek egin zutenez.

Oihenarten garaiean (ere) berritzea ez zen exnihilo sortzea; are, neurri batean karreaketa lana zen eta autoritate zenari autoritate batekin bakarrik ekin zekiokeen.

Guri gerori, literatur modernoa erabat molde baten arabera sortua iruditzen zaigunean, atzera egiteak naturaltasuneranzko bidaiaren irudipena sortzen digu. Tibulo, Ovidio, Horacio freskagarri gertatzen zaizkigu, errealistago, gutxienez, bere topikoak ahaztuago ditugun heinean.. Nere ustez, hala ulertu behar dira Oihenartek Tibulo, Ovidio eta hauekin dituen antzekotasunak; hala Sceve, Ronsard, Du Bellayrekin aurkitzen dizkiogunak.

Eta hala ere, hein batean tradizio klasikoaren ekarpenei dagokionez ere berezi xamarra da Oihenart. bere garaikoen artean. Ez du ekarpen mitologiko alegorikorik egiten poemetan. Aintzinateari buruzko aipamenak ere gutxi dira: emazte hilari egindakoan, aipatzen dituen musak, Zaugizen erramu boneta eta azkenik Arrain Jaunari egindako epitafioarena. Eta aldiz, katoliko eta protestante gehienen gisara, Biblietara iturrietara ere ez da gehitxo makurtzen, nahiz eta bere mendeko beste hainbatek legez itzuli *Vexila Regis* (La Ceppède, Du Perron) eta *Nuc dimittis* eta beste hainbestek legez deboziozko neurtitzak eman.

Iturri klasiko eta erlijiozkoen artean igerian ez du itotzeak merezi. Oihenarten laikotasuna gizon publikoaren bizimodu pribatuaren lekuko gisara irakur daiteke. Eta zenbait literatur kritiko horrenbeste liluratu duen laikotasunaz ere bere jarrerak sortzen duen interpretazioa bikoitza da gutxienez.

Profeta ez baino gizon profanoa izan zen Oihenart. Hogeitasei urte zituela ez da ahaztu behar, haatik, Oihenartek, abokatu lanetan, J. Belzunzatarrari ekin ziola protestanteei Mauleko etxeetan prediku egiten debekarazteko[3]. Egia da,erlijiozko gai batzu eman zituela eta emaztearen heriotzean idatzitako prosopopeia guztiz dela kristaua, baina klerigo ez zen lehen poeta dugu mauletarra. Honek ez du esan nahi batere antiklerikala izan zenik horregatik. Bere testuingurura begiratuta pentsa daiteke nolabaiteko neutraltasun eta urruntasuna izan zitekeela inorekin ez haserretzeko bide onena. Lafittek dionez ordurako luteriarrek buruzagiak eta handimandiak bildu nahi izan zituzten lehenengoz. Hala bildu zituzten, besteak beste, *"Bidaxuneko Agarramont, Makeako Belzuntze, Meharineko jauna, Xuberoko Sponde, Belapeyre, Zalgiz, Bela familia, baieta zonbat apez, gehienak Xubero aldekoak* "[4].

Garai berekoa da Axularren katolikotasuna, litekeen bortitzena, eta lotura organikorik ez bazuen ere behintzat jendea inkisizioaren atzaparretara ez erortzeko bezala leziatzen zuena. Testuinguruarekin segituz, Oihenarten seme bat jesuita izan zen, bestea apaiz. Ez zen erreza aldi hartan

[3] ORPUSTAN, J. B. "Aitzin-solasa" in OIHENART *Proverbes et poesis basques (1657-1664).* Baigorri: Izpegi, 1992.
[4] "Zer dakigu Leizarragaz ?" *Euskera*, XVIII, 1972, 144. or.

erlijioaren atzapar bortitzetatik ihes egitea eta, laikotasuna hau oso garai ekaiztsuetakoa denez, oso korapilotsua da ondo aztertu gabe neurtzeko.

Bere meritua da poesietan, lehen Etxeparek bezala, ez amodio adierazpidea erlijioaren bidez sublimatzea; hala ere, ezin ahaztu Etxeparek 1545ean argitaratu zuela, Trentoko kontzilio hasieran eta Oihenartek bere poemak inprimatu zituenerako Inkisizioa oso aritua zela inoren bizitzaren barne-muinak lotzen. Garai hartako usadioak askoz askeago zirela esatean ez da ahaztu behar Inkisizioa oso erakunde estimatua zela eta, konparazio batera, Garibay[5], Españako lehen historia egin zuena, hura ere historiagile, hura ere errege baten zerbitzuan, Inkisizioa oso beharrezkotzat zutenetakoa zela.

Oihenarten laikotasunak irakurkera bat baino gehiago badituela bistan da. Batek iritziko dio Oihenart (orain hain maiz esten denez) gizon tolerantea zela eta beste batek iritziko dio pragmatikoa zela. Edonola, laikotasunaren esparrua eta adierazpide askatasunarena murrizten eta murrizten joan zen harrez gero. Hala erakusten dute gure literaturaren bideek, Belapeyreren dotrinak —Patri Urkizuk aipatzen duenez[6]— Gazteluzar jesuitak, musa profanoak gaitzetsiz:

Urrun adi Parnasseco
Musa çahar profanoa
Eta çu çato ceruco
Musa berri divinoa.

Eta halaxe erakusten dute Oihenartek 1653 inguruan museei erantzuteak, hainbeste zerbitzatu ondoren beraien indar eza bakarrik aurkitu duelako. (XVII, 1-24).

Gure gizartea bera ere Oihenarten bitasun horretara plegatua agertu da. Oihenartek bere maiteei eskeini laudorioek aurreratxo egin zutela uste zutenek behin eta berriz azpimarratu dute senar eta aita onbidetsua izan zelazkoa. Sinets daiteke OIhenartek berak ere ez zuela baldintza hori ahaztua izango. Horrelako zerbait adierazten du, agian, gaztetako lana adinean aurrera egin ondoren ezezean emaztea hil ondoren bakarrik idatzi izanak, Halako zerbait adierazten du emaztearen Hil-Kexua, bere lanik ederrenetakoa, musen kontra idatzi izana, nolabait aurretik adierazia ezesanez, aurretik idatzitakoaren balorazioa aurkeztuz eta atzean emanez jainkozko neurtitzak

Konparaketetan errezegi aritu gabe ere ezaguna da garaiko literaturan erlijioa eta munduaren arteko orekan bizi ezina oso fenomeno nabarmena zela, eta arrazoiak are nabarmenagoak. Zerrendatxo bat eman alde Henri IV.ak 1593an abjuratu zuen, 1633an ekin zitzaion Galileoren aurka, Marot, mende bat aurrerago, blasonik sentsualenak eta Oraisonsen artean kulunkatu zen. Hiru kasu baino ez ditut aipatu baina bere garaiean kokatuz, Nanteko Ediktuaren (1598) ondotik, Erreforma-Kontrarreforma aurkakoasunaz geroztik, Jainkoaren bila abiatzen dira idazle asko,euskal literaturan gure egunetaraino luzatu den soka ekarriz.

Eta testuinguru horretan Oihenart ez da agertzen batere erlijioaz markatutako poeta gisara, eta poema horiek gutxietsi gabe, plazara begira egindako kontzesioa dirudi erlijiozko poemen argitalpenak. Horren ondorioz hainbeste goraipatu dem laikotasunaz beste irakurketa bat egin daiteke, epeltasun hori zurrunbilo artean igeri egiten ikasitako gizonaren manera iritziz.

5 CARO BAROJA, J. *El señor inquisidor y otras vidas por oficio.* Madrid, Alianza, 1983, 37. or.

6 *Bertsolaritzaren historia I. Anonimoak.*Donostia, Etor, 1991 XXIII. or.

Amodiozko literatura, bitasunetan binakatuena.

Oihenartek aitortzen duena egia bada, poema horiek argitara ematean zuen helburua,ez zen poeta on horien artera iristera, baizik eta beste hizkuntzetan arrunt diren baliapideez euskaraz neurtitzak egitea hain zaila ere ez dela erakustea. Eta neurtitzen ostean ipini zituen debozionezkoak, poesiara emanago diren beste batzuen ahalegina suspertzeko, alegia, (uler daiteke), erlijiozko gaietara zaletuago ziren beste euskal poeta batzuek manera kultoan egin daitezkeela jakin dezaten.

Oihenarten poesia, oroz gain, estiloaren kontzientzia gisara defini genezake, eta neurri horretan arte modernoaren lehen urrats gisara..Estilo horren erakusgarri nagusitzat amodiozko neurtitzak eman zizkigun mauletarrak. Nabari da, haatik, bere artean eta mintzo zen maitari kexulariaren artean langa batzuk jarri nahi izan zituela. Horietako bat izan daiteke poesia hauek atsotitzen atzean ematea argitara; beste bat izenburuan poetaren izena agertzea; aintzinako denboratara, atzera eramatea sorgaraia,irakurleari abisatzea beste zerbaiten adierazpide gisara inprimaerazi direla. Guzti honekin jo liteke Oihenartek urrundu egin nahi zituela beregandik ezagutzen ez dugun zenbait ondorio.

Oihenartek ematen ditu, beraz, inprimaketari buruzko arrazoiak,baina Oihenart ez da mintzo poemak izkiratu zituenean eskuartean zerabiltzan asmoez. Ez du esaten erregela horien erakusgarri egin zituenik eta ezin ditugu amodiozko poesia bezala baizik irakurri. Eta amodiozko gaia da, inondik ere, tradizioarekin lotuen agertzen denetarikoa. Batetik, ez da ahaztu behar, bere helburua maitearengana hurbiltzea da eta horretarako naiteari ustez atseginen zaizkion hitzak entzun erazi behar zaizkiola. Dantek *Vita Nuova*n maitea komentzitzeko ahaleginean jartzen zuen latinez mintzatu beharrean hizkuntza erromantzeetara jotzea. Hurbildu egin behar maitaleak maitearengana eta hurbiltze horren ondorioak ez dira noski hizkuntza hautaketan geratzen, hartara, maitea emazteetarik bereiztea, maiteren ikuspegi baikorra bera ere oso lotuta daude, hurbiltzeko premiarekin eta zehatzago amodiozko poesia hauek ia beti amaieran duten eskakizunarekin. Eskakizun hau dela eta ezin aipatu gabe utzi, Oihenarten amodiozko poemaotan ere tipologia hirukoitz baten araberako antolakuntza agertzen dela: eskarizko poemak, kexuzkoak eta laudoriozkoak (beti *Laur karbariak* alde batera utzi beharrean gaudelarik). Hiru jarrera hauek bata besteari lotuak agertzen dira beti baina elementu aldagaitzik bada hura eskaria edo desioren bat betetzeko irrikia da beti.

Maitearen edertasuna

Oihenarten poesietako maitearen deskribapena aztertzen denetan ia beti hiru poemetan oinarritzen da (X, XII, XIII) eta horiek ia beti XVII.arekin kontrajarriz, hau da, emaztearen hil-kantuari aurrez-aurre jarriz. Poema guztiotan laudorioa da giltzarri. Agonajearen inguruan egituratzen dira irudi guztiak eta emakumearen irudi ezin ederrrago eta idilikoagoa eskeintzen zaigu. Berez, maitea goratzen lehena ez zen Oihenart izan, eta ezpairik gabe darabiltzan irudi, konparazio eta hitz gehienak ezagun gertatzen zaizkigu, nahiz batzuk oso berriak izan garai hartan eta berriago euskal letretan (koral, kristala, bolia...)

Edertasuna beti ezinbestekoa da edozein dama maitagarritzat aukeratzeko. Sarri delako politasun hau oso modu orokorrean ematen da aditzera. Batzuetan kontzeptu itxuran azaltzen da (XI,21-23; XIV, 32):

Ezi ezta deuskai edertarsuna
Lagun ezpadu hontarsuna;
Aintziti, ederrik gaitz dena, duzu
Berhala, nol esne´uluzu
Denean, edo sagarra hartsu. (VII, 47-51)

Baina, ia beti edertasuna okerren bat adierazteko argudio izaten da Oihenartenean, edo behintzat izaera eta itxura bateratu beharra aipatzeko:

Zer probetxu edertarsuna
Da hire gorputzean,
Tink bihotzean
Badatxen gogortarsuna ? (XI, 13-15)

Beraz, esan behar da edertasuna goraipatzean gorputz dotorea bezala aipatzen dela izaera ere.

Amodiozko literaturan ezinbestekoa da, ia-ia, politasuna deskribatzea, baina zerbaitetan aurre hartzen badu Oihenartek, duda gabe, politasunaren kanonak zehazten izan da. Orokorrean esan daiteke poesia kortesauaren topikoetan aritu den egile gehientsuenek maitearen edertasuna behin eta berriz aipatu duela. Sarri, eta *ars amandi*-ek hala agintzen zuten, goraipamen horiek maitearengana iristea zuten helburu, hartara hark poetaren aditzera izateko (G. Lorris, J. de Meun[7] Ibn-Hazm[8]...) temoso asko arituak ziren horretan. Goraipamen horiek, ordea, ia beti oso idealak izaten ziren eta oso orokorrak ere bai, helburutzat edertasuna deskribatzea baino maitearen paregabetasuna frogatzea bait zeukaten, poeta maitemindu eta indarraren edo boterearen errenuntzia justifikatzen zuena, inondik, paregabetasun hori izaki.

Errenazimenduaz goiti goraipamen horiek gutxiagotu egin ziren eta deskribapen bilakatu, Frantziako literaturan, *Blason* eta *Contre-Blason* izeneko jeneroa osatuz. Ezagun da garai hartan, aintzinaro klasikoari begira jarririk, berriro gorputzaren errepresentazioari ekin zitzaiola eta arte figuratzaileak gorputza gorde-erakusten duten irudi eta koadroz beteta daudela. Luise Labék[9] horretantxe kokatzen du joku erotikoaren funtsa. Hala ikusi bide zuen gure poetak ere (X,27-28; 37; XIII, 69-76) Oihenart gizon modernoa izan zen neurri horretan eta ordura arte gorputza izendatzean zegoen joera isekatzailea garaitu zuen. Hain zeharka aipatu den Oihenarteren atrebentzia erotikoa testuinguru horretan kokatu beharrekoa da. Egia da, bai, aipatu zituela bularrak edota maiteak "gordean" zeukana, baina zenbait kritiko horrekin aztoratu bada izango da historia ez delako uste den bezain lineal eta progresista eta harrez gerokoan aurrera adina atzeraka ere egin dugulako.

Kanon horiek zein diren deskribatzeak ez du merezi. Hobe du norberak bere irakurkeraz fidatzea eta berehala ohar gaitezke Europan barrena zebiltzan beste poeta askorenak antzetsuak zirela.. Eta hala ere oso azpimarratzekoa da sentsualtasuna. Ez du maiteak sortu dion irrikia sublimatzen, beste emazte batzuen edo aparteko fenomenoekin konparatzeko bakarrik erabiliz. Oihenartek adatsak, bularra, begi, ahoa, lepoa... kalifikatzen dituenean neurria, ikusmena, ukimena aipatzen ditu, zuzenean ez denean adjetibazio bidez.

Lepo´arrai miratzeko;
Goxo besarkatzeko (X, 25-26)

Oihenart ez da beraz neoplatoniar haien kide, León Hebreok[10] gaitzesten zituen dastamen, usaimen eta ukimenari muzin egiten dienetakoa, eta horrela neoplatonietatik adina bereizten zen hedatzen ari zen moral pekatuak-hartutakotik. Alde hau Axularren *Geroko* XLI kapituluan, alegia, *Haragiaren bekatutik begiratzeko zazpigarren erremedioa, borz zensuez eta lehenbizikorik begiez kontu edukitzea* irakurri hutsarekin froga daiteke Honek ez du esan nahi bestelako deskribapen psikologikoagorik ez dagoenik (batipat begiei buruzkoak: X, 23; XII, 21-22: XIII, 51), ezta deskribapen metaforiko eta konparatzailerik falta denik, baizik eta guztia kontutan hartuta Oihenarteren deskribapena oso partikularra gertatzen dela euskal literaturan. Esku eta zangoak guriak dira, *ahutz-araldea/potarentzat lardea (XIII,41), Ugatz gogor, lar-txuri / leunez balous'íduri (XIII, 69).*

7 *Roman de la Rose* Madrid: Cátedra, 1987 2115-24 lerroak.

8 "Sobre quien se enamora por oir hablar del ser amado". *El collar de la paloma.* Madrid:A lianza 5, 1985.
Gaizkiesaleei entzungogor egiteko eskatzen zuen Properciok ere: *fabula nulla tuas de nobis concitet auris/te solam et lignis funeris ustus amem* "III, 15; 44-45 *Carmina. Poemas.* Barcelona: Boch, 1984.

9 *Debate de Locura y amor.* Madrid: Hiperion, 1988, 47-48. or.

10 *Dialogo de amor.* Madrid: Tecnos, 1986 205, 208-209. or.
FICINIO "Cómo se representa el amor y por qué parte del alma se conoce la belleza y se engendra el amor". *De amore. Comentario al Banquete de Platón.* Madrid: Tecnos, 1986, 87-96, 141-2. or.

Oihenarten beste bereizgarri bat proportzioaz duen atxikimendua da. Behin eta berriz errepikatzen du "neurria" (X, 9-12; VII, 37-38; XIII, 77-78), horrekin edozein pintore bezain arduraturik bailegoen. Deskribapen modu berri honen erakusgarri gertatzen da iruditeria zein lexikoa, Oihenartek bere garaiaz geroztik denboratan isilik egon diren hitzak erabili zituen emaztearen deskribapena egiterakoan. Betiko argi, eguzki eta izarren irudiez gain korala, kristala, bolia ere erabili zituen, zenbait egileri lirika tradizionalean agertu ez direnez pretentzioso iruditu arren. Baina deskribapen hauek bere modernotasun eta berrikuntzaren lekuko dira. Oihenartek bere garaiko emazteak garaiko munduari zegozkion irudiekin konparatu zituen, eta urrea eta zilarra bezain preziagarri gertatzen dira elementu horiek. Horretan Oihenarten modernitasuna askoz ere ahaztezinagoa da, euskal literaturan hain bakan gertatu delako.

Liburu hau bilakabide historikoan kokatzekotan esan daiteke ertaroko literatur kortesauak eta gure artean Etxeparek emaztea dignifikatu zutela (oso baldintza eskasetan kuanto, bere paregabetasun eta eszepzionaltasuna frogatu beharra bait zegoen pertsona zela sinestarazteko) eta Oihenartek paregabetasun horren aipamenei jarraiki goraipatu edertasun horren moldea zehaztu zuela.

Oihenartek edertasuna eta ontasuna parekatzen du (VII, 47-51; XI, 13-15; 21-23; XIV, 32) eta ez da horregatik kontsideratu behar, berriro diot, amodio platoniarraren hildoan koka daitekeenik. Ontasun hori gutxi-asko amore eman beharra bezala defini daiteke. Poema hauetan petrarkismoarekin bezala literatur kortesauarekin puntu askotan loturak aurkitzea oso erreza da ; gaiak berak egitura eta tradizio hustuezina eskeintzen du. Hala ere, inondik inora Oihenart akortago da *La Pleyade* taldeko poetekin eta zehatzago, esate batera, Du Bellayren aipatutako poeman azaldutakoarekin.

Egileak berak 350 eta 351. atsotitzetan jaso zuenez ez ziren dohain berak kontutan hartzekoak ohaide eta emaztetarako aukeratzerakoan. *Ohaidea eder ariaz, ezkontidea bere zuhur-ariaz* dio aurrenekoan eta bestean *Ohaidea onhetsak eder denagati, ezkontidea bere ontarsunagati.* Honek ez du beste gabe Denis Rougemonten teoria baieztatzen, baina hildo beretik doa. Bere iritzian ertaroan amodioa ez zitekeen gauzatu ezkonbideetan, ezkontza negozioa zenez. Atsotitz horiek, herrian jasoak izan ala ez, oso onetsiak ziren/dira. Dino Frescobaldi bat ere ez zen atzera geratzen[11]. Oihenartek ere erranera hauetan adierazia aintzakotzat hartu bide zuela sinets daiteke. Behin baino gehiagotan aipatu izan den ezkontzaren auziari heltzea baino ez dugu egingo honekin, baina oso nabarmen gertatzen da aldea maitearen izaera goresten denean kontutan hartzen diren ezaugarriei erreparatuz. Bere maitearen gal-kexuan (VI) horretaz dihardu. Oihenartek fisikoa azaleratzen ez duen laudorioetan behin edo beste ezaugarri zirkuntstantzialen bat adierazi du *arrai miratzea*, edo aurpegikera argia, esate batera, baina orohar ez du aipamen haundirik egin. Aldiz XIII, (konjetura daiteke XVII.a bezala emaztea buruan zuela idatzi zuela), deskribapen fisikoari zehaztapen psikologia ere eransten zaio eta beraz ez aipamen orokor bidez bakarrik.

Horrela, XIII.enean Oihenartek aipatzen ditu "eme mintzatzea", diskretosasuna, zuhurtzia, jakinduria, adimendua. Poeman egileak emakumeari buruzko ikuspegi laudatzaile aurrerakoiena azaltzen du eta hori lehen aipatutako negozioerizpideagatik den ala ez erabakitzea aski eztabaidagarria izan daiteke. Edozein modutan, eta beste zentzu kristauago batean baina, ezin ahaztu berriro XVII. poema dela deskribapen psikologikoa gauzatzen duen hurrengo poema, hots, *Ezkontidearen hil kexua.* Poema hau., amodiozkoan ez baino funerarioen artekoa denez ez da konparazio baterako baliotsu, baina frogatuko luke zerbait ezkontide eta ohaideak agonatzeko orduko aipatu irizpide ezberdintasunaz.

Batean eta bestean agertzen diren laudoriozko poema hauetan ikus daiteke, inondik inora, emakumeari buruzko horrelako edozein azterketatan legez, azkenean ezagun gertatzen dena ez dela

11 *Dolce Stil Nuovo.* Barcelona: Seix-Barral.1983. ed. J. R. Masoliver, 198. or.

emaztea, gizonezkoa baizik, baina horretarako bigarren irakurkera beharrezko gertatzen da.

Hasteko, esan behar da laudorioa giltzarri duten poemetan ere, nahiz 3. pertsonan agertu, presente dugula beti hartzailea eta laudorio hauetan poeta ez dela bakarrizketalaria. Hala ere eta M. Riquerrek[12] *fenhedor* (herabea), *pregador* (galdetzailea) eta *entendor* arteko prozesuan lehen mailan baino ez dagoenez poetak bere burua ez baino bere ahotsa aurkezten du.

Horretarako, ez beste batzuk adina hala ere, poeta baliatzen da prozedura ezagun batetaz. Maitea aurkeztu du zenbaitetan beste edozein emakume baino ederrago dela esanez, edo Jainkoak zuzenean egina bailitzan. Baina paregabetasun hori zehaztearekin poetak,berdenboran, bere argitasuna erakusten du, eta hala laudoriozko poemetan ez da maitea bakarrik goraipatzen; goraipatzen da poetaren talentua, halako apreziaziorik egiteko gaitasunagatik; goraipatzen dira bidenabar poetaren leialtasuna eta tinkotasuna. Hartara deskribatzailea deskribatua gertatzen da eta laudatzailea laudatua.

Laudorioak agertzen dira askoz gehiagotan beste poema batzuetan, baina ez oso zabal. (I, 3-4; XI, 21-26; XXV, 1-4; VI, 2; II, 4-5; XVI, 1-4) Sarri hitz bat baino ez dira eta beti poema hasieran izaten dira. Hauetan laudorioaren eginkizuna bigarren mailakoa da eta poeta herabearen maila gainditua; hizketatzea, harremana gauzatu beharra gailendua da eta horrekin baita maitalearen lehen oztopoa ere: bere burua aurkeztea. Poemaotan, aurrera ikusiko denez, poeta sufrikariotan da sarri eta sarri kexu, oraingoan helburua oraindik gehiago aintzineraztea bailitzan. Horretarako ia beti poetaren eta maitearen izaera kontrajartzen dira. Benichouk dionez poeta kortesauak maitea zerbitzatzea sakrifiziotzat onartu zuen, hala bere nobletasuna frogatzeko. Baina Oihenarteren mentalitatean merkatarierenera hurbiltzen da. eta. kexu da bere penatzeari aurrerabiderik ikusten ez diolako edo (I, 5-6; II,10-12).

Baina batzuetan zein besteetan poetak maitea laudatzen duenean, bidenabar, bere burua jartzen du salgai. Batzuen ustetan mundua mundu denetik gertatzen diren gauzak dituzu.

Maitearen deskribapenean, gaia eta historiaren baldintzak kontutan hartuta, Oihenarten jarrera nahiko modernoa izan zen, nahiz eta emakumeez gaizki esaka ari zirenekin parekatzeak aurrerakoiegitzat jotzea ginderamazkeen. Ezin da ahaztu garai haietan ere bazela sexuen berdintasuna aldarrikatzen zuenik, Molierek ondo satirizatutako ale bakanik. Askoz aurretikagoa da *Le livre de Silence*, nahi bada aurretikakoa da Katalina Erausokoaren bizikera eta bere aroan agertu zen *L'égalité des deux sexes* Paul de la Barrerena. Oihenart askoz ere erdibideagoan agertu da XVII. horretan, Quentin Metsysen *Kanbista eta emaztea* edo Lorenzo Lottoren *Messe Marsilio eta emaztea* koadroetatik gertuago

Lehen errepikatu dugunez deskribatzaileak bere burua agertzen du beti bere aukeretan, baina poetek ez dituzte beti zeharbide horiek erabiltzen maitaleak aurkezteko. Are gutxiago, harremana gauzaturik maitaleak konfidantza lortu duenean.

Oihenarten amodiozko poesietan ere, hala moduz, zeren kexuka dihardutenen testuak askoz gehiago bait dira laudorioetan ari direnen aldean. Hori bera da aro modernoen ezaugarrietarikoa, ziurrenera pertsonalitatea, egileen izen-izanak azaltzea den bezala.

Erkaketa arinenak ondo erakusten duen eran laudoriozko poemetan laudatzailearen presentzia oso haundia ez zen bitarteann, kexuzkoetan oso nabarmen gertatzen da maitaleak bere burua goresteko duen irrikia. Hauetan ere, bista denez, agertzen da emaztekiaren irudia, baina ia beti, laudoriozkoetan ez bezala, maitea ez da bihotzez goresten; zehatz mintzatzeko, erantzuna, gaztigatua da amodioaren bide berezkoen apurtzaile bailitzan. eta poema hauek maite-maitale aurkakotasunaren gainean eraikizten dira.

Askoz gehiago dira poeta kexuka erakusten duten poemak. Izendatu beharrik ez dago, gehie-

[12] *Los trovadores.* Barcelona: Ariel, 1983.

nak horrelakoak bait dira.Baina horregatik, kexuaren helburua ez da izaten poetaren egonezina hizketan-hizketan askatzea, baizik eta maitearei zerbait —berez dagokion zerbait— eskatzea, gerorako utzi gabe

Maitariaren kortes izana

Maiteaz ez bezala maitariari buruz dakiguna dena berak aitortua da. Baina aitorkizun honek ez du, horregatik, bapatekotasunarekin zerikusirik eta poetak aurkezten duen maitaria maitea bezain lotua dago amodiozko tradizioari[13]. Esan daiteke, beraz, Oihenartek hitzen bidez aurkezten zuen maitalea ere kortesia legeetan kokatu beharrekoa dela, nahiz eta bere aurkezpenak oso helburu zehatz eta pertsonalak izan.

Poeta, beraz, ia beti lehen pertsonan mintzo da, eta hirugarren pertsonan mintzo denean ia beti bere *bihotzaz, ditxa gaitzaz* edo *gogoaz* dihardu. Maitariari buruz agertzen diren adjetibo gehienak II, IV, eta XIV. poemetan agertzen dira eta orohar, esan daiteke, bere izaeraren deskribapena baino gehiago bere portaera eta jokamoldeak direla kontakizun.

Bestalde, maitearen deskribapena, oroz gain, deskribapen fisikoa bazen ez da hala gertatzen maitariarekin. II. poeman aipatzen dira,bai zeharka bederen eta beste batzuenarekin konparatuz, bere itxura fisikoa eta klase estamentua, esanez *"Baninz bezain/Zenbait betzain/edo ilhagin zarpazu"*. Eta, hala ere, ohartarazi beharrrekoa da ia beti agertzen diren aipamen fisikoak ez direla deskribatzaileak, baizik eta amodiozko-gaisotasunaren sintomatismo fisikoaren lekuko.

Orohar maitariaren presentzia bere izaerarekin itxurarekin baino askoz ere lotuago dago. Erotasunaz, gaisotasunaren topikoaz ondo profitatzen erakutsi diete ars-amandiek gizonezkoei. Hartariano ezen ez dakigun tratatuek ekarri zituzten eroaldiak ala eromenak bideratu zituen tratatuak.

Baina oroz gain, maitea emazte bakartzat goresteari ekin ondoren, maitaleak bere pertsonalitatea adierazteari eman zitzaion literaturan. Eta maitalearen perfektotasuna ez datza maitearenean bezala, berezko edertasun fisikoan. Maitalearen perfektoasuna bere esku dago, ez Jainko, ez naturaren esku, baizik eta maitalearen eginahalean, bere pertsonalitatean.

Ezerk deskribatzen badu maitalearen pertsonalitate aitortua iraunkortasuna da. Beste edozein argudioren aurretik agertzen da hau maitalearen defentsan eta hartara Oihenartek aipatu emazteki guztiei bere (aldi bakoitzeko) leialtasuna eskeintzen die, don Juanen mitoa zabaltzen ari zen heinean berean[14]. Eskeintzen,diogu, beti maitariak poema idatzi aurreko bere historia agetzen bait du, baina ez beti leialtasuna agindu, ez beti eta gero guztian izango duen dohaintzat eskeini. Eta honek egiten du Oihenarten maitaria erreal, sinisgarri. Gaztaroko neurtitzetan leialtasunaren aipamenak ez du gerorako atea zabalik uzten. Oihenartenean oso presente dago ordariaren beharra.Ordaina. Hala goraxeago aipatu ditugun lerroak (VII, 47-51; XI, 13-15; II, 7-12) edo F. Michelen argitalpenean dionez:

Enganatuko bide zira
gaurger´,oraino bezala
baduz´uste zure begira
egonen ahal nizala,
hautuagorik zu bano,
Deiez ondotik dautano.

Orai jagoiti minzatzekoz,
minza gaitezen garbiki:
Zuk nigati deus egitekoz,
egin ezazu gaiziki
ezpaduzu egin gogorik,
nik er´ez luzatzekorik
(XXIII, 6-17)

Asko urruntzen da amodioaren probetxuaren kontzeptua Ficiniok De amore haren lehen diskurtsoan gomendatzen duenetik.

13 OVIDIO *Ars amatoria*. Barcelona: Boch, 1977, I, 606-610 lerroak.

14 OVIDIOren erakutsiekin bat eginez: II, 387-390 lerroak.

Maitalariaren betegintzarra leialtasunaren argudioaren inguruan egituratzen da eta horretarako Oihenartek denboraren irudiak metatzen ditu, metatu, gainera, ia beti sufrantza eta arrenkurazko hitzen atari modura (II, 13-24; XXVII, 9-20; I, 1-6; VI, 4-6; III, 31-36; IX, 1-4; XXV, 15). Zenbaitetan poetak erakusten du maitea ezagutzea aski izan duela besteak ahazteko (XV, 1-4; XXV, 1-6); horrezaz gain maitalearen lanak eta maitearen gogortasuna jartzen dira aurrez-aurre aparteko irudiak erabiliz.

Baina denbora oso modu dinamikoan agertzen da beti, ekintzen kontaketa eta narraketa bidez, eta emazteren laudorioa adjetiboz egiten zen artean maitalearena ekintzen bidez bizkortzen da.

Amodioa hil ala bizikoa da eta poesia maitaria gaisotzekoa adinakoa. Argudio hau ere oso maiz erabiltzen du Oihenartek, Whinnomek[15] oso urrutian aurkitu zituen ideiaren aztarnetan bere pausua jarriz. Oihenartek behin baino gehiagotan aurkezten du bere burua gaiso gisa (II, 29-24; VI, 28-32; III, 46), ero moduan (I, 19-21; II, 61-66). Noski maitea da osagile eta sendagailu bakarra bihotzekomin, hotzbero, goserik eza, egarri latza eta halako gaitz guztientzako.

Oihenartek beraz kexua egiten du ia beti bere aurkezpena egiten du eta eta maitasunaren irudia,, oso lotua dago tradizioarekin, nahiz eta amodioaren aitorpenetan utilitateaz mintzatzeak lotura haundiagoa izan bere sentipenekin, tradizio kortesauarekin baino. Hala ere, inork, guzti hau esanda, jotzen badu Oihenarte gezurtia dela esan nahi dugula, irakur bitza Pedro Salinasen hitzok:

> *John Crowe Ranson sostiene que el drama es un excelente símbolo de la poesía. El poeta no habla en su nombre, sino en el de un personaje que se da por supuesto. El poeta se pone su máscara, que es el lenguaje poético y luego se endosa su disfraz, el de la situación que él ha escogido. Y así, dice el crítico, la poesía más que una experiencia real es una experiencia dramática*[16]

15 "Introducción crítica" in SAN PEDRO, Diego *Obras Completas.II. Cárcel de amor*. Madrid: Clásicos Castalia, 1985.

16 "La tradición de la poesía amatoria". *Ensayos Completos*. Madrid: Taurus, 1983.

Amodioaren ikuspegiaz

Gure idazlearen obran agertzen den maite-maitaleen izaera amodiozko literaturan erabili izan diren eta erabiltzen diren topikoez gainezka dago. Zinez, aitortu beharra dago, mendeak joan, mendeak etorri oso zail egiten dela beste modu batetara maitatzea, eta beste modu bateko edertasunik daitekeenik ere irudikatzea. Hortik ezin asmatuko dugu osotara Oihenarten berrikuntza kokatzen, baina maitatzeko manera honek, edo amodioa adierazteko manera honek beti aurrera egin du ematen duen bezain estua beti ere, azal malgukoa izanik garaiean garaiko manerak bereganatzen jakin izan duelako.

Inon Oihenarten modernotasuna nabaritzen bada bere poemen helburuan ikusten da. Aspaldian Ibn Hazmek[17] esan zuena: inork ez du sekula maitalea behartu halako sufrikariorik jasatera. Sarri aipatu denez kortesiazko amodioa izan, aitor-alaba eta aitonensemeen artekoa izan da. Ez da dudarik. Hain gutxietsia zenez emaztea, maite nahi izateko beste emazte mota bat sortu behar zen: dama, señora; baina amodiozko literatura esperientziatik oso gertu dagoenez historiak erakusten digun gizon bortitz eta bortxazalearen ondoan ere beste gizon modu bat eraiki behar zen, emazteki horrekin mintzatzeko gai iango zena: gizon kortesa.

Amodiozko literaturan, ars amandiek sortu dute antzerki joku hau. Amodioaz mintzatzen zirenak gailendu egin behar zuten inguratuta zeuzkan gizarte eta gizaldia, amodioa biren kontua zela sinisteko. Baina degisamentua ez zitekeen erabat engainagarri eta trufatzaile izan. Horretan kokaturik, Oihenarten maite-maitariak pertsonaia ezagun egiten zaizkigu, noski, baina gainerantzeko guztia, egoera, errealitatetik hurbil dago. Hori ere aintzat hartuz, ikusi behar da zer ez duen amodiozko literaturan erabili izan. Oihenartek ez ditu pertsonai mitologikoak sartzen —pentsa daiteke historiagile langintzan eskarmentu bazuela horretaz— ez bada Ilharthitzetan (XXVIII, XXIX)

17 aip.ob. 209-210. or.

eta XVIIan ez du alegoriarik erabiltzen (alboran utzitako *Laur Karbariak* hartan izan ezean), baizik eta eguneroko errealitatekoak:ganbara, toki gorde, kale... honekin ere Catulo, Propercio eta Tibulorenetik gertuago dagoelarik Beraz, amodiozko testuetako barrokismoaz edo dena-denaz ez dakar halako dekoratu artifizialik. Oihenarten estiloa —hizkuntz zailtasuna salbu eta hau ere, nere ustez ez da hartarainokoa barrokoan gaudela kontutan hartuz— oso zuzena da. Maitearekin harremanak lotzera bideratuago zegoen edozein laudorio abstraktu baino.

Oihenarten helburua maitearengana hurbildu eta maitearengan bat izatea zen; bere laudorio eta kexu guztiak, maite-maitale arteko kontrajartzeak poema amaierako eskari eta desio azalpenei lotuak daude, eta eskari hauek ez ziren batere petrarkista, ez ziren begirada bat edo keinu bat eskeintzen zutenetakoak. Batean pota eskatzea, bestean inor ez dagoen tokian elkartzea, bestean ganbaran geratzea.

Eta maitariak egiten zuen guztia eskari hori lortzera bideratuta zegoenez, Oihenarte ez zen sufrantza eta arrenkuari berezko balioa ematen ziotenetarikoa. Maitariak ordari bila jokatzen zuen, aldi bakoitzean, maite bakoitzarekin. Ez zen sekula amodioz hil, hotz-bero eta bihotzeko estura latzak aitortu bazituen ere, eta hori bere aitorkuntza egiteko moldeen norainokoa ezagun zelako. Eta ez zen lotsatzen musu-truke ari ez zela aitortzeagatik. Bere mendearen izpiritua da noski maitariak erakusten duena nahiz ez zuten maitari guztiek erakutsi bere garaiean. Bere mendearen semea da horretan eta horretan da modernoa (eta ez batere kortes edo erromantiko).

Amodioaren ikuspegi honek egiten du berezi Oihenart. Oihenart maitelegeen ezagule zen, baina, noski, zuzenbideetako arituek nola, legeak bere profeituaren arabera tiratzen dakitenetakoa; noski, burges on guztiek bezala plazer eta displeazerren kontaduria ondo eramaten dutenetatikoa. Hala erakutsi zuen ezkontzaz eta hala azaltzen da bere poemetan ere. Axularren erakutsiekin bat eginez horretan, denborari alferrik joaten uzteko gogorik ez zutenen gizonetakoa ez zen luzamendutan ibili, eta denborari tamaina hartu zion amodiozko poemaotan ere.

1. OIHENARTEN BATASUNA ALA BANAKAKOA?

Dantzariek ere beti taldean egiten dute lana eta beti molde jakinean. Hala ere, banaka hasten direnean neurtzen da moldearen egokitasuna dantzariaren trebetasunarekin.

Oihenarten poemagintza batuko lukeen edozein adjetibo esplikatu egin beharko litzateke berdenboran zehaztu ñabarduraz beztituz. Errenazimendukoa ala Barrokoko gizona? Erabat gizon modernoa zela esatea ere bere ekarpena erabateko hausturarekin parekatzea bide da.

Oihenarten batasuna berak bakarrik ezagutu eta agortuko zuen, izan bazuen, baina, hori bai, Oihenart poeta bakana izan dugu gure artean.

Bakana, Euskal Herriko gizon jakintsu eta boteretsuek ez dutelako euskaraz aritzeko borondaterik erakutsi. Bakana, harrez gero, amodiozko literatura erabat sublimatu izan delako ama-elizaren aginduak berezkotzat onartuz. Bakana, garaiko munduarekin bateratsu xamar idatzi zutenetarik ale bakan batzuk baino izan ez ditugulako gure artean.

Oihenarti, arte poetikoak eta lizentzien irakaspenak zor dizkiogun arren, ikasleak falta izan zaizkio. Bere lana alor gehienetan banakako dantza izan da, eta literatur lanean ez zen plaza-agerian aritu, bere ikuslegoa urruntxo, behar bada IV. mendeurrenaz haruntzago asmatu zuelako.,akaso bere ahalegina justifika zezakeen poetika gabe erakusteak zentzurik ez zuela asmatu zuelako.

Poetarenak, egin du jakintzaren barrutian baino begiratzen ez zaionean. Alde horretatik esan daiteke euskal literaturak ere berea egina duela liburu honi historia baten lekuko gisa baizik begiratzen ez zaionean. Oihenartenak ere egina dirudi edo hala izan da ia beti orain arte (orain ere?). Ordua da batek, bakoitzak, ezarri zaizkion gainbalio guztien azpitik poemen arrastoari segitzeko, zeren bitartean Oihenartena arima erratuetakoa da.

Oihenartena arima erratuetakoa da. Askok ikertu dute, inork gutxi eman estimazio haundirik, eta arima erratuen antzera nork entzun dabil hautsartetik salba dezakeen liburu ale bakoitzeko orri tartean. Doazela orriok bere aldeko penitentzia gisara, bere hitz bihurriak freskagarri sentitu dituen baten hitzak agianezko oihartzundegira. Oihenart, Oihenart, orain Oihegats!

Arnaud OIHENART

L'ART POÉTIQUE BASQUE (1665)

Itzultzailearen oharra

Lehen-lehenik bego hemen aitorturik Piarres Lafitte Poetika honen lehen argitaratzaileari[1] diogun zorra euskal literaturaren ezagutzan eta azterketan mugarri den lana eskaini zigulako.

Oihenartek 1665. urteko maiatzan Lapurdiko apez bati gutun batean euskal poesiaz idatzi zizkionak benetan Oihenart gure literaturgintzaren kritikan lehen mailara altxatzen dute, ezen hamabi urte lehenago Rafael Micoleta lizentziatuak[2] idatzi zituenak askoz ere murritzagoak diren.

Orokorki bai Patxi Altuna[3] bai Koldo Mitxelena[4] mintzatu dira bertan ageri diren ideia nagusiez, nola bere poesiagintzan Oihenartek ez zituen segitu idazle frantsesak, espainolak eta italianoak baizik, eta batipat erdi aroko idazle latindarrak, nola neurtzen dituen bertsolerroak, nolako azentua duten xuberotar hitzek, etabar. Beraz, esandakoak ez errepikatzearren ez naiz horietaz arituko egin dugun itzulpenaz baizik. Bego ere beste baterako Larramendik[5], Jose Ignacio Aranak[6], Sabino Aranak[7], Zaldubyk[8], Ormaetxeak[9] eta Lafittek[10] besteren artean idatzi dituzten poetikekin erkatzea eta xeheki ikertzea.

Eskuzkribuaren fotografiak erabili ditugu gure euskal itzulpena egiterakoan. Hogeita zortzi folio dira zenbait lekutan aski zailak irakurtzen baina zuzenketak egiterakoan Oihenartek aipatzen dituen orijinaletara jo dugu eta pasartea bilatu eta konparatu ondoren, Lafittek eginiko irakurketa zuzendu egin dugu gure ustez, edo bederen zertxobait erraztu, oin-oharretan doazelarik erreferentziak.

Itzulpen hau, noski, ez dut egin frantsesaren gutxiesteko, zein nere esku balego Euskal Filologiako ikasle guztiei ezinbesteko ikasgaitzak ezarriko niekeen beren ikasketen artean, baizik eta Oihenartek berak bere atsotitz - poema liburua plazaratu zuenean ukan helburu berarekin hots Euskal Herrian altxor hau, harri eder eta prezios hau frantsesez ez dakitenek irakurtzeko aukera ukan dezaten eta beraz gogo balute bertako aholkuez beren bertsotan balia daitezen.

P. U.

1 Piarres Lafitte, *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenart* (1665) Gure Herria, Bayonne 1967.

2 Rafael Micoleta, "Modo de la vizcayna poesia y sus versos". *Modo breve de aprender la lengua vizcayna,* compuesta por..., Bilabao 1653, Ed. E.S. Dodgron, Sevilla 1897, 33-34.

3 Patxi Altuna, "Oihenarten metrika" FLV, 1979, 269-285.

4 Koldo Mitxelena, "Descubrimiento y redescubrimiento en textos Vascos" aip. art., 716 SS.

5 Manuel Larramendi, "Cap. VI. Apendiz de la poesia Bascongada", *El imposible vencido...*, Salamanca, A.J. Villagordo, 1729, 373-395.

6 Jose Ignacio Arana "Arte métrica de la lengua bascongada" Ed. de P. Altuna, FLV, nº 59, 1992, 119-164.

7 Sabino Arana, "La fonética en el metro del verso", *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino.* 1. ed. 1896, 2. ed. 1980, 925-930.

8 Gratien Adema "Zalduby", Quelques règles de la prosodie ou art poétique basque. *Eskualduna,* 1899, nº 608,611, 613, 116, 620, 624, 631, 636, eta 644.

9 Nikolas Ormaetxea "Orixe", Eusko olerki neurritzaz. *Euskera* 1922, 31-53

10 Piarres Lafitte, *Koblakarien Legea.* Gure Herria, Baiona 1935.

f1

1665. maiatzan Lapurdi herrialdeko apez bati idatzi gutun batean adierazitako Euskal Poetika

Zein nolako metodoz baliatzen naizen neurtitzak ontzeko, galdetzen didazu. Erantzuten dizut ze egiteko honetaz arduratzen nintzenean (aspaldian utzia baitut) Italiako eta Espainiako poeten gisara moldatzen nintzela, eta areago oraindik errimez idatzi zuten latindarren modura, frantsesenera baino, hauena hiru hizkuntza horietatik detaile zenbaitetan ezberdina baita.

Lehen diferentzia honetan datza, alegia, frantsesa bertso harrez emeez baino gehiago baliatzen dela, eta beste hirurak ia beti emeez eta kasu bakarretan harrez, zeinen ordez baliatzen diren italiarrek *sdruccioli*, frantsesek *glissans* eta espainolek *esdrújulos* deitzen dituztenez.

Ez dut dudatan ipinten badakizuenez zer diren bertso har eta emeak, baina halere esanen dizut bidenabar harrak silaba luze batez bukatuak direla, eta emeak, alderantziz, silaba labur batez, zeini aurretik luze doakion, Petrarcaren[1] *Soneto eta kantuak* liburutik hartu bertsootan ohar zaitezkeenez.

Voi, ch'ascoltate in rime sparse il suono
Di quei sospiri, ond'io nudriva il core
In sul mio primo giovenile errore
Quand'era in parte altr'uom da quelchi sono;

f2

Bai lau bertsook bai hamalauko beste guztiak emeak dira hala nola hurrengoarenak. Baina hirugarren sonetoarenak erdiak emeak dira eta harrak beste erdiak. Hona hemen:

Era il giorno ch'al sol si scoloraro
Per la pietà del suo fattore i rai
Quand' io fui preso, e non me ne guardai
Che ' i be ' vostr'occhi, Donna, mi legaro.

Tempo non mi parea da far riparo
Contra colpi d ' Amor; pero n'andai
Secur, senza sospetto, onde i miei guai
Nel commune dolor s'incominciaro.[2]

Zortzi bertsolerro hauetatik lehena, laugarrena, bostgarrena eta zortzigarrena emeak dira eta beste lauak harrak. Hona gaztelaniaren beste adibide bat Cervantesen[3] *Galateatik* aterea:

1 Francesco Petrarca (Arezzo, 1304- Padova, 1374). Irakurketa zuzenketarako erabilitako edizioa honakoa: *Petrarch's Lyric Poems. The Rime sparse and other Lyrics*, translated and edited by Robert M. Durling. Harvard University, 2. arg., 1979, 37.

2 Idem, 39.

3 Miguel de Cervantes (Alcalá de Henares, 1547 - Madrid, 1616). *La Galatea* (1585). Obras Completas. Ed. Aguilar, 681.

Pues si es el trabajo vano
De mi llanto y sospirar
Y dél no pienso cesar,
A mi dolor inhumano,
¿Cuál se le podrá igualar ?

Bost bertsolerro hauetatik hiru harrak dira, alegia, bigarrena hirugarrena eta bostgarrena, *sospirar, cesar* eta *igualar* amaiera - hitzek azken silabak luzeak dituzten. Eta beste biak (hots, lehena eta laugarrena) emeak dira, baituzte *vano* eta *inhumano* amaiera-hitzek azken silabak laburrak eta azkenaurrekoak luzeak dituztelako.

f3

Bertso harrak eta emeak ezberdinak dira, ez bakarrik errima kontuagatik, neurriagatik ere bai, zeren eta izariaren arabera emeek harrek baino silaba bat gehiago behar dute izan, lehen aipatu Petrarcaren hirugarren sonetoan ageri diren bertso italianoetan bezala, zeinetan emeak hamaika silabakoak diren harrak hamarrekoak diren bitartean. Cervantesen bertsolerro harrek ez dute bakoitzak zazpi silaba baizik, eta emeek zortzi.

Errimari dagokionez, bertsolerro emeek bi silabakoa behar dute, edo bederen silaba t'erdikoa. Silaba-erdia deitzen diot hitzaren azkenaurreko silabaren bokalari, ala bakarrik ala darraion kontsonantearekin aurkitzen denean ondoko hitzotan bezala: *âge, hommage.* Bokalak berak bakarrik egiten du silaba-erdia, baina *garde* eta *halebarde* bezalako hitzetan, ez da **a** bakarrik, **r**-ak ere egiten baitu **a**-kin batera silaba-erdia. Bertsolerro harrei dagokienez aski dute silaba bat errimarako; eta silaba-erdiarekin ere ohartuko zirenez aipatu bertso italiano eta espainoletan.

Ezin da eman hizkuntza italiano, espainol eta latinoan bertsolerro harrak emeetarik bereizteko bertsolerro bakoitzeko azken silaben kantitatea baino beste seinalerik. Baina nola frantsesean bertso emeak oro **e** itxi edo emea duten silabez bukatzen diren, eta nola beste moduz amaitzen direnak harrak diren salbuespenik gabe, **é** zorrotz edo itxiz bukatzen direnak barne, adibide hauetako, hots, *Rose, chose, je frappe, tu frappes* hitzetan **e**-a emea delarik,
f4 hala nola, *Roses, choses, ils frappent* pluraletan Eta beste berdintsuak. Eta halako hitzetan bukatzen direnak oro dira emeak. Eta beste bokalez amaitzen diren bertsolerroak denak harrak dira **é** bokal itxian edo azentu zorrotzez kargatuak diren hitzak hala nola hitzok, *bonté, charité, frappé* eta beste berdintsuak. Philippe Desportes[4] -enak diren bertsolerro hauetan froga ikus dezakezunez:

O nuit, jalouse nuit contre moi conjurée,
Qui renflames le ciel de nouvelle clarté,
T-ai-je donc aujourd'hui tant de fois desirée
Pour être si contraire à ma felicité ?

[4] Philippe Desportes (Chartres, 1546 - Bonport, 1606), *Contre une nuit trop claire. Poèmes choisis* et présentés par Jean-Yves Masson. Orphée. La Difference, 1989, 63.

Badakusazunez lau bertsolerrook **e** bokalez amaitzen dira, baina lehena eta hirugarrena **e** itxi edo emeaz. Hona bada zergatik bi bertsolerrook emeak diren eta **é** zorrotzez amaitu beste biak, hamabisilabako harrek, beste biak, ordea, bakoitza hamahiru silabako den[1] Gauza beraz konturatuko zara Desportes-en kanta beraren beste lau bertsootan:

Je[5] vais, je viens, je fuis, j'écoute et me promène,
Tournant toujours mes yeux vers le lien désiré
Mais je n'avance rien, toute la rue est pleine
De jaloux importuns dont je suis éclairé.

Frantses poesiaren eta beste hiru hizkuntzakoen artean aurkitzen den beste diferentzia da frantsesak ez duela ezagutzen italianoek *sdruccioli,* espainolek *esdrújulos* eta beraiek *glissans* deitzen dituztenak. Beste hiru hizkuntzotako bertsoetan eta bereziki latinean maizenik aurkitzen direnak hiru silaba edo
f5 gehiago duten hitzetan amaitzen direnak dira zeinetarik azken biak labur eta aitzin-azkenaurrekoa luzeak diren. Grekotarren eta latindarren oin daktilikoa osatzen dutenak halaxekoak dira. Bertso molde honek osoa izatearren errina emeek egiten dutena baino osatuagoa behar du izan. Alegia, hiru silaba, edo bederen bi eta erdi, Petrarcaren *Amodio Garaipena*-ren (I.Kap.) bertso hauetan ikus dezakezunez, non bigarrena, laugarrena eta seigarrena *sdruccioli* edo *glissans* diren, eta bisilaba t'erdi dituzten erriman, hots, **-oglio:**

Vidi un vittorioso e somno duce
Pur com'un di color che'n campidoglio
Trionfal carro a gran gloria conduce.
I'che gioir di tal vista non soglio
Per lo secol noioso in ch'i'ni trovo,
Voto d'ogni valor, pien d'ogni orgoglio[6].

Eta Ariostorenak[7] diren hurrengo hauetan non Marfisak honelaxe mintzatzen zaion Guido Salvaggio-ri:

Ma, che t'incresca, che n'habbia ad uccidere,
Ben ti può increscere anco del contrario.
Fin qui non credo che l'habbi da ridere,
Perch'io sia men di te duro avversario,
O la pugna seguir vogli, o dividere,
O far la, à l'uno, ò à l'altro luminario,
Ad ogni cenno pronta tu ni haurai,
E come, et ogni bolta, che vorrai.

5 33. bl.
6 Petrarca, *Triunfos.* Ed. de Jacobo Cortinas & Manuel Carrera. Nacional, Madrid 1983, 34-36.
7 Ludovico Ariosto (Reggio di Emilia, 1474 - Ferrara, 1533) *Orlando Furioso* (1516), Ed. Vincenzo Valguisi, Venetia, MDLXXIII, 210.

Lehen sei bertsoak oro *sdruccioli*, edo *glissans* dituzu eta azken biak harrak. Halaber Sannazaro-ren[8] *Arcadia* osoa bertsolerro *sdruccioli*-tan eraikirik daukazu.

f6

Poeta italianoengandik hartutako adibide hauei bi gaztelaniazko erantsiko dizkiet. Lehena *Coplas de Juan de Mena*[9] *dirigidas a Juan II, rey de Castilla* deituetarik aterea da:

Sancta paz, sancto misterio,
Triunpho viril de gloria,
Concordia sin vituperio,
De amas partes victoria,
De los pueblos refrigerio
Los tres bienes acarrean
Que los señores non sean
De sus siervos cativerio.

Zortziko honetako lehen bost bertsolerrook eta azkena *sdruccioli* dira, eta seigarrena-zazpigarrenak emeak.

Beste adibidea Montemayor-en[10] *Diana*-ren liburutik aterea dena honakoxea da:

Sireno, ¿en qué pensabas que mirándote
Estaba desde el soto y condoliéndome
De ver con el dolor que estás quexándote?
Yo dexo mi ganado allí atendiéndome.

Eta beherago:

Andaba mi pasión solicitándole
Con medios no importunos, sino lícitos,
Y andaba el crudo amor allá estorbándole.
Mis tristes pensamientos muy solícitos,
De una a otra parte revolviéndose
Huyendo en toda cosa el ser ilícitos.

8 Jacopo Sannazaro (Napoli, 1456-1530), *Arcadia* (1504)

9 Juan de Mena (Córdoba, 1411-Torrelaguna (Madrid), 1456). *Obra lírica*. Edición, estudio y notas de Miguel Angel Pérez Priego. Ed. Alhambra, Madrid 1979, 183-184.

10 Jorge de Montemayor (Montemôr o Velho (Portugal), 1520-Piamonte, 1561) *Los Siete libros de la Diana*, Ed. de Enrique Moreno Baez. Nacional, 1981, 9-10

Eta oraindik beheraxeago:

f7

Con cualquier trabajo <en> encontrándola
De ovejas y corderos lo olvidábamos
Hablando ella conmigo y <yo> mirándola.
Otras veces, Silvano, concertábamos

<La zampoña y rabel con que tañiamos
Y mis versos entonces allí cantábamos>
Después la flecha <y arco> apercebíamos
Y otras veces la red, y ella siguiéndome
Jamás sin caza a nuestra aldea volvíamos.[11]

Bertsolerro guztiok *sdruccioli* edo *glissans* dira, San Bernardoren[12] latinezko besteok bezalaxe:

Jesus, Spes penitentibus,
Quam pius es petentibus,
Quam bonus te quaerentibus
Sed quid invenientibus.

Hala nola B. Jacobonus Tudertinus-en[13] *De medulla precationum* liburuaren 518 orrialdean irakur daitezkeen besteok:

Cur mundus militat sub vana gloria,
Cuius prosperitas est transitoria ?
Plus crede litteris scriptis in glacie
Quam mundi fragilis sauce fallatiae.

Beharrezkoa da, ordea, konturatzea ze hiru silabako edo silaba t´erdiko errima eskatzen duten bertsolerro *esdrújulos* delakoak aurkitzeko diren zailtasunengatik latinezko bertsogile gehienek askietsi izan dutela errimarako silaba t'erdia bai bertsolerro *glissans* deituetan bai emeetan, baina ez hala ez italiano ez gaztelaniazkoak.

f8

Aurkitu daitezke bertsolerro *glissans* delako hutsak har eta emeen nahasketarik gabe eleiza testuetan. Hala nola *Veni, sante Spiritus / Et emitte coelitus*, etc. hasiera duen Izpiritu Sainduari eskainitakoan[14], *Veni, virgo virginum*; hasiera duen Ama Birjinarenean, *Antonius humilis*; hasiera duen San Antoniore-

11 Idem, 33.
12 Bernardo (Fontaine - les - Dijons 1090 - Clairvaux (Aube), 1153). *Opera Omnia*... D. Joannis Mabillon... Reprint by Brepols, 1976, T. V-VI, 1318.
13 F.J.E. Raby-k *The Oxford Book of Medieval Latin Verse*-n, 1959, XIII. mendekoa eta anonimoa bezala jotzen du, 433
14 Idem, 375, d. 1228.

nean, Santa Genobebarenean, zein hasten den, *Genovefae solemnitas / Solemne parit gaudium*[15]; San Dionisio, Rustiko eta Eleuterio gorpuen aurkikuntzarena, zein hasten den, *Laudemus omnes inclita*, eta beste askorenean adibidez, San Bernardorenean, zeinen titulua *Jubilus in commemoratione Santae Pasionis* den eta zeinen hasiera honelaxe:

Nil canitur suavius
Nil auditur jucundius
Nil cogitatur dulcius
Quam Jesus Dei filius.[16]

Gualterus Maper[17], Ingalaterran dagoen Oxfordeko artxidiakonoak duela 450 urte ziren garaiko bizioen kontra oihukatuz idatzi Golias Aitasainduaren Apokalipsia ere, bertso *esdrújulo* delakoetan idatzita dago. Hona exenplua:

Ecce capitulum legi de moribus
Archidiaconi, qui suis faucibus
Quidquid a proesulis evadit manibus
Rapit et lacerat rostris et unguibus.
...

Ecclesiastica[18] jura venalia
Facit pro patulo, sed venialia,
Cum venum dederit vacat a venia,
Quam non inveniens vendit Ecclesia.

Eta beherago:

f9

Jussus[19] dirimere lites quas suscitat
A veris profugus falsis inhabitat,
Certus in dubiis, in certis dubitat,
Quae pie loquitur, dolore cogitat.
...
Injustum[20] promovet et justum conterit
Spretor justitiae cum lucrum senserit.

Poema hauek, benetazko bertsolerro *esdrujulo*-z eginak izan arren, ez dira hain maiz moldatzen nola emez nahasiak diren *esdrujulo*-ak. Nahaste hau, edo bertso moldatze hau era ezberdinetara egiten da, zeren batzutan (eta

15 Adam de San Victor (1192), in Dag. Norberg, *Manuel pratique de Latin Médiéval* Picard, Paris 1980, 82.

16 In Joannis Mabillon, ed., 1318.

17 Walter Mapes, Gautier de Châtillon (Lille, 1135 - Amiens, 1201): (in) *Die Zehn fedichte des Walther von Lille, genannt von Châtillon nach der Pariser Handschriftberichtigtn und zum eresten male vollständing herausgegeben* von Dr. W. Müldener, Hannover, Carl Rüm pler 1859 , 24 or. IV Contra Ecclesiasticos iuxta visionem Apocalypsis 153. bl. Ecce capitulum...

18 169 bl.

19 201.bl;

20 213.bl.; 21 F.J.E. RABY, aip. lit. 398: St Tomas Aquinas. d. 1274.

maizenik) bi bertsolerro *esdrujulo*-ekin batera lau eme doaz, era honetara konposatuak, alegia, hirugarrena eta seigarrena *esdrujulo*-ak eta besteak emeak, Trinitatearen testu honetan bezalaxe:

Confitentes Unitatem
Veneremur Trinitatem,
Pari reverentia.
Tres personas asserentes
Personali differentes
A se differentia.

Hala nola Sakramentu Santuarenean[21] :

Lauda, Sion, salvatorem,
Lauda ducem et pastorem,
In hymnis et canticis.

Quantum potes tantum aude,
Quia maior omni laude,
Nec laudare sufficis.

Batzutan sei eme ipinten dira bi *esdrujulo*-ren artean,hala Dominique Chartreux dohatsuaren *Penitentziarako exortazionean*, zein Mildendor Piusek argitaratu duen bere *Historia Monastica*-ren bukaeran:

f10

Homo dei creatura
Cur in carne moritura,
Est tam parva tibi cura
Pro aeterna gloria.

Illa quanta si scires,
Praeter eam nil sentires
Nec mundana sic ambires
Vana, transitoria.

[21] Hona nola itzultzen dituzten Oihenartek (Notitia... 2.arg. 1656, 73), eta Ormaetxea "Orixek" (*Idazlan guztiak.II. Itzulpenak*, Etor 1992, 68) bertso hauek euskarara.

Oihenart	Orixe
Goihets, sion, Salbaria	Sion, goretsazu Jauna,
Artzain et'aitzinaria,	Salbatzaille ta artzaia,
Kantoretan, koblatan	Eresi ta lelotan.
Goihets ezak ahalara,	Al aiña gora ezazu,
Ezi guziz askitara	Motx geldituko baitzera
Eresak eholatan.	Aren gores penetan.

Et si poenas infernales
Agnovisses, quae et quales
Tuos utique carnales
Appetitus frangeres

Et innumera peccata
Dicta, facta, cogitata,
Mente, tota consternata
Merito deplangeres.

Ohartu naiz ere zortziko molde hau ematen dela eleiza testu zenbaitetan, hala nola Mendekozte ondoko Hirugarren Ferian, zein honela hasten den, *Lux jucunda, lux suavis*, alegia, *Consolator almae veni* bertsoaren ondoan Ama Birjinaren, *Verbum bonum et suave*-z, eta Santa Paularen, *Virgo mitis gloriosa*-z hasten direnetan.

Jeronimo Boselli-k[22] bere *Del modo di comporre versi nella lingua italiana* saioaren 4. kapituluan, dioenez, bertsolerro *esdrujulo*-ak besteak baino silaba bat gutxiago duten (esan nahi du emeak baino). Baina hau ulertu behar da errima italianoez, eta inolaz ez latinezkoez, non arruntean bertsolerro *esdrujulo*-ak emeak baino silaba bat laburrago diren, lehen aipatuetan ageri zaigunez. San Bernardo berezia da bertsolerro guztiak berdinak egiten baititu silaba kopuruaren arabera, emeak eta *esdrujulo* -ak, Kristo sofritzailearen lohadar bakoitzaz moldatu dituen neurtitzetan bezala:

f11

Salve, mundi salutare,
Salve, salve, Jesu chare,
Cruci tuae me aptare
Vellem vere, tu scis quare,
Da mihi tui copiam.

Ac si praesus sis accedo
Imo te praesentem credo.
O quam mundum huic te cerno!
Ecce tibi me prosterno:
Sis facilis ad veniam.[23]

Poema hau hamarrekoz moldatua dago non bostgarren eta hamargarren bertsolerroa *esdrujulo*-ak diren eta beste zortziak emeak. Horrelako hamarreko berdintsu asko dago kantika izpiritualak deitu latinezko bilduman.

Batzutan bertsolerro emeen ondoren berehala doaz *esdrujulo*-ak, Berterius-ek[24] Orleans-eko eleiz-gizonak 1187 urte inguruan, Gregorio VIIIa aita-

22 Hieronimus Bosellus (Bologna, 1634-1700), *Poesie e prose divine* (1660), *La Corte Accademica*... (1665).
23 San Bernardo, aip. lib. Rhythmica oratio ad unum quodlibet membrorum Christi Patiemtis et a cruce pendentis, 1319.
24 F.J.E. Raby, aip. lib., Berter of Orleans, C. 1187, Call to Crusaders, 297-298.

sainduaren garaietan konposaturiko neurtitzetan bezala, zein historiagile ingeles baten liburu batean irakur daitezkeen:

Juxta Threnos Jeremiae
Vere Syon lugent viae,
Quod sollemni non sit die,
Qui sepulcrum visitet
Vel casum resuscitet
Huius prophetiae

f12

Contra quod propheta scribit
Quod de Syon lex exibit,
Numquid ibi lex percibit,
Nec habebit vindicem,
Ubi Christus calicem
Passionis bibit?

Lignum[25] crucis
Signum ducis,
Sequitur exercitus;
Quod non cessit
Sed praecessit
In vi sancti Spiritus.

Azken seiko hau errepika da, beste seikoen ondoren errepikatzen dena, eta besteetarik ezberdina da, zeren emeek lau silaba besterik ez duten (beste seikoenek hamaika duten bitartean). Badira poemak seiko labur berdintsuak dituztenak, adibidez, 1628. urtean Munster-en moldiztegiratu *De Medulla Precationum*[26] liburuaren 53, 67, 68, 96 eta 148. orrialdetan agertzen direnak. Oso arinak dira, baina bere laburtasunagatik aski moldazailak, bertsolerro gehienak lau silabakoak eta emeak direlarik.

Badira ere beste poemak hirukotan moldatuak, hirurak errima eme bera dutelarik. Adibidez, Hilen testuok:

Dies[27] irae, dies illa,
Solvet saeclum in favilla,
Teste David cum Sibylla.

Quantus tremor est futurus
Quando judex est venturus
Cuncta stricte discussurus!

25 Eskuzkribuan hiruko bezala ematen da.
26 B. Jacobonus Tudertinus-ena.
27 F.J.E. Raby, aip. lib., Thomas of celano, d.c. 1255, 392-393.

f13 Badira oraindik mota batzuek zein lau bertsolerro emeez osatzen diren, denak errima berekoak, hala nola Gariel-ek[28] bere Magueloneko Apezpikuen Historia-k (171.or.) ematen duen *Antigua Admonitio Ad clerum Ecclesiae Dei* deitu poema:

Cum[29] pastores ovium sitis constituti,
Non estote desides, sicut canes muti,
Vobis non deficiant latratus acuti,
Lupus rapax invidet ovium saluti.
...
Spectat[30] ad officium vestrae dignitatis
Gratiae petentibus dona dare gratis,
Sed, si unquam fidei munera vendatis,
Incursuros Giezi lepram vos sciatis.
Gratis Eucharistiam plebi ministrate,
Gratis confitemini, gratis baptizate,
Secundum Apostolum cuncta gratis date,
Solum id quod fuerit vestrum conservate.

f29 Izpiritu[31] Sainduaren Ofiziozko himnoak hala nola Ama Birjianaren Sorkundekoak ere bertsomolde honetan eratuak daude:

Nobis Sancti Spiritus gratia sit data,
De qua Virgo virginum fuit obumbrata,
Cum per Sanctum angelum fuit salutata,
Verbum caro factum est, virgo fecundata.

Sorkundearenak era honetan hasten dira:

Salve, mundi domina, caelorum Regina,
Salve, virgo virginum, stella matutina,
Salve, plena gratiae, clara lux divina,
Mundi in auxilium domina festina.

Badira ere beste zenbait non bertso eme eta *esdrujulo*-ak kopuru berdinean eta gurutzatuak dauden, hala nola *Pange*[32], *lingua, gloriosi / corporis misterium, / sanguinisque pretiosi*, etabar seikoak direnak. Baina aurkeztu dizkizudan errima guztien artetik, hirugarren eta seigarren bertsolerroa *esdrujulo*-ak dituztenak eta beste lauak emeak dira onartuenak, konturatuko zaren bezala astirik hartzen baduzu eleiz-testuak irakurtzeko, zeinetarik bi herenak bederen halaxekoak diren hala nola duela laurehun edo bostehun urte

28 Petro Gariel, *Series proesulum Magalonensium*...Tolosae, 1652, 171, 172.
29 29 bl..
30 41. bl.
31 *Izpiritu*-tik hasi eta *festina*-raino eskuskribuaren bukaeran ematen da, ertz-oharrean hara bidaliz.
32 F.J.E. Raby, aip. lib. St. Thomas Aquinas, d. 1274, Hyma for Vespers, 401.

argitaraturiko poema anitz Illiricus-en *De corrupto Ecclesiae statu, Kantika*
f14 *Izpiritualak* latinez eta 1628.urtean Munster-en moldiztegiratu *Medulla precationum* bildumetan aurki daitezkeenak, hala nola beste zenbait lekutan zeinetarik hemen adibideren bat emango dugun, Pasio garaian Elizan entzuten den kanta ilun deboziozkoaz hasiko naizelarik:

Stabat[33] mater dolorosa,
Juxta crucem lacrimosa,
Dum pendebat filius,

Cuius animam gementem
Contristatam et dolentem
Pertransivit gladius.

Hona hemen beste adibide batzuk gorago aipatu Gualterus Maper-en *Satirak* liburutik hartuak

Quid[34] desertum[35] nisi mundus?
Mundus quidem, sed immundus,
Quia munda polluit;

Qui sunt spinae tribulique ?
Qui? pastores praelatique
Amatores muneris.

Cum non pascant, sed pascantur
Non a pasco derivantur
Sed a pascor, pasceris.
...
Omnis habens muneratur
Non habenti supplantatur
Id ipsum quod habuit;
In deserto mundi huius
Nemo floret, nisi cuius
Bursa nondum vomuit.

Ondoren aurkezten ditudanak beste poema batekoak dira:

Nihil sunt virtutes cunctae
Et jacent quasi defunctae
Nullibi est charitas.

33 Idem, 13.m., 435.

34 Aip. lib. (17 oharra), VIII, Domino Papae, 31-33 bl., 43-48 bl., 55-60 bl..

35 Zuzen dago idatzita eskuzkribuan gure ustez, beraz, Patxi Altunak Oihenarti egotzi hutsa (Francisco Maria ALTUNA, *Versificación de Dechepare, Métrica y Pronunciación.* Mensajero, Bilbao, 1979, 83) Piarres Lafitteri legokioke (Pierre Lafitte, *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenart (1665).* Gure Herria, Baiona, 1967, 27).

f15

Metu namque terga vertit
Et fides sub scamno stertit,
Superbit humilitas.

Ob hoc ego cum legistis
Advocatis et juristis
Prandens inter pocula.

Indefesse litem gero
Cur pervertant cura quaero
Nummo dantes oscula.

Quivis sic mihi redicit
Sed quem nummus jam non vicit?
Vel quis spernit munera?

Et si nondum ara nummo
Fabricata sit, in summo
Tamen plus diis colitur.

Si nondum canonisatus
Nummus sit, neque beatus
Isti iam genu flectitur.

O quanta numme operaris,
Quod plus quam deus amaris
A clero et a laicis.

Iam, te sine, nullus sapit
Per te homo quod vult capit
Quod vis totum perficis.

Hurrengo bertsoak *De Mundi Miseriis* kanta izpiritual-etik hartuak dira:

Sanctae Leges caelo datae,
Spretae jacent et calcatae,
Dominante vitio.

Umbra fallax honestatis
Nomen gerit aequitatis
Regnante mendatio.

f16

Ecquis modus est malorum
Vel quae restat spes bonorum
Ubi scelus colitur?

Honos Ehem quam indignis
Hic habetur, et malignis
Quam injuste redditur!
...
Primas saepe dignitates
Atgue summas potestates
Temeret iniquisimi . etc.

Oraindik infernuko penez ari den *Kondenatuen Auhen-kanta*-tik harturiko besteok erantsiko nituzke

Nullus patet hic amicus,
Solus adest inimicus,
Nullus amat socium.

Nullus amor vincint patris,
Nullus matris, nullus fratris
Unum regnat odium.
...
Hic clamores eiulatus
Plangores et ululatus
Atgue stridor dentium.

Caelum, mundum, detestari,
Deum ipsum execrari,
Hic est furor omnium.

Seiko guzti hauek zortzi eta zazpi silabakoak dira.

Bada lauko mota bat nere ustez euskaldunena dena batez ere eta bereziki, ez baitut aurkitzen beste hizkuntzetan. Hiru bertsolerro errima bereko, hau
f17 da, lehena, bigarrena eta laugarrena, hirugarrena errimarik gabe gelditzen delarik. Froga ikusiko duzu *Emilia*[36] izeneko neskatxa baten kantan, zeinekin maitemindurik mairu batek urretan erosi zuen:

Andr' Emili ' andre gora,
Ezin diro ogirik ora,
Artorik jorra hain guti,
Bihoa mairu herrin gora.

Saldu nintzen saritan,
Aski sari handitan,
Ehun pizu urhetan eta
Berrehun dupha eztitan.

36 Aldaerak eta komentarioak: Luis Michelena, " Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos", *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, II, Donostia 1988, 713-728.

Aita nuen saltzale,
Ama diru hartzale,
Anaierik xipiena
Mairuetarik khentzale.

Lehen laukoak zortzi silabako bertsolerro emeak ditu, eta beste biek zazpi zilabako bertsolerro *esdrujulo*-ak. Bertso molde hau dotorea da eta bere erabilera mantendu behar da.

Ondorioztatzen dut euskal poesiara emanak direnek batipat moldatu behar dituztela beren bertsoak aurkeztu berri ditudan latinezkoen errimatzeko eran frantsesean baino gehiago, onduz edo bertsolerro eme hutsak, edo *esdrujulo* hutsak edo mota hauek nahasiz, bere hitz gehienak edo eme edo *esdrujulo*, edo arruntak direlako, harrak oso gutti izanik. Gainera beti bete be-
f18 har dituzte elisioak eta sineresiak, hitz bat bokalez bukatua denean eta jarraian doakiona bokalez ere hasten bada. Eta ez mespretsatu edo berdinetsi, Virgilio, Catulo, Ovidio eta beste poeta latinezkoen usarioaren aurka zenbait bertsogile latindarrek egin duten arabera, ezen betez gero bokalen topaketek sortzen duten aharrausia saihestuko den. Halaber honek balioko du hitzen luzera laburtzeko, holakoen luzetasuna gure hizkuntzan oso desegokia baita Poesiarako.

Elisioa egiten da, dakizunez, bi hitzen artean aurkitzen den bokal baten hotsa janez edo galeraziz, adibidez, hitz bi hauetan bezala, *entre eux*, non *entre* hitzaren bukaerako **e**-a jan eta galtzen den *entr'eux* idatziko bailitzan ahoskatuz.

Sineresia suertatzen da bokalen topaketa horretan aitzin hitzeko azkena jarraian doan hitzaren lehenarekin lotzen denean diptongoa eratuz, honela biak silaba soil bat egiten dutelarik. Hona hemen adibide batzuk Lope de Vega Carpio[37], poeta espainolaren *Peregrino en su patria* liburuaren bigarren orrialdetik hartua:

Philida, nunca mi amor
Enterneció tus sentidos,

Lehen bertsolerroan *mi amor* hitzek ez dute bi silaba baizik egiten, zeren eta *mi* hitzaren **i**-a eta *amor* hitzaren **a** bokala sineresia dela eta lotzen dira biak bat besterik egingo ez bailutekeen, eta ***mia*** diptongoa balitz bezala, hurrengo bertsootan ere ageri den bezala:

Verdad es que un pescador
Tan humilde poco vale
Que aunque a todos nos iguale...

37 Lope Félix de Vega Carpio (Madrid, 1562-1635), in; *Colección de las obras sueltas asi en prosa, como en verso de ...*, T.V., Madrid, Antonio Sancha, MDCCLXXVI, 3

f19

Lehen eta hirugarren bertsolerroko *Que* eta *aunque* hitzek duten **e** letra desagertu egiten da, edo jan egiten da, horrela harra den lehen bertsolerroan zazpi silaba besterik ez delarik, elisioa gabe, ordea, zortzi lituzke. Eta emea den hirugarren bertsolerroan hamar silabez ondua izan arren zortzi besterik ez dira kontatu behar, zeren *que* eta *aunque* hitzen bukaeran aurkitzen dire **e** letrak jan egiten diren. Hala nola lehen orrialdeko bertso hauetan:

Que a la insigne Barcelona
El muro antigo corona.

Lehen bertsolerro *Que* hitzaren bukaeran aurkitzen den **e**-a kendu egin behar da **a**-k jarraikitzen diolako, hala nola **la** hitzaren **a** bokala. Eta bigarren bertsolerroan sineresia medio *muro* hitzaren **o**-a *antigo hitzaren* **a**-*kin lotu behar da.*

Elisio hau ez da bakarrik gertatzen bokal edo silaba laburrekin luzetan ere gertatzen baita, hala nola Cervantesen[38] *La Galatea*-n aurki daitezkeen bertsootan:

Muy bien podré ser llamado
Sobre todos desdichado,
Pues que vendré a perecer
Adonde el alma he dexado.

Hirugarren bertsolerroko *vendré* hitzaren bukaerako **e**-a kendu egiten da luzea izan arren. Horrelakorik ez da ematen hizkuntza frantsesean ondoren frogatuko dudan bezala.

Poeta frantsesek elisioa **e** emez amaitzen diren hitzetan egiten dute soilik, eta ez beste kasuetan. Hala, adibidez, Du Bartas-en[39] *Premier Jour de la Semaine*-n

Providence et Bonté estoyent à tous momens

Bertsolerro honetan **e** emez amaitzen den *providence* hitzaren **e**-a jan egiten da, eta ez *bonté hitzaren* **e**-*a,* hau harra eta luzea baita. Baina benetan bertsogile latindarrek ez dute elisioa beti egiten, batzutan betetzen badute ere mespretsatu egiten baitute bestetan.

f20

Bernardo[40] deunak *Jubilus* izeneko poeman betetzen du ere bertso hauetan bezalaxe:

38 Aipt. lib., 682.

39 Guillaume de Salluste, seigneur du Bartas (Montfort, 1544 - Paris, 1590) *La Sepmaine ou La Création du monde* (1578-1584) Edizio erkatua Yvonne Bellenger-ena, Paris, Librairie Nizet, 1981, 4; 61. bl. *Providence et Bonté estoyent à tous momens / le sacré-sainct object de ses hauts pensemens.*

40 Aip. lib., 1318

Quocumque in loco fuero
Mecum Jesum desidero.

Non *quocumque* hitzaren **e**-a kendu behar den bestela bertsolerroa bederatzi silabakoa bailitzateke, beste guztiek bezala zortzi eduki beharrean. Baina idazle honek ez du elisiorik egiten beste bertso pila batean. hala nola Santo Tomas Canterbury-ko[41] apezpikuaren martirioaz Stapleton-ek argitaraturiko *De Tribus Thomis* idazlanean moldaturiko bertsootan:

Ante chaos iurgium indigestae molis
Adhuc hyle gravida faetu magnae prolis,
Necdum orto lumine lunae neque solis
Nec discretis aëre, terra, mari, polis.
In natura, in serie rerum mundanarum
.....

Natura hitzaren azken **a** *eliditu* , jan egin behar da bestela bertsolerroak hamalau silaba izanen lituzke. Eta ondorengo *lapsu* hitzaren **u**-a arrazoi beragatik jan egin behar da, edo lotu sineresia medio hurrengo **e**-arekin bertso honetan bezala:

Thomas[42] lapsu erigitur incipit finitus

Eta gorago aipatu *Diruaren edo Lukurreriaren kontrako Satiran* aipatutakoetan ere:

Heu, quanta numme operaris
Quod plus quam deus amaris
A clero et a populo.

Clero hitzaren **o**-a kendu edo lotu egin behar da sineresia medio jarraian doakion hitzaren **e**-arekin.

Egoki irudituko litzaidake bertso eme eta *esdrujulo*-ak nahasiz seikoak ontzea nahiko balitz, emeak lehenik joango balira, ezen aurretik badoaz *esdrujulo*-ak eta emeak ixten hirukoa ez den hain atsegina poesia, argi eta garbi baita.

f21

Lauda, Sion, Salvatorem / Lauda ducem et pastorem / In hymnis et canticis...eko testuak ondoroengoak baino askoz ere grazia handiagoa dutela:

Res est admirabilis
Virgo venerabilis
Parit sed intacta,

[41] *Prontuarim Catholicum ad instructionem Concionatorum contra haereticos nostri temporis... De Martyrio S. Thomae Cantuariensis Archiescopi Carmen Rythmicum, Historicum, Allegoricum et Morale...* 1588; 982.

[42] Idem, 987.

Operante spiritu
Sine viri coitu,
Genitrix est facta.

Galdetuko didazu agian zein diren hitz *esdrujulo* hauek eta zein lehen aipatu *arruntak* gure hizkuntzan, eta erantzungo dizut *esdrujulo*-ei dagokienez zein diren azken silabak laburrak eta aitzin-azkenaurrekoa luze dituztenak. Zeuk ezagutu nahi badituzu belarriari galdeiozu, dudarik gabe beraxek erakutsiko baitizu *-ra, rik, -tik eta -ko* bukaera duten hirusilabako hitzak direla eite honetako, ahoskatzen ditugunez *hártzera, hárturik* eta *hártzeko* azentua lehenean ipiniz, eta ez *hartzéra, hartúrik* eta *hartzéko* azentua azkenaurrekoan *ezarriz,* eta guttiago oraindik azkenean duten *hartzerá, harturík* eta *hartzekó* bezala.

Ez dago hiru silaba baino gehiago duen hitzik, zeren haietariko anitzetan azkenaurreko kantitatea dudakorra edo halamodukoa da hitzotan ageri denez, *erostera, erosirik, erosiko; erabiltzera, erabilirik* eta *erabiltzeko,* zeinetan aitzin-azkenaurreko silaba ez den bi azkenak baino luzeagoa, baina hirurak neurri eta denbora berean ahoskatzen diren; beraz ikus dezalegu azkenaurrekoa nahi bezala poetaren gogo arabera erabil daitekeela luze edo labur gisara, hori dela eta arrunt edo dudakorra deitzen zaio.

f22

Bada ere hiru silabako hitz andana handia azkenaurreko silaba arrunta duena eta honen medioz balia daitekeena bai eme bai *esdrujulo* den bertsolerroarentzat, halaxekoak dira, hain zuzen, mugatzailea duten nominatibo ia gehienak nola, *errea, josia, jauzia, buria, begia, ertzea, luzea, joaitea, hiltzea* eta besteak. Halaber bere singularreko ablatiboak *erreaz, josiaz, buruaz, begiaz,* etabar. Beste kasua da mugatzailea duten pluralak, zeinek duten (nominatibo pairuzkoa ezik) azken silabak luzeak, ahoskatzen baititugu: *gauzék, gizonék. gauzén, gizonén, gauzér, gizonér, gauzéz, gizonéz,* azken silaba luzatuz.

Bestalde mugatzailea duten singularreko genitibo eta datiboak azken silaba laburra dute, eta azkenaurrekoa luzea, ahoskatzen ditugunez *gizonáren,* eta *gizonári,* eta ez *gizonáren* ezta *gizonarí.*

f23

Aita Haramburu[43] kaputxinoa izan da bakarra errimak euskaraz publikarazi dituztenen artean, bere *Eskuarra*-ren bigarren argitalpenean sarturiko *Zazpi salmo Penitencialak*-en itzul inguruan metodo on hori erabili duena, zeren tetrastiko edo laukoetan nahasi egin dituen zortzi eta zazpi silabako bertso eme eta *esdrujulo*-ak:

Utzazu, Jauna, kolera
Ene mehatsatzeko,
Ezen lizate sobera
Ene gastigatzeko.

43 Joanes Haramburu, *Debocino escuarra mirailla eta oracinoteguia, Virginaren debocionea, marinelena eta San Francesen heren Ordena, berce anhitz debocionozco othoitcequin*...Bordelen, 1. arg. 1635; Vinsonen arabera 2. edizioa 1642.goa litzateke (*Essai d'un bibliographie de la langue basque,* Paris, 1891, 75) Lehen argitaraldiko 207. orrialdean aurkitu dut laukoa.

Baina desiragarri zitekeen denetan berdin jokatu izan bazukeen bederen silaba t'erdiko errima erabiliz (zeinez maiz ahanzten den) eta bertsolerro *esdrujulo*-tan ez erabili izana bi silabako hitzak zeinetarik lehena luze zitekeen. Hau gertatzen baitzaio zenbait parajeetan hala nola *kolpe*-z bukatzen den 253.orrialdeko lehen bertsolerroan, eta *latza*-z bukatzen den 254.orrialdeko azkenaurreko bertsolerroan, eta *aiher, hurko* eta *turko*-z bukatzen diren 255.orrialdeko 15. 17. eta 19. bertsolerrotan, eta *jainko*-z bukatzen den 257. orrialdeko 17. bertsolerroan, eta *nola*-z bukatzen den 267. orrialdeko lehenean. Hitz guzti hauek lehen silabak luzeak dituzte eta labur diren silabak aitzinatzen dituzte, eduki beharrean ohi bezala hitz *esdrujulo*-etan azken bi silabak laburrak eta aitzin-azkenaurrekoa luzea. Horregatik, askoz erosoago bukatzen dira hiru silabako hitzekin, eta bi silabakoekin amaitzea nahi baldin
f24 bada, honela behar da egin, alegia, hitzek behar dute eduki lehen silaba luzea edo arrunta, eta aitzineko silaba bakarreko hitza beharko du izan edo azken silaba luzeduna. Hona hemen adibideak: *jo ditut, jin dire, harén bila, haurren bila, haurrén ona. Esdrujulo*-ak diren hitzak amaitu daitezke ere silaba bakarreko hitzekin, baldin eta lekuz edo jitez luzeak ez badira, ondorengoak eta beste asko diren bezala: *botz, motz, latz, gatz, hatz, hartz, zurtz, hitz, gaur, laur, bortz, sei...*

Ohartu naiz ere Nafarroa Garaian eta Bizkaian moldaturiko zenbait kantetan neurria gorago aipatu *Emilia*-renean bezala gordetzen dela, hala nola bizkaitarra den honetan:

Atsein andia da amore eutea,
Eta bere bada guztiz firmea,
Ezin esan leidiz ondo munduak
Zein andiak diren aren gustuak
Gloriaz beterik jaio nindia
Ikusiaz gero zen, Ene Eguzkia.

Bertso guzti hauek hamaika silabako bertsolerro emeak dira.

Ez dakit duela ehun eta hogei urte idazten zuen Mossen Bernad d'Etcheparek, Garaziko herrialdean Eyheralarreko apeza zelarik, bertso harrak ala emeak egin nahi izan zituen, zeren *esdrujulo* -ei dagokienez ez dut uste ezagutu zitzakeenik François Morpain-en etxean Bordelen inprimarazi zuen Eus-
f25 kal Poesian, zein geroago baina akatsez josia Erruanen AdrianMorront-enean[44] bermoldiztegiratu den. Bere obra Saratarra, engainatzen ez banaiz, eta Bordelko Parlamentuan Erregeren abokatu jenerala zen Leheteko jaunari eskaini zion. Bi partetan banatua dago, lehenak *Doctrina Christiana*-ren pasarte batzuek ematen dizkigu, eta besteak (bere kartzelatze auhenez aparte) amodiozko neurtitzak, aski errespetu gutxikoak eleiz gizon batentzat, eta batipat arimazain den apez bati ez dagozkionak.

[44] Adrien Morront Erruanen moldiztegigile (1604-1630), Ambrosio Salazar-en *Las clavellinas de recreación...*"(1614) ere argitaratu zuena (*Gallia Typographica*..par George Lepreux, T. III, Paris 1912, 334).

Bai errimaren kalitate pobre eta eskasagatik bai bere bertsoak kantarazten zituen doinu eta musikagatik esan dezaket bertso harrak egiteko asmoa izan zuela, baina metodo txar batez baliatu zela, hau da bortxatu egin zituela berez labur zirenak bertsolerro bakoitzeko azken silabak luzeak bilaka zitezen.

Hona nola hasten den:

Mundian[45] den gizon orok behar luke pensatú
Jaungoikoak nola duien bat bedera formatú,
Bere Iduri propiara, gure arima kreatú,
Memoriaz, borondatez, endelguiaz goarnitú.

Denak hamabost silabako bertsolerroak dira, berdinik ez dutenak poeta frantses, italiano eta espainolen artean (zeinen baitan bertsolerro luzeenak hamahiru silabako alexandrino emeak diren), are gutxiago latinezkoen artean.

Bertsolerro hauen mozte eta atseden uneak leku askotan ere irregularrak dira.

f26

Honen ondoren izan zen beste apez bat Donibane Garazin jaioa, Jean d'Etchegaray[46] Jauna deitua euskal poesian aritua eta *Artzain gorria* izeneko pastoralaren egilea, zein hiri honetan zenbait aldiz jokatu zen. Duela ehun urte idatzi zuen. Ikusi dut bere eskuz euskal poemekin idatzitako liburu bat, bertso hauetarik gehienak ere hamabost silabakoak dira eta Detcheparek egin hutsaldi berdintsuak dituzte. Gauza bera esan dezaket ere bere eskuz idatzirik ikusiak ditudan Arnaud de Logras[47] Jaunaren, Amikuze eta Oztibarreko Bikari eta Utziateko priore zenaren neurtitzez.

Azter ditzagun ondoren Ziburuko apeza zenaren d'Etcheberri Jaunaren *Manual*-ekoak[48], eta aurkituko dugu hauek ere hamabost silabakoak direla bat bedera, eta kantitatearen bortxatze bizio beraz ikutuak, izatez labur diren azken silabak luzetzat jotzen baititu; horregatik Baionako Apezpiku Jaunari[49] zuzenduriko Dedikazionezko Gutunean, errimarazten ditu *prelata* eta *baita* (bi hitz hauen azken silabak azentu zorrotza bailuten ahoskatuz). 11

45 Doctrina Christiana
Munduyâ den guiçon oroc behar luque pêsatu
Iangoycoac nola duyen bat bedera formatu
Bere irudi propiara gure arima creatu
Memoriaz vorondatez endelguyaz goarnitu.
(Linguae Vasconum Primitiæ per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem Sancti Michaelis veteris, François Morpain, Bordeaux, 1545)

46 Bidarten1601. urtean apez zegoen Jean Detchegaray bera ote? (Bibliothèque Municipale de Bayonne, Archives..., FF 357, H H 181).

47 Agian Martin de Logras Olhonzeko jauna eta erregearen kontseilari zenaren semea, eta Graziana de Logras, Oihenarten andererearen lehengusu txikiaren anaia.

48 *Manual Devotionezcoa, edo ezperen oren oro escuetan erabilltçeco liburutchoa Escarazco versutan eguiña*...Bordelen, Millanges, 1. ed.. 1626.

49 Claudius de Rueil, erregearen kontseilari eta Pariseko semea.

orrialdean *partale / gardatzaile*-rekin; 14. orrialdean *konseiluz / ereduz*-ekin; 19. orrialdean *oro / maizkiago*-rekin, eta 27. orrialdean *abisu / gorritu*-rekin. Eta bigarren liburuko 45. orrialdean *ahantzi / moldezki*-rekin; eta 46. orrialdean *eskaturik / mundutik*-ekin.

f27

52. orrialdean *aiphamen / entzuten*-ekin, 98. orrialdean *agindua / libratua*-rekin, 99. orrialdean *duena / arima*-rekin. Bada oraindik bere *Manual*-ean hainbat bertsolerro halako egitura dutenak, alegia, bakarrik azken bokala dutenak elkarren oihartzun moduan. Batzutan gainera errima burutzeko hitz bera errepikatzen du zentzu berdinakin bi bertsolerroren bukaeran, hala nola lehen liburuaren 11. orrialdean non *gabe*-k jarraiako bertsolerroan ageri den eta esanahi berdineko *gabe* berarekin errimatzen duen. 52. orrialdean *Egia*-k / *egia*-rekin, eta 58. orrialdean *beretzat*-ek/*beretzat*-ekin. Bere *Noelak*[50] *Egunorozkoa*[51], eta *Elizara erabiltzekoa*[52] -n darabiltzan erak ez dira hobeak. Errimarazten baititu *doloraturen / jakinen*-kin, *galdetzen / zuten*-ekin, *galdurik / norbaitik*-ekin, *garbi / humilki*-rekin, eta beste lekutan gehiegizkoaz diren lizentziak aizutzat jotzen baititu, eta bere errima zenbait aldiz bi bertsolerroren amaieran hitz bera errepikatuz moldatzen baitu, eta bero bertsoek neurri bera ukan dezaten maiz errepikatzen ditu adjetibo eta substantiboaren arteko mugatzailea, esaten duenean adibidez, *Enea galdea, ene galdea*-ren ordez, *pensamenduetarik gaxtoetarik, pensamendu gaxtoetarik* ordez.. Bestalde oso gutxitan darabil elisioa eta sineresia, eta bertsoak haietan hamabost silabakoak dira *Manual*-ekoak bezala; laukoetan banatuak izan arren, zeren bi bakarrik errimatzen duten laukoan, beste biak hemistikioak bezala hartu behar direlarik eta ez bertsolerro osoen gisara.

f28

Tamalgarria da izpiritu honek hobetsi izana poesia eta ez prosa[53], non inongo dudarik gabe arrakasta handia ukanen zuen, (moldiztegiratu lanez kanpo) bere adiskideekiko Gutunek, bere Hiztegiak eta (bere eskuz idatzirik ikusi ditudan) bere Konjugazioneak hizkuntza honetan zuen gaitasuna adierazten baitigute. Bere neurtitzak ontzen zituen garaian entzun nion batipat itsasoan marinelek kanta zitzaten lantzen zituela, beraz epaitu dezakegu batez ere karitateak eraginik eta ez anbizioak edo handigurak, baizik eta benetazko eliz-gizon baten gisara bere lagun urkoaren probetxurako garrak bultzaturiko idazle bezala.

50 *Noelac eta berce canta spiritual berriac. Jesus Christoren biciaren mysterio principalen gañean. Eta sainduen oboretan besta buruetacotz.* Joannes Etcheberri Doctor Theologoac eguiñac. Bordelen, G. Millanges, 1630.

51 Galdua antza denez.

52 *Eliçara erabilceco liburua* Ioannes Etcheberri Dotor Theologoac eguina eta iaun Noble Bertrano de Etchaus Tursco Aphezpicu digneari dedicatua. Bordelen, G. Millanges, 1636, 37...

Confiteor, guero apheçac / Erraten du devotqui / Virgina purificatu / Cen tenpluan humillqui / Çuc naçacu, Jauna, neure / Hobenetaric garbi.

53 Halere *Manual*...-ean badu zati bat "prosan edo hitz lanoetan", *Bi-garren liburuaren azken partea*-n, 161-191.

Jean-Baptiste ORPUSTAN

Bernat Etxepare 'ta Arnalde Oihenart: ondoriotasunetik harat

(**Aitzin oharra**. Izenburuan emaiten diren izenak eztitut, batzuetan aski ausartki egiten den bezala gaur-egun, bere molde zaharretik aldatu: Garaztarrarena berak emaiten baitauku luzaz gure eskualdetan atxiki duen moldean, eta Mauletarrarena (sortzez), Erdi-Aroan euskalde hauetan ere hainbertze erabilia zen **Arnalt** - eta hau gaskoinduz "Arnaud ofiziala- izenaren ondorio guti aldatua, Jusef Eguiateguy-k XVIII-garren mendean: "*Mosde Arnalde Oihenart*"; emaiten badu ere urrunago *Arlande,* erran nahi da izenaren forma aldatzen eta nahasten hasi zela XVIII-garren mende ondarrean, ez XVII-garrenean.)

Sarrera.

Badakigu 1967-tik hunarat, P. Lafittek **Olerkigintzako eskutitza** ("**L'art Poetique basque, Indiquee dans une lettre escrite a Un cure du pays de Labourt au moys de mai 1665**", *Gure Herria* 1967, orr. 205-229) agertu zuenez geroz, Oihenartek ezagutzen zuela hurbiletik Etxepareren olerki lana, eta idazkitik apur bat gehiago ere; eta kritikatzen zuela gehienik olerkaritza zuzenaren erregeletan zituen hutsen gatik, bainan ere, doi bat, gaian eta funtsean berean.

Garaztarraz egiten zuen aipamena, egiazki hirugarrena zen. Izenik ezpazuen emaiten, hura zuen lehen-lehenik gogoan **Oihenarten gaztaroa**-n, 1657-an beraz, **Irakurtzaileari** eskaintzen zuen aurritz laburraren hastapenean: " *Au lecteur. Combien que les Basques ayent assés d'inclination a la Poésie, si est ce qu'ils ont fait si peu d'estat iusqu'icy d'en observer les Regles, et mesme de les connoistre, qu'en tout ce que nous avons, soit d'imprimé ou de manuscrit de leurs ouvrages poétiques, il y a fort peu de Vers qui soient réguliers...*"

Urte bat lehenago, 1656-an, **Notitia**-ren bigarren argitaraldiko XIV-garren kapituluan, erakutsirik zein ziren hitz eta neurtitz "emeak eta arrak" euskaran ("*faemininos, masculinos*"), doi doietarik ezpazuen jadanik Etxepare izendatua: "*Solent vulgares versificatores, ut versus* ***masculinos***, *quos vocant, faciant, syllabas finales, naturâ breues, producere, ut in hoc exemplo:*

Uztazu hurrentzera amore maité,
Orai partitzeco damu ginanté,

Author horum versuum ambas syllabas, ***te****, finales, naturâ suâ breues, longas fecit; quod vitium est in carmine non feredum*", edo nahi bada euskaraz: *Obi dute neuritzlari jendetarrek,* **arrak** *deitzen dituzten neurtitzen egiteko, azkeneko silaba bere baitarik laburren emaitea, adibide huntan bezala (...) Neurtitz hauen egileak* **te** *bi azken silabak, bere baitarik laburrak, luze egiten ditu: hau baita olerkian ezarri behar ezten hutsa*".

Aipamenak izena balio du: orok dakigun Etxeparen hamargarren olerkiaren (**Amorosen disputa**) hastapeneko biekoa baita (akzentoak Oihenartenak dira), eta beraz huna "vulgares versificatores" guzien nagusia nor den! Hots, Oihenartek, aipatu baditu ere XVI-garren mendeko bertze olerkari garaztarrak, eta berantagoko lapurtar zenbait, azpimarratzen zuen Etxeparek euskal literaturan ordukotz bazadukan lehentasuna. Aldi berean azkartzen bere kritiken indarra.

1665-eko eskutitzeko xehetasun batek badema erakustera Oihenartek bere aitzineko olerkari "jendetarraz" zuen ezagutza, etzela bakarrik liburuetakoa, irakurtzetik ateraia. Hau baitio: "*Ie collige tant de la qualitté de sa rime, qui est foible et imparfaicte, que* **du ton et de lair auquel il faisoit chanter ses Vers** *qu'il a Creu les faire masculins ...*"; eta aipatzen ditu hutsak: erriman beraz, eta ere neurtitzaren hauste 'ta gelditzetan ("*Les Cesures et les repos de ses Vers sont aussy Irreguliers, en plusieurs Endroits*"), erranez nola Etxaparek derabilan (ez beti, baina gehienetan)

hamabortzeko neurtitza, ezezaguna dena olerki frantzes, italiano eta españoletan, eta gutiago ("*Encore moins*") latinetan.

Nolaz zakien bada Oihenartek, mende bat eta gehiago iraganik (eta zer mende gertakariz eta aldaketaz betea, Euskal-Herrietan ere!), zein "doinu eta airetan kantarazten" zituen Etxeparek bere neurtitzak ? Huna ixtorioko, eta literatura ixtorioko bereziki, mixterio ttipi bat. Badaiteke bizkitartean erantzuna aski errexa dela, orhoitzen bada nor izana zen Juana Erdoikoaren lehenbiziko senarra, Oihenartek berak ezagutu zukeena, 1616 Parisetik itzultzean hil baino lehen: **Jean de l'Hostal**, "vice-chancelier de Navarre" kargu ohoragarriarekin (*ainsi est nommé le président du Parlement de ce Royaume* "dio Nicolas de Bordenave Joana Labrit eta erlisioneko gerlen ixtoriogile biarnesak: **Histoire du Béarn et de la Navarre**, orr. 142), garaztarra zen, Buzunaritz **Apate**-ko jauna. Apateko jauregian erraiten dute oraino Sarasketa **Etxepare** aitoretxekoekin eta gure olerkariarekin hangoa bazen usten den bezala, jendakian zirela (nahiz dokumentorik ezten aitzinatu horren borogatzeko, erran behar da oraino bi etxeak ahaide beren eskuetan direla). Oihenarten jakitatea gauza hortan etxeko eta ahozko tradizione bizietarik heldu zaitekeen.

Olerkintzaz harat, bazuen Oihenartek erasia gotorrago bat bere aitzinekoarendako, hau moraleko eta erlisionekoa, bakarrik delako eskutitzean agertzen dena. XVII-garren mende erditan harat, Luis XIV-garren errege "guziz girixtinoaren "gortea itxuraz (baita zer erran egiaz...) beharbezalakatua zen ("bienséance" delakoa), erresuma ere "debozinoari" emana, kontra-erreforma betean; gogo-aldatze horren lekuko hor ditugu aro hartako hainbertze euskal idazle elizatiar. XVI-garren mende hastapeneko gogo libroa urrun da orduan, Rabelais, Marot, Ronsard batzuena (oro guti edo aski elizari hurbil). "*Un Veritable Ecclesiastique*", Etxeberri Ziburukoan ikusten du Oihenartek, olerkigintzan ahula izanik ere, xeheki aztertzen duen bezala. Etxepareren liburuko bigarren zatiak eztu egokitasun bera alde hortarik: "*La premiere (partie) contient quelques fragments de La Doctrine Chrestienne, Et l'autre (outre les regrets de la complainte de son Emprisonnement)* **des Vers d'amour assés mal seans a Un Ecclesiastique, et surtout a Un curé ayant charge d(')ames**. "Huna beraz bi olerkarien arteko auziaren bigarren arrazoina.

Ezin errana da, ene ustez, auzi horren xahutzeko, edo Etxepareren hutsen zuzentzeko, eta hura bakarrik gogoan egin dituela Oihenartek bertsu guziak. "hontu koblak". Bada alta, olerkigintzan eta handik kampo ere, bien arteko estekadura erakus dezakeen arrazoinik. Hori da bilatuko, ahal bezanbat mugatuko, ikertuz 1) lehenik ageriena: olerkigintza bera eta liburuen egitura; 2) bigarrenik erlisioneko olerki gaien hautua eta berezitasunak, ikusiz biek neurtitzetan eman duten gai ber bat: "hamarkuna" edo "dekalogoa"; 3) hirugarrenik maitasunaz eta "maitariez" dematen itxura ezberdinagoa; 4) azkenik ere, ondoriotasunetik urrunago, Oihenartek ekartzen dituen berritasun ohargarri zenbait. Eta horrela aterako gira doi bat, agian azterketa klasiko eta eskolastikoen "paralelo" ohituetarik.

I. Neurtizkintzatik liburuaren egitura osora.

1. Neurtitzaren moldatzeaz eta errimaz

Oihenarten olerki erregeletan, gauza aski ezaguna delakotz eta aztertua jadanik han edo hemen, doi doia orhoitarazten da: 1. silaben zenbaki zuzena jakinez sinalefa eta elisioneak beharrezkoak direla (latinean, italianoan eta españolean bezain hertsiki, dio, eta edozein olerki klasikoekin egin daitekeen komparaketak erakutsiko du argiki, aurten ikasle zenbaitekin Gongora-ren XIII-garren zonetoaz baliatuz egin dugun bezala), eta ez idazlearen hautura egitekoak, hauste ' ta gelditzeak berdin; 2. errimaren aberastasuna, jakinez silaben luzetasuna ere behar dela gogoan ukan, eta hortik errima "lerrakor, eme, arrak", gero'ta xehekiago aztertu dituenak **Notitia**-tik 1665-eko eskutitzera.

Ohar gaiten bizkitartean Oihenartek eztituela arau horiek erdal olerkigintzari hartu bakarrik, bainan ere euskarazkotik: hortakotz goraipatzen du "*Le Père haramburu cordelier*", nahiz errimak aberastasunez ("bederen silaba bat eta erdi") ahul utzi dituen, eta, ohargarriago dena ene ustez,



euskal olerkigintza izengabe (ezpadut huts egiten?) zaharra, nabartar (*"Andr'Emili..."*) eta bizkaitar (*"Atseyn andia da amore Eutea"*) adibidek derakutsaten bezala. Nolaz galdu da, "jakintsunagoak" izan behar zuten idazletan, zuzentasun horren axola? Horra iduriz zergatik Etxepare 'ta bertzeak hutsean diren.

Eta Oihenarten lanaren zuzentasuna, alde horietarik, "bethegina" agertzen da, eta nahi den bezain eztabadagarria bada ere euskal akzentoaz diona orokorki eta euskalki batetik bertzera (*"problème très ardu...dans nos chansons...on agit comme si toutes les syllabes s'équivalaient"*, dio Lafittek, op.cit. orr, 204; bainan ez ote da hau aire zaharren neurkadarekin batean aztertu behar? baditugu ikasleak, orai, gai huni lotzen ari direnak bere tesietan, artetik aipatzeko). Badira ere lanak lehenago edo orai agertuak, bai Etxepareren huts edo bederen ezberdintasunetaz, eta Oihenarten erregulartasunaz, hemen berriz xehetasunetan sartze beharrik ez izaiteko.

2. Neurtitzaren luzetasunean, Oihenartek eztu aipatu Etxeparek erabili duen **hamabortzeko** neurtitz luzea baizik, ikusi den bezala. Egia da Garaztarraren olerkia gehienetan horrela moldatua baldin bada, azken olerkietan badirela ere zenbait neurtitz laburragoetan: hirueko ezberdina edo kopla zaharra bi neurtitz laburrekin (n. 9, 14) eta bereziki hamekakoa (n.10, 11); guti nahi bada, aski olerkigintzan hamabortzeko moldatzen baino zerbait gehiago bazakiela erakusteko.

Alde hortatik, aski argi dago Oihenarten xedea: nahi izan du ahal bezanbat aitzindaritik urrundu, ezpaitu behin ere erabili ez hamabortzekorik bertsu osoan, ez eta hamekakorik ere (dakigularik ohituenak direla olerkari "jendetiarretan"!).

"Urrundu" bai, osoki berexi ez: hirueko ezberdinaren neurtitz luzeak baditu hamalau silaba (bi neurtitz-erdiak berdin 7+7), bat gutiago bakarrik; hobeki, behin baino gehioagotan (IX, XI, XIV, XX, XXI, XXV) nahasi ditu, molde ezberdinetan, zortzi eta zazpiko neurtitzak, erran nahi baita Etxepareren hamabortzeko luzea erditik hautsi duela, oharturik errimaren beha bezala zagola hemiztikioa, eta ainitzetan bazirela han "barneko" errima edo asonanzak: molde iduriz "erdi-bethegin" hori, badiduri betheginerat ereman nahi izan duela. Berezikiago ageri da XXIV-garrenean, zortziko zuzenean, zortzi eta zazpi silabak errimarekin batean aldizkatuz, beraz Eguiateguy-k zion *Zaharraro*-an, menturaz, neurkada zaharrerat bere gisan itzuliz.

Bainan, orokorki behatuz, Oihenarten neurtitzaren luzetasun zuzena guti gurutzatzen da Etxeparerenarekin (hunen **Kontrapas**-eko) laueko iduria dudazkoa baita: errepikatuz, zortzikoa !), laburrenetik hasiz: 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 12 eta 14, hau bakarrik kopla zaharrean, nahiz Oihenartek zion, huts eginez aldi huntan, "errima bageko neurtitza" zela hirugarren neurtitza, beraz zazpi silabako biga, hamalaueko baten orde! Ez, etzen bere nahitan gelditu guk uste dugun bezain garaztarrari hurbil! Nahia, gogo-argikoa, neurtitz labur egitera emana zuen, dudarik gutiena gabe.

3. Bertsuan (berak *kobla* edo *kopla* deitzen du), ikusi denaz, urruntasuna ttipitzen da, bereziki delako kopla zaharraren erabiltzetik. Eta ere Oihenartek baititu laueko zenbait (VI, VIII, XVI, XXVII) nahiz neurtitzetan beti ezberdinak, beti errimak aldizkatuz, eta beti zuzenak, bortzeko, seiko eta zazpikorik nahasi gabe Etxeparek bezala (kantatzeko nola egin behar zen?). Balaiteke menturaz hemen ere lehen begi ukaldiak ezterakutsan berdintasun edo bederen iduripen bat: Oihenartek, nahi izan ditu kantu molde zenbait bertsutan itxuratu, bere errepika ageriekin (I, XXV), edo bi neurtitz berex emanez (VII, XXIII), bainan bertsu guzietan. Orduan orhoitarazten du Etxepareren hastapenetako diztikoaz; zer balio zuen? ala doinuaren emaitea? egiazko errepika? Hau ezta argi **Kontrapas**-ean baizik; aski Oihenarten bildumarekin lotuaren egiteko (ikus errepikaz zer dion eskutitzean, op. cit. 215). Jakinez, alta, hunek aitzinekoaren olerki egituraren ondoan (edo kampoan) zauden kantu ereduak, nahi izan dituela bertsuan berean, bertsuaren "barnean" eman.

Eta hunengatik erran daiteke eztuela Oihenarten bertsuak musikan emaite edo kantatze beharrik, Ronsard batenak baino gehiago; bainan, hunek "polifonia" hartu zuen bezala bere aroko musikari handienen ganik, har lezakeeka menturaz, nahiz olerki jakintsunaren musikan emaiteko "moda" urrundua zagon jadanik XVII-garren mendean.

Hitz bat behar du ere Oihenarten bildumak dadukan olerki Etxeparenetarik urrunenak: erran nahi da Zalgizeko jaunaren ohorezko zonetoak. Gauza ohargarria segur: etzuketen ahantzi ez Larramendi batek (Oihenarten izena osoki ixiltzen badu ere), ez Eguiateguyk (baina hunek "irakurtzaleri" egiten duena "*hamalaurdun*" hutsa da, ez zoneto zuzena).

4. Bildumaren egitura.

Eztakit aski ohartu denez iduriz bitxikeria huni: Etxeparek eman zuelarik, Oihenartek berak dion bezala (ikus gorago) liburua "bi partetan zatiturik), lehenean doktrina girixtinoaren zatiak, bigarrenean maitasunezkoak (eta ere presondegiko "*kexua*", Oihenarten hitzaz baliatuz), Oihenartek ere mean zituen bi zati, baina gaiak alderantziz, lehenik maitasunezkoak, bigarrenik "*Iainkoazko neurtitzak*", erdaraz "*Vers de Devotion*" (eta aurritzean "*quelques rimes pies*"). Baionako liburuko olerki berriek (zaharrarokoek, menturaz) eztute egitura hori ezabatzen, hortarik kampo baitaude, nahiz bere erran-nahiarekin ikusiko den bezala Oihenarten gogoan.

Ageri da zerbait moldez aitzineko liburuak duela ondokoa manatu (eta jakin gabe molde bereko bertze libururik egin zenez bien artean: balirudike, hala izan balitz, Oihenartek etzuela hoinbertze azpimarratuko **Primitiae**-ren planoa, edo hau bakarrik). Nolaz ?

Hemen baldintza zenbait aitzinatu behar da: edo erakusteko hobe zela neurtitz mundutarretarik "Jainkoazko"-etara goititzea, alderantziz jaustea baino, nahi bazen morala publikorateko eta erlisioneko lan egin, eta horra zehatz-bide bat, jadanik, egitura formaletik haratago. Izan daiteke ere Oihenartek ttipitu nahi izan duen bere jakintza doktrinala; hor du aipatzen bere olerkari ahultasuna: "*pour exciter ceux qui ont plus d'affection et d'aptitude que moi à la Poésie, à en faire de meilleures, et en plus grand nombre*".

Bainan orduan, zenbait erlisionezko olerkiek huts ezpadagi azken olerki betegarrietan, bertze ondorio bat ere gogoratzen da: erlisioneari behar zen agur eta ohorea eginik, Oihenart itzultzen da bizi mundutarrera, eta ere menturaz, XXVI-garrena den **Laur karbarien eresia**-n, doi bat haratago oraino.

Bi zatien artean, Etxeparek ezarri zituen, iragan-bide bezala, **Amorosen gaztiguya** ("*Bercec berceric gogoan eta nic andredona maria...*") eta **Emazten fauore**, orotara 208 neurtitz. Oihenarten iragan-bidea zer den, ageri da, nahiz laburrago (128 neurtitz) bakarra delakotz: **Ezkontidearen hil-kexua**, emazte baten (berearen) laudorio eta "fabore" segurki. Hunek berak ere menturaz badaduka Etxepareren presondegiko "kexuaren" lekua, hiztegi laburrean **kexu** "*complainte*" itzultzen baitu ere, eskutitzean presondegiaz deman hitz bera ! Presondegia, Oihenart legetiar eta erregetiarrak, Donapaleuko jujeak, ezagutu bazuen bere aldian, guti eta ez legearen kontra joanik; ez Errege katolikoaren alde izanik, Etxeparez borogatua den bezala Nabarrako gerlan; eta badakigu aski Oihenarten lanetaz, orai, jakiteko Espainiako erregeren Nabarraz "zuzengaizki" jabetzea zela ukan zuen politikazko kexu ez bakarra, baina handiena, eta bizi guzikoa! Bazakiena ere, ote, Etxepareren biziaz zerbait, olerkiak dion baino xehekiago? Galdea erantzun gabe utziko da, jakingabean; baina zer muga hemen bien artean.

Azkenik oraino, ohar gaiten Oihenartek ezarri dituela bigarren bilduma ondarrean olerki "ttipiak" ..., Etxeparek bezala, eta eztutela egite bakarra ttipitasunean, bainan gaian ere: hemen da aipatzen euskal literatura, batek bere burua ("*garacico natura*") goretsiz euskarari hastapenak emanik; bertzeak, bere burua aitzinaturik XVII-garrenean Museen izena "*hospatu*" eta Euskal Herrian ezagutarazi zuelakotz, Arrain et Zalgiz poetak: hau bertzek "*doi basia*", agian Etxepare hetan "*burutara*" ereman duelakotz (zertan hori, Zalgizen olerkiak galdurik, salbu atsotitzak? ezta-

kigu zorigaitzez). Noradino egitura hori hausten zuen azken olerkiak (**Jorraken koblak**), hau ere galdurik izenburua salbu, ezjakin berdinean gira. Iduri du bizkitartean etzela Etxepare Oihenarten gogotik osoki ateratua bigarren liburu ondarra moldatu zuelarik.

II. "Doktrinaz"

Erlisioneari buruz ezberdintasun handienean dira bi olerkariak, katolikoak izanik ere, orok dazkiten bi arrazoin nagusien gatik: 1) bat apeza baita, bertzea laikoa (lehenbizikoetarik euskal letretan); 2) Etxepare Erreforma aitzinekoa, Oihenart erlisioneko gerlen ondokoa eta Kontra-erreformakoa. Noraino ikus daitezkeen baldintzan horien ondorioak bi bildumetan jakiteko eta xuxen ikertzeko, behar da izan erlisioneko gauzetan ni nizan baino ixuriagoa. Hortakotz hemen aterako diren oharrek ukan dezakete "gaingirotasun" zenbait euskal idazlek aski maite duten "axularki" bat erabiliz. Edozein idazleri etzako egintza bat eskapatuko: Oihenartek nahi izan duela bere moldez berridatzi Etxeparek (eta adibidez gero Leizarragak eta bertze) itxura guzien arabera lehen aldikotz, neurtitzetan ezarria zuen "dekalogoa".

1. "Hamar manamenduyac eta Hamarcuna edo Iaincoaren manüac".

Etxeparek moldatu zuen egitura, xoila zen eta arrazoinezkoa: hamar neurtitz luze eta hamar erranaldi oso, manamendu bezenbat (214-223); eta hamar manamenduak ziren **Iudicio generala**-n sar aitzineko azken muga, arrazoinez ere. Oihenarten liburuan hamarkuna *alpha* da, erlisioneko gauza eta neurtitz ororen hastapena (elizaren manuez osaturik, ikusiko den bezala); eta behar ditu, zenbaki sinboliko xoilari bizkarra itzuliz, hemezortzi zortzi silabako neurtitz (ohartzeko da azkenean Etxepareren silabak direla gehienak, gutiz: 150, Oihenartek 144; laburpen ttipi, baina laburpen, iduri gabean). Hemen hamarrak bat bertzearen ondotik emanez, Etxepare lehenik, ikusiko da ohargarriena eztagola hortan:

1. "Adoreçac iangoyco bat onhestz oroz ganetic

Iaincotan bat huts iauretsac

Eta bertzeric zinhetzac (sic)

Iaincoric ez Iaincoaizunic

Ezin datequiela hunic.

(Oihenartek laueko hau berex emaiten, bertsu moldean.)

2. Haren ycena ez iura causa gabe vanoqui

Haren izen'alferretan
Ez erabil eur'elhetan,

3. Ygandiac eta vestac sanctifica devotqui

Igand'egun',orhituqui,
Iragan ezac sainduqui

4. Aita eta ama ohora içac vici yçan lucequi

Ait'et'am'etzac ohora,
Vizitzeco anhitz dembora:

5. Ehor erho eztaçala ezetare gaycetsi

Ezadil', erhaiten ari:

6. Norc beria vayecila emazteric ez hunqui

Ezizal'ohaidecari,

7. Vercerena eztaçala ebaxi ez eduqui

Ez' ohoinkeri'egile,

8. Fama gayciq eztemala lagunari falsuqui

Ez guezurrezco iaquile,

9. Bercen emazte alabac ez desira gayxtoqui

Et'eztezala desea,
Nehoren er'emaztea

10. Eçetare unhasuna lecot bedi iustoqui.

Alhor, motil, nezkatoa,

Idi ez on gaineracoa," (sic: azken gakotxa edo hutsa da, edo lotura egiten du ondotik heldu diren **Elizaren manu**-ekin.)

Beranteko leitzoneak eztu aitzineko hutsa xahutzen, legeak zuzengaitz iraganekoa zuzentzen duen baino gehiago: eztugu beraz erranen Oihenartek bere aitzinekoaren ondorioko izaiteko orde eta haren ikasle, erakasle agertu nahi izan duela. Derragun bederen aitzinatzaile, bainan iduriz aitzinekoaren huts eta gaizkiak nola zuzendu behar ziren erakutsiz, eta zehatzaile.

Ezberdintasun agerienak neurtizkintzakoak dira eta hizkuntzakoak; eta ezpada ere hemen ikertu behar den gai berezi eta mugatua, artelan bezala emaiten dira laburpenez.

Neurtitzean, aldaketa osoa errana da: erditik egin du Oihenartek hamabortzeko luzea zortzikorat ttipituz; bainan ere berdintasuna ezberdindu du: laueko bertsu zuzena lehenean, bi neurtitzeko erranaldiak bi, hirur, laur, bederatzi eta hamargarrenean, eta neurtitz bakar bat "arteko" bortz, sei, zazpi eta zortzigarrenetan. Galdatzeko da orduan hea egitura hori eztetika hutsezkoa denez, ala ere baduen zer ikus gogo xede zenbaitekin.

Elisione 'ta sinalefa guziak eginez (Etxeparek hain ezberdinki dematzanean: hiru laurgarrenean, bertzerik baterez, aldiz dieresia ahozko moldeak sineresia hobe zuelarik: 3 *ygandiac*), errima aski aberatsak zuen aldatuz (Etxeparek asonanza bakarra du **-i**, nahiz errima iduriekin nahasia: **-qui (-ki)** hamarretatik zortzietan)...

Bai, baina Oihenartek baliatu du ere aitzinekoa, bereari emanez haren oiharzun bat baino gehiago: hastapeneko lehen hitzak (*ador**eçac***) eta azkenak (*gaynet**ic***) baliatu ditu lehen bertsuaren moldatzeko (**-etsac, -unic**) eta oraino "barne errimako" (*bertzeric, Iaincoric*); gero baliatu du ere asonanzan den **-(u)qui** (2, 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10) aberastuz (**-uqui** errima hirugarrenean). Bainan ezta errima bakar bat bietan baino gehiago, erregelari jarraikiz.

Eztu atxiki aski ederra zen **Ehor erho** (5) itzulia; bainan ohartzeko da bertze zerbaitek ordaintzen duela errima 'ta soinu paralelo aberatsean: **Ezadil', erhaiten ari:**

Ezizal' ohaidecari.

Hizkuntzako aldaketak ohargarriago dira, nahiz hemen ere baliatzen duen Etxepareren laugarrena hitzez hitz (alda ote zezakeen, nahi izan balu? uste dut baietz!), bainan bakar bat lekuz aldatuz, hiru elisione 'ta sinalefa emanez, Etxeparek bezala eta neurri berean, nahiz hunek laugarren bat huts egiten duen (zortzi silaba: **Ait(a) et(a) ama ohor(a) içac / Ait'et'am'etzac ohora**).

Hitz errepikak bereziki aditzetan (**eztaçala** bietan, **ezetare** ahozko laburpena ere) ezeztatzen ditu (**ezac, etzac, ezadil', ezizal', eztezala**): **ez** da azkenean errepika bakarra bi olerkietan.

Gramatikazko bitxikeria zenbait ere: **luzequi** aditz-ondo ohi gabea (**luzaz, luzez**), **vayecila** (ikus bizkitartean Oihenarten XXI-garrena), **gaycetsi** erro ordaina (**ezan** laguntzaileak behar luke **gaitzets, onhets** lehenean den bezala; berdin **ebaxi, eduqui**).

Bainan hiztegia du Oihenartek gehienik aldatu, eta ez "garbitu" erran ohi den bezala (ezpaita garbi ez zikinik hizkuntzan, hutsak baizik), bainan "euskaldu". Erdalki behar gabeak, hain usu lehenagoko idazkietan eta bereziki elizakoetan, baztertu ditu: **adora, iura, causa, vanoqui, sanctifica devotqui, fama, falsuqui, desira**; hautatu eta atxiki edo euskal hitzak (**iaurets, alferretan, erabil, gezurrezko iaquile**) edo euskaran ohituagoak (**sainduqui, ohora; desea** "iberismoz" hautatu duke...).

Zuzenketak diren horien ondoan, euskal hitz zaharrak sartu ditu bere gordintasunean: **ohaidecari** (ikus zer dion olerkietako hiztegi laburrean), **ohoinkeri(a), alhor, motil, nezkato, idi**. Eta nork eztu ikusten hemen egunoroko bizi guzia dela sartzen, "fazoinik gabe" erran ginezake, bainan ere (protestantismoaren erreformatik atera baitzen Kontra-erreforma!) Bibliako hitz zuzenak? Ikusiko da orduan, hemen ikertzen den gai zuzenerat itzuliz, zein den jende xoilari hurbilago, Garaziko bikario jenerala, ala Donapeleuko abokata...

2. Eginbide 'ta erlisione gaien mailak.

Manamenduetako erlisione gogo hortaz nahi banu zerbait erran, teologian den gutienik sartu gabe, agerian den hau lizate: Oihenartek zabaltzen duela lehenbizikoa, pizuena dudarik gabe erlisioneko, bertze zenbait ttipitzen (erhaite, ohaidekaritza, ohointza, gezur). Orhoitarazten dauzku Axularrek zabaltzeko hautatu zituen zazpietarik hiru bekatu kapitalak, gogo bakotxak balu bezala bere baitako ikuspegi bat erlisioneko eginbideari buruz. Eta berdin ere Leizarragak, kalbinismoen molde bipilean Jainkoa bera mintzaraziz ("ministre de la parole de Dieu" zen), lehen manamenduaren hastapena emanik labur-laburra ("*Eztuc ukanen niçaz berce Iaincoric ene aitzinean*"), orrialde erdi batetara zabaltzen duenean gero Oihenartek aipatzen zuen **Iainkoaizuna**, protestantek hain hastio zituzten elizako irudietara hedatuz ("*Eztraucac eure buruari imagina ebaquiric eguinen, ez irudiric batre ceruán garayan diren gauzcenic...*").

Kontra-erreformako izpiritua erakusten du menturaz Oihenartek emaiten dituelarik berehala ere, eta **Hamarkuna**-ri loturik iduriz gakotxa batez (ikus gorago), zortziko berean, bainan laburrago (14 neurtitz), **Elizaren manüak**. Eta hortan gelditzen du "doktrina" bera, beharrenean eta oinarrian. **Otoitzetaz** (**Les Essais**, XVI, "*Des prières*") idatzi zuen entseguan, Montaignek (eta orhoit gaiten Bordeleko auzapez aipatua Oihenart sortü zen urte berean hil zela), bere katolikotasun zintzoan, debozionea eta erlisionea erakusgarri eta ikusgarri bilakatuak ziren aroan, zion otoitz bakar batez baliatzen zela: "*Le patenostre* (...) *C'est l'unique priere de quoy je me sers par tout, et la repete au lieu d'en changer*".

Gaineratekoetan, osoki XVII-garreneko moldean, Etxeberriren **Noelak** eta bertze lekuko, ohargarrienik **Eguberri-koplak** dira, utzi duen olerki luzeena (168 neurtitz). Uste dut hemen dela Oihenartek Etxepareren **Iudicio generala** eta "*Andre dona Mariari*" dagien **Oracionia**-ren lekua hartzen duen olerkia. Mariaren erlisionea aitzinatu zen Erdi-Aroan, diote zenbaitek, amodio kortesak emazte maitatua sobera goratzen zuelakotz. Eztu Oihenartek holako erlisione sendimendukoia: xoila, jendetarra, gizatarra izaitekotz, hau baita, Jainkoaren gizontasuna, ederkienik erakusten duena, egin duen bertsu molde landuenean (seieko ezberdina, lau silabako neurtitzak dituen bakarra: 8-4-7-8-4-7, bi errima jarraiki eta lau besarkatu):

"*Hanxe guizon-iduritan*
Gauerditan
Iesus iaio zekion,
Mihiscando oihal lodiz
Abel odiz
Obacoa zeguion".

Gehitzen bada gurutzearen parafrasia (**Vexilla regis**), huna, ez nahi bada doktrina, baina Oihenarten erlisioneko sinesmenaren osagailu xoilak. Etxepareren "doktrina" hiru mailetan zen: bekatua (gizakia) beherean, ararteko Maria, ororen buru judizioa (Jainkoa); Oihenartena ere: Jainko legea, Eguberriko jaiotzea, gurutze salbatzailea. Zimeonen kantuko itzulpenean, behar da ikusi menturaz Oihenart "zahartuaren" ordain bat. Urrun dabil, hasteko, Etxeparek ala Axularrek zabaldu zituzten erlisioneko irudi izigarrietarik, judizio ala ifernu (egia da etzuela Oihenart laikoak "arimen kargurik"), eta berdin urrun maitasun gizatarra eta doktrina elgarri lotzen dituen erlisione sendimendukeriara ixuritik.

III. Maitasuna eta maitaleak.

1. Maitasuna, bekatua eta beharbezalakotasuna.

Gauza agerienak begitik ihes doaz, ezpada ohartzen Etxepareri ohian, eta arrazoinekin, emaiten zakon ausartziaren ondoan, nola erakusten duen egiazki maitasuna erlisioneko doktrinaren barnean: bekatu zabala, noizpait, ahal bezain laster baztertu behar dena, nahi bada judizioan "*seculakoz damnatu*" (I 365) izaitetik bere burua begiratu. Erran behar da Etxeparek erakusten dituen maitasunak, zuzenbidez kampokoak direla, ezkontzaz kampokoak bereziki, Erdi-Aroko amodio gortesaren moldean (Tristan eta Yzolt ala bertze); edo Etxepare apezak berak ezagutu molde berean (2, 7: *Nihaurc ere uqhen dicit ceynbayt*

ere amore" aipatu neurtitza noradino den aitorra, dirudienez, ala ez, jakiteko gaitz da), edo (eta menturaz) segurrago maitasun gizatarra bere baitarik eta hastapenetik eskasa eta ahula delakotz (id. 11 "*Amoretan othe date leyal denic batere ?*").

Olerkietan erakusten dituen maitalek berek - eta ezta uste izan behar olerkaria bera dela mintzo maitasunezko elgarrizketetan !- olerkariak bezala (id. "*Beqhatuzco amoria bethi date traydore*"), aitor dezakete zenbait aldiz hutsean direla: adibidez 4, 26 "*Nic eztaquit berciac vana ny ary niz bequatu*";

10, 19 "*Beccatu honetan hilen baguina ...*". Hastapenetik izenburuak erakusten zuen Etxepareren xedea: maitasunaren eta maitarien "**gaztiguya**", erran nahi baitu kritika. Eta maitasunezko kasu berezi, gertakari, gutizia eta sendimenduen erakustean, egiazko bizitasun eta aro hartako gordintasunean bada ere, eztu xedeari uko egin, bainan hastetik salatu duen maitasunaren ezteuztasuna borogatu.

Oihenartek erasiatu duelarik eskutitzean Garaztarraren ausartzia ("*Vers d'amour assez mal seants a Un Ecclesiastique et surtout ayant charges d(')ames* ") gordintasun hura zuen gogoan: izanik ere bakarrik hitz eta gauzetakoa (gogo xedeak osoki moralixtak, "ortodoxoak" baitira ikusi den bezala), etzen onhargarri Kontra-erreformako beharbezalakotasun zintzoan, delako "*bienséance*" aipatuan. Beharbezalako olerkietan, euskaldun ala ez, guti da, emazten laudorio aldi berean Erdi-Aroko gortesia eta Berpizteko gogo berrikoan (**Emazten favore**) aurkitzen den irudi "*bayn eder eta placentic*" (3, 55-62). Etxeparen maitariek badakite zenbait aldiz mehatxatzen, bortxatzen, hasten bederen (8 **Potaren galdacia**), eta ere, gehiago dena, maitasunezko egintzaren betetzen, olerkiaren erdian (10, 66: "*Hiçac haribira dugun eguina*", 67 "*Oray eguyn duçu nahi duçuna 68 eman derautaçu ahalgueyçuna*").

Oihenarten maitasuna, mehatxu bizi bat salbu (X 45) bainan hitzetan gelditzen dena, jendetasunaren mugetan dago; hiru gorputzen irudiek, hainbertze XVI-XVII mendetako olerki eta margoetaz orhoituz, gorputza erakutsiz "burutik aztaleraino", badakite hitz pollitez, gordintasunaren ezeztatzen: X 30 "*Eztazkit ezterrazket, gordailluan daunzanac*"; XIII 55 "*Balin balu, sabela / Garbi nerraque dela, / Ezi, segurtatzeco, eztu ezagun düela*". Gerta daiteke irudi baten sinbolismoak duela entzun-arazten maitasunaren indarra, hala nola "*kadran-orratza*" III 25-36, eta maitasunezko ametsa hitz batez ("*bait'are lotzean*"). Azpi-erranaz baliatzen da **Karbarien eresian** XXVI 54 "*bait'egin karb'aldi bat han harequi*".

Egia da Etxepareren olerkiak gogoan zituzkeela bizkitartean, erakusten zuenean maitaria gambaran sarturik andereari hurbiltzen, eta hau oihuz "*zuc heiagora / Eguiten duzu*" V 36-37 (ikus Etxepare VIII 21 "*Eyagora*"). Edo maitaria mintzarazten zuenean, mundua lekoku hartuz, **Maitenaren hil-kexua**-n VI 21 "*Icus, gende hounac, ikus ene pena*" (Ikus Etxepare XII, 45 "*Gende honac*"); eta oraino VIII-garrenaren galdezko sarreran 1-4: "*Zenbat leihorra zabal bata* (...) *eracutsico zaita* (...) *Ni nizan bezain, zori gaitzetacoric ?*" (ikus Etxepare XII 45 "*Egundano yçan daya ni bay dichatacoric ?*"). Eta horrelako bertze itzuli zenbait (Lafonek erakutsi zuen bertze hau: Etxepare IX 24 "*çor handian gaude*", Oihenart II 72 "*Zeren zordun zauden*"). Bainan ez ote dira maitalen elheak eta arrazoinak, sendimenduak bezala, orotan, eta bereziki literaturan, beti berdintsuak? Donapaleutarrarenak, bizkitartean apainduago, naturalezako edertasunez bereziki (oihan, haltz, sagartze, pikotze, arrosa, julufrai, mohuri, orsto, "*ekoizpen*" eta lore), eta ere, apaindura ohiz kampokoagoa, bizi arrunteko gauzetaz (arraultze, ezne "*ulutzu*", gisu-labe...).

Bainan auherretan da bilatuko Oihenartek maitaler, mutil ala andere, emaiten dezteien elhesendimenduetan den gutieneko ogenduntasuna. Hemen ezta maitasun debekaturik, aitamen baimenik gabe ere (VI, VIII), ez bekatuaren aipurik: inozentzia hutsean daude maitariak. Bai eta ere doi batez mugak iragaiten dituztenean, laugarren karbariak eta motil gazteak bezala (ikus XXVI 52-57). Oihenartek bere alegiazko (bederen olerkaritzako) "*gaztaroan*", emaiten du Donjuanismo-ra (nahiz andereak "**gorrik**" dauden gehienetan!): Margarita, Argia, Xuria, Graziana, Beltxarana, Joa-

na, "Ederragoa"... eta izendatu gabeak... sobera, menturaz; egia ere maitasuna eta maitariak zenbaitetan irrigarri direla, Oihenarten ironia iratzarri, gauzak erranak "*cum grano salis*", gatz pikor batekin!

2. Maitaleak eta maitasuna.

Errex da ikustea alde batetik Etxepareren anderen izengabetasuna bertzetik aitzinean erran den zerrenda: Garaztarraren "*andre eder jentila*" izengabea da, segeretukoa delakotz, maitasuna debekatua. "Jentila" lehengo erdal hiztegian noblea zen (Oihenartek Joana Erdoikoaz erranen du bakarrik "*aitor'alaba*"): maitasun gortesean gira (XII 6), menturaz Garaziko jauregietan. Mintzo dira zenbait aldiz aski azkar, "to"-ka, beti "zu"-ka ari zaienari (VIII, XII). Badira gazteak ("*Gazte çoroa nyçan arren*" XII), eta ezkonduak, bederen anderetan.

Anderen aldetik, maitaria beti (salbu VIII-garrenean) "O(ihenar)t" baita alegia poetikoan, bada jende mota aberatsa 1657-ko bilduman. Izenen ezberdintasunarekin, badira bertzeak: ilen edo larruko kolorean (beltxaran, xuri, ile urreztatu), eta oraino gizarteko mailetan, edo auzotasunak onhartzen duen elhe ausartean. Hemen zenbait aldiz **no** erraiten da maiteari (II, IX, XI), eta eztakigu. Etxeparerekin bezala, **to**-rekin ordaintzen zenetz orduan (bertze moldekoa da Jainkoari, bekatoreari, handi ala ttipiari, literatura zaharraren moldean emaiten den **to**-a). Karbariak elgarri **no**-ka aridira (XXVI): izan daiteke beraz baden **zu** eta **no**-ka mintzo diren edo zaienen artean muga bat, edo adinekoa (gazteener **to-no** errexago eta gazteenen artean), edo gizartekoa. Maitasun "jentil eta kortesak" baldin bademan oraino oiharzun bat edertasunaren laudorian, anderearen "*zerbitzu* "ordaingabeko luzean (bada ere preziositateko "moda"), badiduri Oihenartek ezagutarazten dauzkula beheraxagoko "*nezkak*", eta menturaz hiriko (Donapaleu edo bertze) edo baserriko ("*ezein nekazale gazte*", XVII) jende xoilak.

Bere buruaren goititze bat sendi daiteke **Ioanaren betheginzarrea**-n, diolarik (XIII 73-78):

" *Baletsa iaungoicoari*
Har nenzan zerbitzari
.....
Ordüan pausu nuque
Eta nihaur neduque,

Handiago baninz ezi Baroian, Cont', edo Duke."

Joana Erdoikoarekin ezkonduz Oihenartek bazakien jauzi eginen zuela Xuberoko sortzezko burgesia ttipitik, Baxe-Nabarrako nobleziara; eta huna hemen zeiharka erranik olerkian "zuzen" den bezala ("*des choses dites de profil*", Saint John Perse) zerbait olerkariaren bizitik. Olerki eta neurtitz jokoak lekua utz baitezake ere egiazko sendimenduari. Hasteko Oihenarten maitalek erakusten dute elgarren artean, eta sendimenduetan, Etxeparerenek baino ezberdintasun gehigo.

Alde hortatik ohargarri da VIII-garren olerkia: hemen olerkariak elhea eman du andere bati, hau da mintzo buruan buru (erran da Oihenarten maitasunezko olerki bakotxa bakarrizketa dela), oihuz erakusten duela maitasun trabatu bat ("*Maite dut, eta naiz maitatu, / Bana naiz hanbat dezdixatu* ..."), eta goratik galdatzen maitasunaren libertatea, gizartearen eta, gehiago dena, aitamen kontra (izendatu gabe: "*Nihauren azkazi hurrenac...*):

"*Maitarien iaun erregueac,*
Higu ditu borxa-legeac,
Eta haren resuman libertatea
Da gobernari..."

Ez ote da jadanik hemen karbari gaztek (XXVI) erakutsiko duten hogengabetasun hartarik? Etzen gauza arrotza XVII-garren mendean (nahi ezpada igan Aro Zaharreko *Sapho* ala bertzetara...): aitzineko mendeko "poetesek" (Lyoneko Louise Labbé...), hurbilago Molières-en komediek goraipatzen zuten neskato gazteak, emazteak maitasunerateko duen dretxoa. Oihenarten ausartzia, beti bere gogo-argitasunean, ezta hortakotz ttipiago, bereziki euskal literaturan. Etxepareren andere beldurtuetarik bagaramatza aski urrun, beharbezalakotasunari hitzetan eta gauzetan laidorik gabe.

Baionako liburuko olerkietan, 1664-koak eta "zaharrarokoak" baldin badira, Eguiategy-k entzutera uzten duenaz. Oihenarten gogo maitaria berriz bidean zabilan; eta, "gaztaroko" gaineratekoetarik badira, berant bilduak eta urteak iraganik bururatuak (ainitzetan gertatu dena), gogo arina argi da karbarien eresian, bertze nonbait erakutsi dugun bezala. Egia da orduan zuhurtzia ohituaz kampo zebilala, eta jakinean (ikus 25-garren atsotitza: "*Amoratzea, gaztearentzat loratzea, zaharrarentzat da zoratzea*"). Bainan erakutsia zuen aitzinetik maitasuna, handi ala ez ("arrazoinezko" ezkontza egina bazuen Joanarekin), atxikimenduaren beteginera hel zaitekeela, eta ez Etxeparek zion "traizionera". Hortakotz, berantagoko olerkien gogo arintasunean, ezin ahantzia da XVII-garrenean zehar (luzetasunez bigarren olerkia: 128 neurtitz) zabaldua zuen "*ezkontidearen*" laudorioa, 61 urtetan, zaharraroko lana jadanik: "*gaztaroan egina ez izanagati...*".

IV. Bide berri batzu.

Biziaren eta erlisioneko moralaren arteko loturan aski urruntzen dira elgarretarik Etxepare eta Oihenart: arrazoin bakarra ezta hastetik aitzinatu dudana, aroen eta gizartearen, erlisionearen ere ezberdintasuna. Gehitu behar zaie ere alde batetik bizi-molde, ingurumen eta gertakarien eragina, bertzetik bakoitzaren jitea, nortasuna, ezpadugu ere nahasirik baizik senditzen olerkietako alegiatasunaren irazkian gaindi.

Oihenartek ekarri du olerkiari haren aitzinekoak egin etzezakeena: gogo klasikoa. Ezin berex daitezke hemen egitura formalerateko arta eta jakitea, eta Aro-zaharreko mitologia zinezko, beharrezko literatura klasikoaren apaindura, eta ja berpiztetarrarena, hau lehenbiziko klasikotasun bat den neurrian. Etxeparek baldin bazakien ere hortaz zerbait (olerki-jantzek azpi-entzun dezakate menturaz), etzuen lekurik "doktrina" zabalduz hasia zelakotz, eta oro edo abantzu hari buruz moldaturik, mitologiaren ekartzeko euskal literaturaraino.

Oihenart da izan egiazki Museen "*izena herri hautan hospatu*" eta entzun-arazi duena (XVII). Hitza bi erran-hahietan hartu behar da: zeihar eta sinbolikoan, olerkiaren arau edo erregela zuzenak; labur eta zuzenean, Museak berak, eta haiekin mitologiako jainko ("*Febus, Temis*"), leku ("*Parnason*") eta ere jakitate sinboliko guzia (neurri hau azpimarratu dut karbarien "*piko*" eta "*pikotzean*"). Gaia zabalago da (ikus "*sorzaina*" XIII 17), bereziki azken olerkietan, Zalgizen zonetoan edo Arrainen ilharthitzean. Ezaguna da mitologiazko gogo klasikoaren apaindura literarioari erran-arazten zirela behar zenean egia modernoak, eta erlisione girixtinoaren gogamena bera: jansenismoko gogoa ikusi da, arrazoinekin, Racine baten tragedietan.

Urrunago ote doa Oihenart karbariek pikotzeari egiten dakoten otoitz bitxian, bekoz beko ezarriz baratzeko pikotzea eta Edengo sagartzea, eta bere buru moralaz arinak "*Eua amaso*"-rekin, eta girixtino sineste guziaren oinarria den "bekatu orijinalarekin" ? Bide berriak, ohi-gabeak, egiazko sineslen etsaiak: Racine, "jansenisten *haur-hazia*" egotzi zuten Port-Royaleko "bakartuek", eta antzokia, antzerkia eta mitologia utzi behar ukan zituen berriz onhartua izaiteko.

Oihenart zendu-eta urte guti barne, haren aipamena handi zaitekeenean orain (XVIII-garren mendean goraipatzen da bai Euskaldun bai jakintsun arrotzen artean), izan zen euskal literatura bide hortarik baztertu nahi izan zuena Gazteluçar jesuista eta olerkaria, Pauen 1686-an agertarazi zituen **Eguia Catolicoac**-etan. Nahi zituen Muse "profanoak" baztertu, eta olerkariak erlisione zintzoan geldi arazi:

"*Urrun adi, Parnaseko Musa zahar profanoa;*
Eta zu, zato, zeruko Musa berri dibinoa."

(Ikus P. Lafitte, *Literaturaz*, P. Urkizuk bildu artikuluak, Klasikoak n. 35, orr. 129). Dakigularik bizkitartean Parisen Jesuisten ikastetxetan emaiten zirela gai mitologikoekilako tragediak. Egia da mendea atzinatzen ari zela orduko, erlisione katolikoa hesten (Frantzian "Edit de Nantes"-en haustea da).

Onhartuko zuena Oihenartek mitologiaren debekatze hori? Hasteko olerkariek ez, eta elizatiarrek berek, mende bat berantago Monhok ("*Apo-*

lonen kontra", "*Bacchusec ez du triompharik...*") eta Camousarrik (Virgiliuz-en *Bukolikoak* itzuliz).

Bide berri horietan ezarriko dugu ere jadanik aipatu den "errealismoa", ez bakarrik bere baitan, baina gehiago Oihenartek mitologiarekin. Berriz itzuli gabe hemen XVII-garrenean, XXVI-garrenean eta bertze olerkietan (manamenduetako "*albor, idi*" eta bertze) direnetara, irudi edo itzuli bakar bat emanen da bururapen gisa: Zalgizen buruan eta han, jainko zaharren "*Parnason gainean*", emaiten den "*erramu-boneta*".

Azken-hitz.

Nola atera eskolastika zaharreko "paraleloetarik"? Uste dut hortik iragan behar dela, nahitez, bi idazle edo edergile elgarren ondoan edo aitzinean ezarri nahi badira. Baina ikusi dateke eztela lerrokatzean, paralelo ala ez, ikermen hunen helburua, baizik eta bilatzean zer izan daitezkeen bi olerkari zaharretan dudarik gabe handienen arteko harreman eta loturak. Mende bat iraganik, hamaseigarrena, bere ixtripu, bortizkeria eta aldaketa guziekin, biziari, jendakiari, jakitateari esker, bada lokarri bat baino gehiago olerkari eta olerkaritza ezin ezberdinago bi hauen artean. Ezberdintasunak berak, ene iduriz, eztira ustegabekoak, bainan bai argiak eta ezagunak, erran nahi da Oihenartek berak nahi eta ezagun izan dituenak, bere gogo-argitasun zorrotzean.

Eztut erran nahi ere, osotasun guzian, aitzineko "olerkari jendetiarrak" duela mugatu ("determinismo" hutsa lizateke) Oihenarten gogo poetikoa. Bi neurri sartzen dira, bakoitzaren jite berezia baztertuz, hunen eragina sobera ageria eta ezaguna baita, literaturako edozein lanetan, eta bereziki Oihenartenean: aitzinekoen ezagutza eta ondorioa, nahi bada "tradizionea", eta hau Etxepareren euskal olerkiek, herriko iraganak eta biziak dute mugatzen, eta aro bateko gogo orokorrak, europatarrak. Bien arteko harian, hegian ikusten dut Oihenarten liburua.





PATRI URKIZU

OIHENARTEN ATSOTITZAK BERRIRAKURRIZ

Dulce bellum inexpertis

(Erasmus)

GOGOKO omen dute gerla ezagutzen ez dutenek, eta hona non nagoen Arnaud OIHENART[1], mauletar herotsdunaren jaiotzaren IV. mendeurrena ospatzen bere sorterri ikusgarrian, baina ez naiz hona etorri gerra egiteko asmotan, utikan, trakets eta nekez josi eta idatziak diren lerro apal hauek, omenaldi xume bezala irakurtzera baizik.

Ez natzaizue ihardungo haren bizitza zertzeladez, ez historiez, ez gramatika oharrez, ez hiztegi lanez, ezta neurtitzez ere, ezen ni baino gaiago eta adituago direnak arlo horietan aritu(ko) baitira luze eta sakon egunotan; baizik eta Atsotitzek berriro irakurtzerakoan sorrarazi dizkidaten gogoetez.

[1] Arnauld Oihenart (Maule, 1592 - Donapaleu, 1667).

1. Argitaratze urteez

Jakina den bezala Oihenartek 1657. urtean Parisen liburu benetan bitxia argitaratu zuen, antza denez, ez liburusaltzaile inoren baitan, lagunen artean banatzeko asmoarekin egina baizik. Bere lehen eta bigarren orrialdeetako tituluek honela diote:

LES PROVERBES / BASQUES / RECUEILLIS PAR LE Sr/D'OIHENART, / PLUS LES POESIES / Basques du mesme /Auteur (Irudia).
ATSOTIZAC / EDO / REFRAUAC, / Proverbes, ou Adages Basques/ Recueillis par le Sieur d'OIHENART / A PARIS / M.DC. LVII.

Esku artean erabili ditugu Pariseko liburutegi Nazionaleko[2], Mazarineko[3] eta Baionako Herri Liburutegiko[4] aleak eta garbi dago lehen biak berdinak diren bezala hirugarrenarekin ezberdintasun nabarmenak dituztela. Parisekoek lehen partean, 81 orrialdetan, 537 atsotitz euskaraz beren frantses itzulpenekin ematen digute, eta bigarren partean

O. Ten GASTAROA / NEURTHIZETAN. / La Ieunesse d'O. en vers Basques. / A Paris, / M.DC. L VII.

zeinek 76 orrialde dituen, orotara 157 orrialde direlarik, *fautes d'impression,* moldiztegiratze hutsak barne.

Aldaerez eta beste zenbait xehetasunez luze mintzo zaigu Vinson[5] - adibidez, *Nahis espegui...* poemaren bertsio aski ezberdinaz - hala nola ia zortzi poema gehiago dituen Michelek Bordelen 1847an moldiztegiratu berredizioaz[6] , zeinen gainean Mitxelenak honakoa zioen: *Argitaraldi onek ba-du besteak eztuen zerbait: zenbait poema, 225-250 orrialdeetan, agian egilleak azken-orduan kendu zituenak*[7].

Bestalde, Stempf-ek[8] berrargitaratzen duenean *Atsotitzen Urbenquina...*, Vinsonek[9] urte eta leku aipamenik gabekotzat jotzen zuena, honela dio, *Nouvelle édition conforme à la première de 1657* (?), zalantzan jarriz data eta, noski, bidezkoa zuen duda, zeren Tolosan 1936. urtean Lopez Mendi-

2 Biblithèque Nationale de Paris, Réserve, Z. 2363.
3 Bibliothèque Mazarine, nº 44024.
4 Bibliothèque Municipale de Bayonne, Réserve, nº 21.
5 Julien Vinson, *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque.* J. Maisonneuve, Paris 1891, 99 - 107.
6 *Proverbes basques, recueillis par Arnauld Oihénart, suivis de poésies basques du même auteur. Seconde édition, revue, corrigée, augmentée d'une traduction française des poésies et d'une appéndice, et précédée d'une introduction bibliographique* (par Francisque Michel). Prosper Faye, Bordeaux, 1847.
7 Luis Michelena, "Arnauld Oihenart", *Sobre Historia de la Lengua,* ASJU, Donostia 1988, 868, 6. oharra.
8 *Supplément des proverbes basques recueillis par Arnauld Oihenart,* nº 538-706 avec la traduction en français. F. Destouesse, Bordeaux, 1894.
9 Idem, 107.

zabalen[10] moldiztegian *bigarẽn aldiz lenengo irarkaldiaren antzera egiña*, hots, fac-similean plazaratzen denean liburua eta ematen *Atsotitzen Urrhenquina* , alegia, 1-537 errefrauen segida, honek ez duen atarikoan ez urte datarik ez deus, garbi dagoelarik, ordea, Madrideko Liburutegi Nazionalean aurkitu eta hemen aurkezten dugun fotokopiaren arabera, *Atsotitzen Urhenquina*... Jean Desbaratz[11] liburu saltzaile eta Erregearen inprimatzaile zenaren baitan, Paben 1665. urtean argitaratu zela.

Beraz, bi atsotitzen edizio ezberdinen aurrean gaude. Bata Parisen 1657. urtean argitaratua, 1665ean Paben bestea. Halaberetsu, bi leku ezberdinetan poemak Jussef Eguiateguyk dioena sinesten badugu 1657. edizioan agertzen ez diren poemak 1664. urtean Paben argitaratuak bailirateke. Hona ondoren, hain zuzen, Zuberoako errejentak dioskuna:

Mos de Arnalde Oihenartek dereikü ere ützi libürüñi bat, Atsotitzak edo Refrañak, izen diana, Parisen moldizkidatia 1657. urthian. Jarraikiz dereikü beraren Gaztaroa neurthitzetan ta azkenekoz Zaharzaroa ere neurthitzetan eman, Paven moldizkidatia 1664. urthian[12]

Garbiasko adierazten dizkigu, bada, plazaratze urteak, hala nola beste testu honetan:

Haren obretaric dago lliburuñi bat oraino Parisen pharte, bersia Paven moldiskidatia. Hartan da bidantza Erran-Etzaz Mintzo dirade ere hau bi berecitan, batan bere gastaroaz bersian bere saharzaroaz dutinac solhatzen. Mira sian bi obretan erakhoustia, huscara-ren manua haren luma bersalacoaren pian loteskinde olzekian denaz doitzkintzun lissatekiala[13].

Alegia, Oihenartek bi obra idatzi zituela, bata zahartzaroaz, gaztaroaz bestea, eta horien bitartez erakutsi nahi zuela *euskara poesiarik ederrena sortzeko gai zela*. Iharduten du Eguiateguyk, edizio baten hitzaurrean bailegoan, beste idazlanez ere, eta aipatzen digu nola jakintsuek mauletarraren liburuak sekulako alabantzez betetzen zituzten kontsideraturik bakantetarik bakantena, hots, *inter rariores rarissimus*.

Sinesgarri litzateke, beraz, *Atsotizen Urhenquina*... Paben ziur 1665. urtean argitaratu zen bezala *Zaharzaroa ere neurthitzetan* liburuñoa Paben 1664.urtean plazaratu izana, jakin dakigunez[14], Oihenartek hiri honetako artxiboak miatzeko-bere historia jardunetan-maiz bertaratzen zela eta etxe bat ere berea zuela han, zeinen bigarren bizitza Etienne Marsan medikuari 1664. irailaren 29an alokatu zion.

10 RIEV, 1929-1930, T. XXVI, 2-4; XXVII, 3. argitaraldi berezia.
11 *Atsotitzen Urhenquina. Supplement des proverbes basques.* A Pau, par Jean Desbaratz, Marchand Libraire & imprimeur du Roy, 1665.
12 Jussef Eguiateguy, *Leben Liburia edo Filosofo Huskaldunaren ekheia* (1785) ,Txomin Peillenek prestatua. Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 28.
13 BNP, FCB, MS, nº 154, f, 24 v.
14 J.B.E. de Jaurgain, *Arnaud d'Oihenart et sa famille* H. Champion, Paris 1885, 32.

Dena den, urtea egokia daitekeen arren ez dirudi hala titulua, *Zaharzaroa...*, alegia, zeren iritsi zaizkigun ia zortzi poemetarik lau amodiozkoak diren (I,II,III,V), bi ofizioetakoak (IV,VIII), bat goratzarrekoa (VI) eta hilartitza bestea. Nabari denez ez dute gaztaroko beste liburukiarekin aldaketa handirik, hala gaztaroa / zahartzaroa kontrajartzeko. Honela, badirudi Mitxelenaren ohar hura, alegia egileak azken-orduan lehen argitaralditik kenduko zituenak direla ez legoke oker, zeren eta zio ezberdinengatik utz zitzakeen beste baterako, hala nola bere paperen artean aurkitu den beste errefrau multzoa.

2. Atsotitzen Helburuez

Oihenartek berak *Hitzaurrean*[15] adierazten digunez, atsotitzen erabilera oso arrunta zen, bai herri xehearen ahotan, bai jakintsuenetan, eta batipat hauek ez zuten inongo kupidarik sentitzen bildu zituztenak liburuetan emateko eta komentatzeko, zeren ornamendurako baliagarri izateaz gain, bizitzarako ere irakaspen ezberdinak ematen zituzten.

Beraz, Oihenartek beste aitzin-solasetan ere zerabiltzaten ohiturari jarraikiz lanaren zergatikakoa argitzean, *principium autoritatis*, delakoa darabilkigu. Hots, antzinateko maisu handiek eta garaikide zirenek hala obratu zutela eta zerrenda Aristotelesekin hasten da, zeren aspaldi zen jadanik hau mintzatua[16] errefrau moeta ezberdinez eta solaserako zuten balioez. Honen ondoren Clearcus[17] · Crisipo[18] , Teofrasto[19] , Zenobio[20] Diogeniano[21] , Miguel Apostolius[22] aipatzen dizkigu eta XVI-XVII. mendeetako gizon ospetsuekin jarraikiz Erasmo aitatzen digu, zeinen eragina errenazimendu osoan neurrigabea izan zen batipat bildutako *Adagia*-ren edizioari esker (1501). Honek antzinateko eta filosofo giristinoen jakituria batu egin zituen, jakituriari unibertsalitate balioa emanez, eta kontsideratuz errefrauetan berezko eta sakoneko egiak biltzen direla, zeren bestela nola liteke atsotitz bera ehun herri ezberdinetan hedatua dadin eta bizirik, zahartu gabe, iraun dezan. Horrela bada, errefraua definitzearekin batera lau helburu ematen zizkion, hain zuzen, hauexek:

Atsotitza, jakituri berrikuntzaren bat daukan esaldi ospetsu bat da, lau balio dituelarik: filosofiarena, komentziaraztekoa, perpausa edertzekoa eta idazle hoberenak entenditzeko lagungarri izatekoa[23].

Eta jarraitzen du humanista zerrenda honekin: Hadrian Junius[24], Jose

15 Preface, à.
16 Erretorikaren II. liburuaren 21. kapituluan, adibidez.
17 Diogenes Laercio: *Vidas, opiniones y sentencias de los filósofos más ilustres*. Ed. P. Samaranch, Aguilar, Madrid 1964, 1312.
18 Idem, 1305-1307.
19 Idem, 1241.
20 Firenze-ko eleiz-gizon ospetsua (334-415).
21 Heracle-n jaiotako Adriano enperadorearen garaikidea, gramatikalari grekarra.
22 Konstantinopla-n sortutako (1453) erretoriko grekarra.
23 Erasmo, *Obras escogidas*. Ed. Lorenzo Riber, Aguilar, Madrid 1956, 17

Escaligero[25], Andres Escoto[26], Martin del Rio[27], Luis Novarinus[28], Joan Druso[29], Erpenius[30], Levinus Varnerus[31], Boxhornius[32], Hernán Nunez[33] eta Grutere-kin[34], esanez nola grekoek bezala latinoek, hebrearrek, arabeek eta espainolek, halaber frantsesek, italianoek, alemanek, flamendarrek eta ingelesek beren biltzaileak izan dituzten.

Ohar gaitezkeenez Oihenartek antzinateko eta garaiko autoreen ezagutza benetan handia eta sakona zuen, honetan besteren artean, Antonio III Gramonteko duke-mariskalaren (1604-1678) liburuzaina izateak lagunduko zuelarik eta irakurriko zituen, noski[35], Bidaxuneko liburutegian ziren 617 titulu ezberdinak, eta *Belles-Lettres* deritzan saileko hirurogeita bederatziak.

Helburuen harira lot akigun, ordea.

Hernan Nuñezen obrari Alexandro Canova argitaratzaileak egin aitzin-solasean hain gizon jakintsuak errefrau egiteko arrazoinak azpimarratzean honakoa diosku: *como hombre tan entendido, que veia la mucha doctrina y aviso, que debaxo de breve y gracioso consonante y sonsonete los tales abraçan*[36].

Alegia, laburtasunaz, graziaz, puntuaz lortzen dutela dotrina eta aholkuak garrantzitsu bezala senti daitezen eta modu atseginean onar. Bi mende beranduago Eguiateguy bera saiatzen denean Oihenartenak kopiatzen eta bere kabuz bilduak[37] hari eransten, honela zioen:

Oihernarten atsotitzak ta refrauak irakurtzaler agrada ziratekiela ustian ditut jarri; ta gerthaldiak gizonaren miralla, hantik dükien probetxia eztate gauza apürra[38].

Hala bada, agradamendua eta probetxua lirateke xuberotarrarentzat bi helburu nagusiak, latindarren urratsei jarraikiz, hots, literaturaren *dulce et utile* helburu berari eutsiz.

Solasaren ornamendurako eta bizitzaren irakaspenerako baliagarri

24 Hadrianus Junius, *Adagiorun centuriae octo*. Basilea, Frobenius, 1588.
25 Jose Escaligero, poligrafoa eta poliglota, Agen-en jaio (1540) eta Leyden-en hila (1609). *Proverbiales graecorum*...(Paris, 1594).
26 Andres Schott, filologo eta jesuita holandesa (1552-1629), *Adagia*...(Anuers, 1612).
27 Martin del Rio, teologo jesuita holandesa (1551-1608), *Adagialia Sacra*... (Lyon, 1613).
28 Luis Novarinus, teologo teatinoa Veronan jaioa(1594), hebreo eta Ekialdeko hizkuntzetan jantzia.
29 Joan Druso, Flandesen jaioa (1550) Oxforden eta Leyden hebreo irakaslea. *Proverbia Sacra*...
30 Tomas Erpenius (Graum, 1584-Leyde, 1624) Holandako interprete ofiziala.
31 Levinus Varnerus, Erasmoren laguna (?).
32 Marcos Zuevio Boxhornius (Berg-op-zoon, 1612-Leyden, 1653).
33 Hernán Nuñez (1473-1553), El Comentador, Cisneros-en Biblia Poliglotaren latinezko itzulpenaren egilea, eta *Refranes o Proverbios en Romance* liburuaren egilea (Salamanca, 1555).
34 Juan Grutere (1560-1627), filologo belga, *Florilegium*.. Argentinari, 1624.
35 Jean Robert, "La bibliothèque d'un grand seigneur en Gascogne au XVII siècle", XVII, 1976, 56-69.
36 Hernan Nuñez, aip. lib., 3 v.
37 Argt. lib., 29.
38 *Obarkerak, esangiak eta bibetak Jussef Eguiateguic Suberoan errejent zenak bildu dutianac*. (1-2046 gogoeta). BNP, FLB, MS nº 154.

izateaz gain, bazen Oihenarten bildumaren funtsean beste arrazoirik, nahi baduzue politikoa dei genezakeena, zeren Sorterriaganako maitasunak bultzaturik gazte-gaztetandik hasi zen biltzen herriaren ahotik, eta herriari itzultzen dizkio moldiztegiratuak arruntago, hedatuago eta ezagunago egin eta horrela ez daitezen gal[39].

Baina ez 1657. urtean eta ez 1665.ekoan ez zituen denak plazaratu, utzi baitzituen Lapurdi, Nafarroa, Bizkaia eta Zuberoako zenbait argitaragabe, zeinetarik ohar gaitezkeen Oihenartek 1596go errefrau bilduma ezagutu zuela. Horien argitaratze eta ohar multzoa Julio de Urquijo[40] eta Koldo Mitxelenari[41] zor diegu.

3. Irakurketen zuzenketez

Lan gaitza egin zuten Urquijok eta Mitxelenak Oihenarten idazkera benetan zaila argitzen, eta bazituzten irakurketari buruz beren duda-mudak. Honen lekuko dira Urquijok Lhanderi egin galderak eta Mitxelenaren hitzok:

No se me oculta que la tarea que he realizado está muy lejos de ser acabada y perfecta. He hecho lo que he podido y ofrezco el resultado de mi trabajo para que otros puedan completarlo y corregirlo.

Biltzen eta irakurtzen dituen errefrauak zenbatuak doaz eskuzkribuan 206.etik 349.eraino Larresorok[42] bere edizioan 707.etik 892.eraino kontatzen dituenak *Urbentza* titulupean dira, baina beste 706ak ez bezala hauek alfabetikoki ordenatu gabeak daude.

Paleografia anitzik ez jakin arren Ch. Higounet[43] eman zenbait argitasunei esker mauletarraren idazte gaitza-garaiko frantsesaren pareko, bestalde - interpretatzerakoan, hark paper zaharren bila komentuetako liburutegietan ibili ondoren bildutako oharrak medio, ausartu gara Mitxelenak egin irakurketari ondoren doazkizuen zuzenketa batzuk egitera.

213 **Gizon atzia oihanaz oihana ere arana**
El hombre extranjero entre bosque y bosque
tambien el valle (halla) (?)

214 (Gain marraturik) **Halako duphan halako arno**
De tal tonel tal vino
Honen beste aldaera emana zuen ere Oihenartek, errepika parale-

39 ...J'ay crû aussi que je rendrois à ma Patrie, si, apres le soin que j'ay en des mon ieune aage, de recueillir les siens de la bouche du Peuple, je prenois encore celuy de les rendre plus familiers & perdurables par le moyen de l'impression (*Preface*, a ij.)

40 Julio de Urquijo, "De Paremiologia Vasca. Oihenart conoció los "Refranes y Sentencias en Vascuence" de 1596", *ASJU*, I, 1967,3-10.

41 Luis Michelena, "Los refranes del cuaderno de Oihenart", ASJU,I, 1967,11-44.

42 *Atsotitzak eta neurtitzak. Oihenarte (1592-1675)*, Irakur sail, Donostia 1971, 109-126.

43 Ch. Higounet, "L'écriture de l'érudit Oihenart", *Bulletin de la Société de Bibliophiles de Guyenne*, nº 85, Bordeaux, 1967, 3-11.

lismoz aldatuz:

449. **Tupa nolako, arnoa halako**
De tal...

226 **Aseak goserik eztakuske**
El harto no puede ver el hambre

Honen Belaren aldaera ere ematen digu Mitxelenak, hots, *Asek gose eztakusa*, zeinen antzekoa litzateke Hernan Nuñez-ek[44] bildutako italierazko hau: *El passu no crede al zezun. El harto no cree el ayuno.*

231 **Nahi dienak laida beza Azkoiti**
Nik eztirot orai ez jagoiti.

Mitxelenak honela itzultzen du, *Alabe quien quiera a Azkoitia: yo no lo podré (hacer) ni ahora ni luego,* baina Pierre Lhandek[45] Julio de Urquijori idatzi ohar zenbaitetan beste honako interpretazioa ematen digu:

231 **Nahi dienak laida beza Azkoiti/uzkoiti**
Nik eztirot orai ez jagoiti.
Adule/Ofenda el que quiera a Azkoiti/ por detrás, yo no lo podré hacer ni ahora ni luego.

Adierazten digunez Azkoiti batez ere pertsona izena izan daiteke eta ez herri izena Zuberoan seguruen oso gutti ezaguna izanen baitzen honela bukatzen duelarik, *Como V. vé todo esto no es más que suposiciones; pero puede ser que V. encuentre en ellas algún hilo... Suyo , biotz biotzetik.*

232 **Amorrainen koi aragi erre ez gabe ez ukendun behin ere**
Al aficionado a las truchas no le falta nunca la carne asada.

Irkaitzez betea dela uste dugu atsotitz hau zeini Lope de Isasti[46] lezotarraren beste hura hurbildu dakiokeen :
Amuarraya amutic eta anzumea larrutic.

233 **Eriak bathia zorriak / zauriak**
El enfermo sufre las pulgas / heridas

Nere ustez argi dago *Eriak* irakurri behar dela halaxe hasten baita ere

44 Aip. lib., 122.
45 Notas de Pierre Lhande sobre los refranes de Oihenart y de Sauguis. MS. del Fondo Urquijo de la Diputación de Guipúzcoa.
46 Luis Michelena, *Testos Arcaicos Vascos.* Minotauro, Madrid 1964, 176.

hurrengo errefraua, eta ez *ezinak* Mitxelenak idatzi eta Larresorok kopiatzen duen eran. Ez duguna garbi da *eriak zauriak* ala *zorriak* sofritzen dituen, punduaren arabera logikoago *zauriak* dirudien arren.

242 **Hira bera da hirgarri**
La cólera, ella misma es generadora de cólera

Beraz *hirgarri* eta ez *sorgarri* 'calmante'. lehen hitzaren erroa bigarren partean errepikatzen delarik ideia nagusi bezala.

268 **Haurgin beno burmin hobe da**
Es preferible el dolor de cabeza al del parto.

Hots, *burmin, burmuin, burzoro...* bezala osatua eta ez *burgin*, bestalde ezer esan nahi ez duena.

Eskuzkribuan 349. errefrautik aurrera zenbatu gabe egon arren Mitxelenak eman zenbakiari jarraituko diogu.

357 **Eztezala desohora ahal iroena xora**
No deshonres a quien te podría enloquecer
(causar algún mal)

Lehen partea bederen oso garbi dago neretzat.

361 **Gaizki eginari ondotik gaitz saria**
A mala obra mala sanción

Mitxelenak, ordea, *oguiz saria* irakurtzen du, nere uste apalez garbi dago zentzuari dagokionez bederen egokiagoa dela *gaizki eginari, gaitz saria.*

Hamar atsotitz hauen irakurketa zuzentzen saiatu bagara ez da izan, noski, maisuaren lana gutxiestearren, zeinen laguntzarik gabe gehienak irakurri ezinean geldituko zitzaizkidan, baizik eta gorago eman dugun aipamenean zioenari, bere irakaspenen izpirituari jarraikitzearren baizik.

4. Itzulpenez eta idaz-moetaz

Duela guti J.A. Lakarrak[47] aurkeztu izan ditu bere duda-mudak Urquijoren iritzi harekin, alegia RSen iturri nagusia Hernan Nuñeze-na dela eta zati larri batean gaztelar errefrautegietarik itzulia. Nola Oihenart aski garbia den hitzaurrean munduan barrena hedatuak eta ezagutzen zirenez mintzatzerakoan, hala nola darabilen metodoaz, ez dut uste gehiegi luzatu behar denik arazo honekin, baina nahiko nuke adibide bat hona ekarri, alegia,

47 Joseba Andoni Lakarra, "RS-en testu kritikazko arazoak: Hernan Nuñez-engandik itzulia ote? (XVI. Mendeko Bizkaierazko errefrauesz II), *Patxi Altunari Omenaldia.* Ed. E. Perez Gaztelu, P. Urkizu, Mundaiz 1990, 177-190.

Hernán Nuñez-ek honela ematen digun 524. errefraua:

> *Quien a veynte nô es galan, ni a treynta tiene fuerça ni a quarenta riqueza, ni a cinquêta esperiencia, ni sera galan, ni fuerte, ni rico, ni prudente*[48].

Bada gaztelaniaz ere XVI. mendeko zaldun nafar baten aldaera gutti ezaguna, hots, Julian de Medranoren *La Silva Curiosa*[49]-n aurkitzen dena eta merezi duelakoan ematen duguna.

> *Quien à veinticinco no es galán, ni a treinta tiene fuerza, ni à cuarenta riqueza, ni à cinquenta experiencia, ni será galán, ni fuerte, ni rico, ni prudente.*

Hona Oihenarten frantses itzulpena:

524 *Celuy qui à vingt ans n'est, à trente ne scait, & à quarante n'a, jamais ne sera, ne sçaura, ny n'aura.*

Hogei urtetan eztena, hogei eta hamarretan eztakiena,eta berrogeietan eztuena da jagoitik eztatena, eztakikena eta eztukeena.

Haritschelharrek atsotitz hau komentatzerakoan[50] dioen bezala, oraina eta geroa kontrajartzen dira hasierako erritmo motelari bigarren parteko bizia, lorpen benetan miragarria kreatuz, eta itzultzaile bazen ere, ez zen itzultzaile makala Oihenart, Frantsesez hiru pundu bakarrik duen errefrauak (*sera, sçaura, n'aura)* euskaraz sei baitu (**eztena, eztakiena, eztuena, eztatena, eztakiena, eztukeena**).

Errefrau honek beste bi dakazkit gogora. Bat Oihenartena, bost puntukoa, eta bestea Eguiateguik[51] bildua, bederatzikoa, hain zuzen:

488a **Atxeter zekeneti, abokatu goseti eta partida**
bien konseilu deneti, begira adi nola asaieti.
Hiru gizon mota hauek, asaiak bezala, gutika gutika, nebor galtzen dute.

Hona Eguiateguyrena: *Zer da gizuna? Kabale gosetarik eritarsun gehiago diana, nigarretan sorthurik hogei bat urthez zer den eztakiana, azote kalduz baizik ikasten eztiana, hantik aitzina bizipenaren errekeitiaz phorrokaturik daguena, heriuaren lotsaz bizitze txarra berrestatzen diana,*

48 Arg. lib., f. 413.
49 *La Silva Curiosa de Julian Medrano en que se tratan diversas cosas sutilísimas y curiosas, muy convenientes para damas y caballeros, en toda conversación virtuosa y honesta*. 1583. Ed. El Romancero General Español. J.M. Sbarbi, T.X, Madrid, 1978, 43.
50 Jean Haritschelhar, " Parémiologie et mnémotechnie. L'exemple basque", BMB, 1992, n. 133, 49-66.
51 aip. esk., f. 145.

bethi irrigaitz papagaia bezain elhestari, etxahora bezain marrakari berantegi agi dena, hiltze ta ehortzetan dolumenik gabe urthukitzen dena, sobera bizi dena.

Glosa hau irakurtzerakoan konturatzen gara badirela ere atsotitzetan barrena halako *amplificatio* , zabaltze, esplikazione eta saihets komentarioak nondikan datorkiokeen hainbat izen ezberdinez[52] ezagutua izana hala nola bere izate mugatiarra. Jite honen adierazgarritzat hain zuzen kontsidera dezakegu Geografia esplikazione hauek, adibidez,

6. ***Pikatuak erraiten diote Bortuko bide hertsi eta kanpits bati, zein baita Otsagabiren eta Larraneren artean, Nafarroa garaiko eta Zuberoako mugan.***

506 **Arradoia da Garaziko mendi xut eta harritsu bat**

Ohar hauek areago liruditeke enziklopedi batekoak atsotitz soil bilduma batekoak baino. Hala nola topatzen ditugunean beste istoriotxo hauek:

137 **Emaztearen gaitzez xikhira zedina**
adarreki ehortz zedin.

Refrau haur athera da Ilhartitz[53] *edo Epitafio hontarik:*

Heben dago, ber'adareki etzina
emaztearen gaitzez xikhira zedina.

139 **Eneko, atxeka hi hartzari**[54]
nik demadan ihesari

208 *(...) Tussuria*[55]*, diabruari erraten zioten euskara zaharrean, eta oraino hitz haur usatzen da Zuberoan.*

352 **Ohapean nago gorderik, enirozu ediren**
Inhardetsia - Ezitzaket, ezi enaiz bilha ebiliren.

Hauk dira neska baten eta morroin baten arteko hitzak.

373 **Orhin ekhia bero. Ihardespena: Han izanik hona niz.**(...) *Bebiala, begaztiak mintzo zirenean, xori bat neguan hotzez-hila habia bati*

52 Atsotitz, Refrau (Oihenart) esakune, esaera zaharrak... erran komuna, zaharra, adinduna, errefrau, proberbioa (*Pierre d'Urte-ren biztegia, Londres 1715*. P. Urkizuren Edizioa, *Mundaiz*, 1989, I., 215, 321).
(R.M. Azkue, "Proverbios Modismos..." *Euskalerriaren Yakintza*, III. 3. ed. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Bilbao 1989, 7ss).

53 Erasmo,Garibay eta beste asko bezala hilartitzak biltzezale genuen Oihenart.

54 Gratien Adéma Zaldubyren " Hartz bat eta bi ihizlari" (1876) alegia oroiterazten dit (*Kantikak eta Neurtitzak*, klasikoak Ed. A. Bengoetxea, Bilbo, 1991, 118).

arrimatu zela, eta hura bertze xori batez hartua edirenik, haren handik ateratzeko, sinhets arazi nahi uken ziola, Orhin ekia bero zela; ordea bertzeak haren mina ezaguturik, inhardetsi ziola, bazekiela Orhiko-berri, ezi hantik etorri-berri zela.

484 **Ama, aitzint zazkio puta deitzera.**
Hori erraiten zion puta alaba batek bere amari
ama bertze emazte batekin aharratzean.

Alegiak, kontuak, ipuinak, izkirimiriak, kontakizunak, artazuriketako ixtorioek hala nola errefrauek badute denek zerikustekorik mundu zabalago batekin, hots herri literarurarekin, edota Lekuonak, *Ahozko Literatura* deitu zuenarekin. Idaz-moeta, jenero mugatiarra, unibertsala, halere txoriei edo hartzei buruzkoak mundu guztian barrena zabalduak izan arren ez ditut aurkitu katalogatuak berezitasun horiekin ez Stith Thompson[56] lan orokorrean ez Guy Latry-ren[57] eta John Labusquier-en[58] lan partikularretan, ingurune hurbil eta urrun zenbait izendatzearren soilik.

Lehenago aipatu dugun J. Haritschelharren artikuluak atsotitzak prestatzeko molde eta antzeaz, laburtasunaz eta modu atseginaz mintzo baitzaigu ederki ez natzaizue areago arituko, soilik zein nolako mugatiarrak diren atsotitz eta bertsoak adierazteko hiru lauko hauek aurkeztuko dizkizuet:

63.a. Badut ere herabe	112.a Dituen ontarsunegati	115 .a Ditxak bi aurhide
Senarraren hilzale	Onhetsat adiskidea,	On eta adiskide
Horri joaitera gorrale	Eta ez utz opho gutigati	Desditxak oboro
Ezin naoke jangabe.	Zeren dik nork berea.	Dira gaitzak oro.

Bertso moldeak ikusten denez argi eta garbi **abba, abab** eta **aabb** ditugu, "redondilla, cuarteta, pareado de arte menor" gaztelaniaz[59] deituak.

Atsotitzen egiturez eta irudiez, hizkuntza tasunez hainbestek idatzi du Mario Garcia-Page-k[60] ageri digun bezala, eta nola gai nagusiez bezala ttipiez mintzatu baitira lehenago bai A. Etchart[61], bai J.M. Leizaola[62], eta berriki J. Haritschelhar[63] ere ez dut uste hemen denak hemen aipa eta agortu behar direnik, aztertzaile berrientzat ere zerbait utzi beharko, neronek eta zuek ere gaurkoa luzetsiko baitzenuteke, eta beraz, milesker zuen arretagatik.

55 Lhande, *Dictionaire Basque-français*, Paris, G. Beauchesne, 1926, 983 "d'origine celtique".
56 Stith Thompson, *The Folktale*, Holt.., New York, 1946.
57 *Contes. L'imaginari Gascon*. Reclams, 1987.
58 *L'autre fois. Récites de Gascogne & d'ailleurs*. Maisonneuve, Paris 1899.
59 T. Navarro Torres, *Métrica española*.E. Labor, Barcelona, 6ª ed. 1983.
60 Mario García-Page, "Propiedades Lingüísticas del refrán (I), EPOS,n'VI Uned, Madrid, 1990, 499-510.
61 A. Etchart, "*Les proverbes* de Oïhenart", *Eusko Jakintza*, 1950, 353-366.
62 J.M. Leizaola, *El refranero vasco antiguo y la poesia vasca*. Ekin, Buenos Aires, *1978*.
63 J. Haritschelhar, "Jainkoa eta jainkotiarrak Oihenart-en atsotitzetan", Iker 6, *Luis Villasanteri omenaldia*. Euskaltzaindia, Bilbo 1992, 195-207.

Xarles VIDEGAIN

ATSOTITZAK OIHENARTEN ILDOTIK

R. Jakobsonek erraiten zuenez, bere gaztaroan eta bere lagun haboroxek bezala, aitamek eta jende gehituek errepikatzen zituzten atsotitzak buruz ikasten zituenetaz gain, zein gertakariren aurrean komeni zen honelako edo halako esaeraren erraitea sartzen zen haur batek ikasi behar zituen oinarrizko gauzetan.

Horrela, emeki emeki, bizitzan gerta daitezkeen esperientzien berri nolazpait ukaiten zuten, ber denboran ingurumenduaren aurkikuntza beren hizkuntzan errotuz. Errusieraz mintzo den jendeen artean sortzeko zortea ez baitut ukan, eta hortan ez duket hobenik, atsotitzen bitartez garatu aprendizgo mota hori ez dut txestatu ez ttipian, ez gaztean: eta ene ustez, Euskal Herriko haur gehienak hazirik dira atsotitzen iturrietatik deus guti edan gabe. Eta jakitate hori ments dudala gero ta ohartzenago naiz, zohitzearekin ez bada, zahartzearekin.

Lexikografia industrializatzen ari omen den tenorean, atsotitz, esaera eta oro har fraseologiaren alorra ez da sobera udalatua izan gure lurretan, otsemaile bakan zonbaitek ez ezik. Bestela erranez, hitz soilez hanitzez gehiago badakigu ezen ta ez hitz-segida bat osatzen duten atsotitzetaz baino.

Hemen proposatzen dudana da atsotizen baratzean esleika ibiltzea, estakuru bat ukanik. Oihenart sortu baitzen duela 400 urthe, eta aurten Euskaltzaindiak Maulen antolatu kongresuaren karietara, kuriostatez ikusi nahi izan dut arras desagertu edo eihartu ote zenetz gaur atsotitzen mundua.

Oihenartek 1657ean osatu liburua euskal fraseologiaren oinarri bat denik ez da ukatzerik. Kantoin-harritzat, abiapuntutzat hartu dut beraz, nahiz ez diodan so egiten filologoa banintz bezala.

Atsotitza gaurko linguisten arabera ez du balio erraitea zer den. Jadanik Oihenartek zioena aski izanen zaigu araiz: molde labur eta atsegin batez egia edo aburu bat adierazten duen testu laburra. Auzo hizkuntzetan bezala, orduko erretorika kultoaren parte bat zen atsotizen bitartez argumentatzea: atsotiza ez zen orduko herri xehearen mintzatzeko maneraren ezaugarria. Zernahi gisaz, Oihenarti arruntak zitzaizkon entzun zituen eta liburuan etzan nahi ez zituen formula batzu. Oro har atsotitzak filosofia zahar baten ondarkin eta arrasto preziatutzat zeuzkan Oihenartek.

Bainan zoinnahi formulak "atsotitz" labela ez dezake altxa. Berriz ere Jakobson aipatuz Rusiako atsohitzak dioen bezala, eta libroki itzulirik:

Hesia ez dagi nadi batek
ez eta atsotitza edozoin perpausek

Gerta daiteke atsotitzak saririk biltzea axalez eta mamiaz lortua izaiteagatik: mendeetan zehar bizirik irautea da orduan hartze duen zortea. Oihenartek eman atsohitz frangorik bada kasu horretan. Baina andana bat badauzka ere geroztik hil baitira, sortzetik kausituak ez izaiteagatik. Eta bizi direnetan ere, denbora ez da debaldetan igaiten eta nahi ala ez, higadura ez bada ere, aldaketa jasan duketela ezagun dute.

Horren ondorioz gogoa kezkatzen duena motibazioaren xerka ibiltzea da. Bestela erranez, atsohitz bat nolaz ulertzen ote dugu? Ala bere elementu guzien errannahi analitikoak emaiten digun mezuari esker, beraz banako kodifikatua hitzez hitz ulertuz, ala atsohitzak daukan errannahi orokorrari esker, hanitzetan errannahi orokor horren motibazioa ez delarik gardena.

Jakoksonek digu emaiten ondoko adibidea:

Zazpi persona bide beretik igan dira. Nolaz ulertuko dugu esaera honen erranahia: "alferra den kuriosak ez duela deus kausitzen"? ez behintzat errannahi analitikoari esker.

Batzutan, esaera baten errannahia nolazbait ezagutuz geroz, orduan bakarrik argitzen zaigu zoin motibazioren ondotik datorkigun delako errannahia.

Naza gainditu Oztibarreko inguruan dioenak "gauza bat gaizki bukatuko" dela dio. Aski errex ulertzen da erdarazko kideak gogoratu gabe -gogoratzen ez denik ez date hanitzik- eta kontuan hartzen bada naza dela ez arrain atzemaiteko tresna baizik eta eihera aintzinean dagoen ur-bilgia.

Aldiz axeriak orohar jendeen irudimenean askotan duen itzal ezezkorra ezaguturik ere, ondoko esaeraren motibazioa ez da argia: *axeia igan zaie artin.* Zuberoan oso zabaldua da bi jende elgarrekin asarretu direla edo bi amoros elgarretarik oportu direla ulertarazteko. Nork daki ez ote den gibelean oillo edo oillar historio zerbait?

Dialektologiaz interesatzen naizelakotz, fraseologia-mailan gertatzen diren aldaketek garrantzia badutela pentsatzen dut. Aldaketa eremuaren arabera ikus daiteke, baita ere historian gaindi.

Erdal adibide bat emanen dut horren argigarri: "mettre la charrue devant/avant les boeufs" frantsesez dokumentatua da jadanik 12. mendean. Gaurko frantses akademikoan, hiztegietan, "lanean gaizki artzea" erran nahi omen du.

Baina badakigu Eskual Herrian emaiten den frantsesean beste zerbait erran nahi duela, euskararen joskera gutiesteko erabiltzen baita bereziki: "hitzak behar den ordenean ez emaitea". Baina hori zen hain zuzen 16. menderaino bederen, Furetière lekuko, frantsesak ezagutzen zuen erran nahia, nolazpait erretorikakoari loturik. Beraz erranahia aldatzen da historian zehar bainan ez zalutasun bera hartuz leku guzietan.

Erran nahiaz ez ezik, fraseologian formaz ere aldatzen da banako kodifikatua: "charrue" hitzaren ordez "char" hitza agertzen da; "mettre" aditzaren ordez "tourner"; "devant" eta "avant" preposizioak konkurrentzian izan dira historian zehar: "mettre la charrue *devant* les boeufs" edo "mettre la charrue *avant* les boeufs". Euskaltzaleen mundutxoan, ezaguna da nola bestorduz Etxahunez Jean Haritschelharrek egin tesis erraldoiko lehen orrialdean agertzen den esaera hau berarengatik epaimahaiko batek erasiatu izan zuen, tesisaren defenditzeko zeremonian, "avant" eta "devant" preposizioen artean derberdintasun zorrotza bezain alferra egin zuelarik epailariak; zioenez, J. Haritschelharrek ez zuen "avant" ezarri behar baizik eta "devant". Bistan da, fraseologian bestetan bezala, polimorfismoa bizirik dago, forma bakar bat nausitzen ez deno, nahiz bizitzaren legea besterik ez den fenomeno hori epaimahai eta akademiko askok ez duten laket.

Astotitz baten errannahia alda daiteke antonimoa izaiteraino. Adibidea Oihenarti jesaiten diot: *Berzeren escuz suguea berrotic athera nahi du.*

Zer erran nahi zuen Oihenartentzat eta orduko Euskaldunentzat? Erran nahi analitikoak, metafora baten bitartez, mezu garbia dauka: "lan zaila besteri egin-araztea". Baina atsotiz honetatik idokitzen badugu elementu soil bat hala nola *sugea berrotik ateratze*a ez ote du erran nahi ere: "bestek egin lanaz baliatzea"? Egiten dugun esaera baten ulerpena ez dator beraz soilki gure ezaguera linguistikatik; daukagun eta ez daukagun kulturak digu hemen erraiten zer ulertu behar dugun, motibazioaren kontra joanez ere. Horrengatik gaur Gipuzkoan entzuten omen den *eltzetik babak ateratzea* esaera ondo ulertzen dudan ez nakike Gipuzkoarren kultura ezagutu gabe. Beraz "besteren lanaz baliatzea" ala "lan zaila egitea" adierazten duenetz ez dakit.

Horiek hola, hiru mendetan zehar aldaketa guti jasanikako Oihenartek aipatu atsotitz zonbaiten aipatzera noa.

Bi iaberen horac, sarea gora dio Oihenartek. "Bi" eta "gora" ez ezik beste hiru hitzak aldatu dira bainan atsohitz bertsua da gaur entzuten dena:

Bi nausiren zakhurrak maiñhaterak gora. Aintzina, bere autonomia hartu du atsotitzaren atal soil batek: Oztibarren *maiñhaterak gora* klitxea baliatzen da "pobreziak jo denboraldia" ulertaraztekо. Bibliako "behi meheen" esaera ez dabil urrun ez eta ere oraino ber errannahia duen *Pettiri Sants* esaera.

Urte bata da ama, berzea amasun dio Oihenartek. Ez dakit lehen soan ulertzen zaion. Nik behintzat gaur entzuten dudanari esker entelegatzen dut: *Urthaldiak bata bestiain amaizun*, erran nahi baita banazbeste, urte onaren ondotik gerta daitekeela urte txarra edo entraalekoa.

Iseva enea nihaurenzat, surea elgarenzat dio Oihenartek, gaur entzuten delarik Oztibarren: *bereac bere, besteenac erdizka.* Ororen buru, gizarte zonbaitetaz trufatzeko erabilia den txisteak besterik ez dio.

Ahuns duguneco subi da Oihenarten beste atsotitza. Iduriz "lanak beharrunetako aintzinetik ongi prestatzea" erran nahi du. Bainan nahiz egitura berdin berdina ez duen, gaurko esaeraz ez oroitzea zaila da: *guk oillaskoa duguneko, ostiale.* Honen erranhia ezezkorra da: nago ez ote den Oihenarten esaera ber molde ezezkorrean interpretatu behar, erran nahi bailuke orduan: "alferrikako lanak egin" eta erdaraz baliokide luke oraixtian aipatutakoa: "mettre la charrue devant les boeufs".

Beste kasu zonbaitetan, Oihenartek bildu atsotitza galdu da bainan errannahi bera duen esaerak bizirik irauten du, noiz sortu den erraiteko ez balinbadut frogarik ere.

Iaunetan sein da lazena?
esdeuseti iaunzera heldu dena. Gaur atsotitz hau osoa ez da baliatzen Amikuzen edo Oztibarren. Entzuten dudana da *ttipitik handitia* esaera halako jende baten deitzeko baina gehiagotan ere beste metafora hau: *zorri phiztua,* miserian bizi izan ondoan aberasturik eta latz dena horrela salatzen baita.

Hiri sionat Alaba, adi esan Alabaisuna. Zer erran nahi du? Ene ustez, erranahi bertsua dauka Oxkaxe inguruan Urdiñarbe eta Müsküldin entzuten denak. Behiak edo idiak uztartuta direlarik erran zatekeela ulertu behar da. *Be xuria, aitzina gorria* edo *Be xuria, konpreni gorria.* Nunbait P. Urkizuk idatzirik aurkitu duen esaera honek erran nahi baitu norbaiti alegia mezu baten helaraztea haren ondoan dagoenak konpreni dezan bere buruari zuzendua izan zaiola.

Hil adi, alaba aite. Gaur entzun daitekeen atsohitza samina da, metaforaren bidez agerturik ere: *Hil ondoan, asto guziak zaldi eder izanak.*

Berzeren buruco sorria dacussa, eta ez bere lepoco xerria. Gaur: *horrek alfortxak untsa tik.* Alfortxak bi zakuz eginak baitira, bata aintzinean, bestea gibelean. Motibazioa ulertzen da; norberak bere hutsak gibelean sarturik ez ditu ikusten baina bai besteen makurrak aintzinean ezarririk. Bi esaerak bizi direla emaiten du; lehena Elizako ikasgaiekin errepikatzen da, bigarrena latinezko Aintzinatetik honat horra zaigu.

Iaureguico emaizac eskea ondoan. Gaur entzuten dena atsotitzago dela erran nezake *Jauregi* hitza desagertzen bada ere Oztibarreko formulatik. Norbaitek zerbait eskaintzen duelarik beste zerbait handiagokoren kausitzeko nahian horra zer dioten: *zahia irinain eske.* Ez da mintzateko manera itsusia.

Oihenarten irakurtzearekin, zoin izan litezkeen bere liburuan sartzera utzi nahi ez zituen atsotizak susmatu edo asmatu nahi izan dut. Emaiten digun bidea da arruntak agertzen zitzaikion atsotizak liburutik bazter utzi zituela. Konparaketaz ariko naiz, gaur entzuten ditudan atsotitz-mota batzu Oihenartek guti baizik ez dituela aipatzen ikusirik.

Hatsarrean erran bezala, esperientziak sailkatzeko balio dute atsotitzek. Denboraz eta aroaz - aroaz diot eguraldia ene ustez beste zerbait delakotz- aroaz beraz nolaz ez aipa jendeek dozenaka ezagutzen dituzten atsotitz meteorolo-

gikoak? Oihenartek holakoak guti lerrokatzen ditu, heltubada ez baitzitzaizkion sinesgarriak. Jendeek aldiz gustukoa dute besterik ez bada aroa mugatzea denboraren zikloa ongi zedarriztatuz eta sasoin bakoitzari bere eginkizuna emanez.

Konparazione, horra formula zonbait urteko egun luzeen epea nolaz mugatzen zen erakusten dutenak. *Lastometak altxatuz gioz, atsaskaria utzi behar*, dio batek. Prosaikoa da bigarren partean. Ondoko atsohitza ez hain beste: *Andredena Mariaz, gabineteko giltza etxekanderiak altxatzen du.* Entzuten da ere: *Ogiak joz gioz, etxekanderiak giltza zerurat igortzen.* Ulertzen den bezala, garia bildu ondoan, eta beraz agorrileko erditik harat, atsaskaria alorretan egitetik gelditu behar da egunak laburtzen hasten direlakoan. Hiru aldaera hauek ikusita ulertzen da zoin errex den kate horretan jarraikitzea, atsotiz berrien ontzeko, Izturitzen entzun dudan atsohitza lekuko: *Atsaskariko zarea Andredena Mariak eremaiten eta Martxoko Ama birjinak ekartzen*, horrek ere markatzen duela bi ekinokzioen arteko egun luzeen epea, Elizak nunbaitetik ere ongi señalaturik.

Polimorfismo hori, Oihenartek ere atsotitz eli batzutan erakusten duena, garrantzitsua da fraseologiarèn indar plastikoa erakusten baitu.

Aroaz ere badakar berria ondoko esaerak; *aphezpikia khanpuan delarik, ebia edo augaitza.* Beste leku askotan bezala konstatazio-ixtura duen esaera hau Montorin entzun dut eta bere baliokidea biarnesez ere badu. Iduriz, denboran, apezpikuak konfirmanka eso adorazioneka herriz herriz ibiltzen zirelarik, laborariak ohartu bide zen frangotan euria ere ekartzen zutela. Bainan Montorin baizik entzun ez dudan azalpena ez dakit nolaz entelega: bertsio burlesko gisa, ala hatsarreko mito gisa. Alabainan, Montories batek erraiten zidan arabera, lehen apezpikua haur abandonatu bat izan zen, eta ahardi edo xerrama batek hazi omen zuen. Hortik datorkieke bere ondoko guziei lohi eta uraren gutizia eta gustua!

Aroaz bestalde, jendeek askotan lehen auzoherriaren kontra erabiltzen dituzten ateraldiak eta dritxoak Oihenartek ez zituzkeen gogoko. Iduriz "au-dessus de la mêlée" egon nahi zen, tribalismoetan erori gabe. Ez du horrelako epantxurik gaur ere herri xeheak bestetaz trufatzeko. Horra zer dion biarnesaz: *Biarnes, tripa ba; tripakorik ez.* Zuberoan entzuten da: *Manexetik ez aize hunik ez jente hunik.* Eta Baxenafarrek zalu dute errefera: *Xibeotarrek eztie boneten beharrik.* Zerrenda luza niro ad libitum.

Bereziki emazteaz Oihenartek dioena aski samina bada, egungo egunean ere entzun daiteke atsotitz bortitzik. Izaitekotan, pentsatzen dut horrelakoak zentsuratu dituela Oihenartek. Gaur entzuten da: *Juanes txar bezanbat Mari txar baduk.* Edo eta: *Ematzarrik ezpalitz, elitake gizatxarrik.* Baina ezaguna da ere -ezbaita nehuntik ere happax bat- ondoko hau:

Ahuntza ez kabale
ametza ez mairan
emaztea ez jende.

Azalaz ongi egituratu atsotitza da. Ametza, ahuntza eta emaztea zaku berean sartzen dira. Ametza zergatik ote? Ez daukalakotz haitz noblearen eroapena, bihurria da berez, eta bihurtzen ari da moztu ondoan ere "lanean ari baita" errea izan artio. Iduri du ez duela legerik onartu nahi eta ezin hezia dela.

Ahuntzaz laborari gehienek pentsatzen dutena tieso da, hura ere hezgaitza izanki. Zerrailu guziak pasutzen ditu, eta auzoen arteko aharra pizteko animale ona da. Behitan edo arditan badira kabale bekan batzu ñapur deitzen direnak, auzoan belar mardoago eta artoa guriago dela erakusten baitute; *ñapur* hitza *lapur* hitzetik jiten dela ageri da baina hitz bera baliatzen da gizon andrekari edo emazte gizonkari baten deitzeko, ororen buru ñapur denak ez baitio jabego pribatuari kasurik egiten. Bainan ahuntz batez ñapur dela erraitea pleonastikoa da.

Gehiago dena, beste kabaleek ahuntza higuintzen dute. Biga bostetan entzun dut ahuntzlarrua bera ere ez dutela jasaiten ahal behiek uztar-

estalgitako: ahuntzlarrua den lekuan, pernauzka eta putarka hasten dira behiak, urrin hura senditzen duteno. Zinez kabaleek berek ere erakusten dute ahuntza ez dela kabale.

Gizonki zonbaiten ikusmoldearen arabera, ametza eta ahuntza bezain bihurri eta hezgaitz ez ote da emaztekia? Hiruak ez ote dira berdin basak eta salbaiak? "Behar bezalako" eta "plantako" jende izaiteko ez ote da izan behar zuzen, apal eta esaneko? Galdera egitea erantzuna ekartzea da.

Kontsolamenduak? bata hizkuntzaren aldetik, *emazte*, *ametz* eta *ahuntz* euskal hitz jatortzat ekarriak direlakotz, eta *kabale*, *mairan* eta *jende* mailegu hits besterik ez direlakotz, lehengo hiruak naturari loturik, landaareen eta faunaren erresumei, eta azken hiruak kulturari, hazkuntzari, zurgintzari eta gizarteari. Bestea, etnografiaren aldetik, jakin nahi baitnuke ez ote den gure auzoherrietan honela dioen atsotitzik; **Euskalduna* (Euskalduntsa barne, prefosta) *ez duk jende*. Ez dut entzun bainan ez duket ongi bilatu. Ikusten den bezala, deus guti aski zait kontsolatua izan nadin.

... OIHENARTE ... LAUAXETA ...

"Buru ederreko adatsa
laxurik baderatza,
badaitso gerrirano
urh'izpiz aberatsa."
(Oihenarte)

Uhaldean artzaintsa
ametsez da printzesa:
"Latsa zuzen mintzo da,
gezurrik ez darasa".

"Ene gerri mehea
da zafiroz betea
ihi malgu dirudi
zilarrezko zumea."

"Nire dirdirak dira
oilariteen jira
Biarnoko kondeak
nitaz litezke mira".

Artzaintsak zeragokan
urh'adatsen ferekan:
jalki zedin lamiak
bahiturik zedokan.

Geroztik arratsean
aztainek dakuste han
bi direla lamiak
jostatzen uhertzean.

Joannaren Biarnoko jauregian
mandolina-soinua hegaldatuz doa
noragabean
eta Lauaxeta jaun kapitaina
- "arresi gorri, zubi ausi"
oro gaindituz -
almena gotorren erpinera
iritsia da
eta Oihenarte jaun eskribaua
han dago aspaldidanik
- "errekeituak eman-gabez
et'ez hek hartzera herabez" -
Joannaren momia zitron-urez ikhuztuari
ostiraleko mandolina-soinu tristeaz
kantari:
"eztun altzeiru, ez burdina
.....
ene bihotza"
eta historiaren hats hotzak
ezabaturiko oinatzak

eta Lauaxetaren buru
zirtzilatuak
"dabes anei abesti":
"zein gitxi ziran zaldun areik"
eta
"Nafarroan ez da aberririk"

baina basaoilarrak khantatzen du
Iratiko basoan.

Joxe Austin ARRIETA
(*Bertso-paper printzatuak*, 1986).

Allande OIHENART mintzo

Ene mendeurrena zela eta, Muskildiarrek antsestü düe jei berezi hau eta eskentü Eüskaldüner Maulen ene sor leküan.

Ez naüzüe ikusi bena hor nintzan züen artean...

Pentsatzen ahal düzüe honkirik izan nizala berriz beren lürreko itxüretan ikustez"

- ene ama eztia, Margarita amodio tristea eta Juana lagün maitea,
- Johañe Caxau Muskildiarra hainbeste orroitzapenen jakile etxekia, Bladi Roquehort, Goyhenetxe, Beheti eta beste...
- Gexia eta Marti, artzain zühür bihotz handiak.
- Matalaz eta Xüberoko popülüa xüti bere nortazünaren bandera esküan.

Hondirik ere haurñi horien ürrezko botz eijerraz eta dantzari gazte saldo amiragarri horren koregrafiaz.

Goresmenak züer oroer jokülarier eta soiñüalarier. Maite düt txirüla bena ere gaurko instrümentu berriak ontsa enplegatürik direlarik... Teknikalarier ere ikustate, edertü direlakoz jeia eta emendatü gure plazera.

Ikusi dütüt hor püblikoan Eüskaldün aurrideak oro ber hats batetan eta idüritzen zait har emanak gehitüz joaiten direla.

Nola ez dütü horrek esperantzak pizten...

Agur dener eta berriz arte.

Pierre BERZAITZ (bizi ürrats... 1992).

RAFAEL EZ SANZIO RUIZ BALERDI



Leonardok ez balu pintatu
Gioconderen irri urrutia,
Michelangelok utzi balu
bere Sibila
sudur gabe,
Diego Velázquezek erantzi bailitu
bere Maiestate, Gaztelako
erregearen
zangoetatik
galtza-erdiak,
eta jautsi balira
Sena-ondoko,
Tiber-ondoko,
Manzanares-ondoko
haurretara,
ez ziren izanen
ez Leonardo,
ez Michelangelo,
ez Velázquez,
ezpada Ruiz Balerdi.75
Zeren honen burua
ez den hain ongi koadratzen
administrazio-kontseiluetako
jeometria errektilineoan
eta haren mintzaera
arrotz egiten baita
kontseilari jaun prudenteen belarri zuhurre
Hobeki ikusten da
Herrerako eskola nazionaletan
edo

Amezketako ikastolan,
nola bertan ikasten dute
umeek
zer aldi dagoen ferdetik gorrira,
mugimentuen eta masen direkzioa.
Rafael, ez Sanzio, Ruiz Balerdi
bat egiten da herriarekin
nola gatza eta ura
euskaldunen itsaso amaigabean.
Rafael, ez Sanzio. Ruiz Balerdi
eta harekin
Oteitza Enbil.
Txillida Juantegi,
Ibarrola Goikoetxea.
Zumeta.
Mendiburu.
gure etorkizunen esperantza bizia,
burjesiari bizkarra,
herriari aurpegia.
Euzkadiko artistak.
gure etorkizunaren esperantza bizia,
gure presentearen errealitate finkoa,
gure pasatuaren urguilu bakarra.
Zuek,
Euzkadiko artistak,
hainbeste sufritzen duen
herriaren
hitzik gabeko
boz ozena:
Rafa Balerdi...
Eta naikoa da.
Hau diot
Usurbilen

Gabriel ARESTI (Azken Harria-tik)